



añarbe  
urak<sub>o</sub>aguas

urak elkartuta unidos por el agua

urak  
elkartuta

unidos por el  
agua

añarbe  
urak<sub>o</sub>aguas

**urak**  
elkartuta

unidos por el  
**agua**

---

Iñigo Imaz Martínez

Iñaki Etxaniz Tesouro

**añarbe**  
urak aguas

2023ko maiatza

ARGITARATZAILEA / EDITA:  
Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.

TEXTUAK / TEXTOS:  
Iñigo Imaz Martínez  
(Miguel de Aramburu Gipuzkoako Historialarien Elkartea /  
Asociación de Historiadores de Gipuzkoa Miguel de Aramburu)  
Iñaki Etxaniz Tesouro  
(EHU, Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa Saila /  
UPV, Departamento de Políticas Públicas e Historia Económica)

ITZULPENAK / TRADUCCIONES:  
Bitez, S.L.

DISEINU ETA MAKETAZIOA / DISEÑO Y MAQUETACIÓN:  
Oihana Pagola Mikeleitz (didart.eu)

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN:  
Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-09-49950-2

L.G. / D.L. D 266-2023

## **Eskerrak**

Nemesio Echániz, José Ramón Luzuriaga, Juan-Santos López Antón, Tomás Liceaga, Xabier Albistur, Odón Elorza, Enrique Noain, Lander Aristi, Víctor Gascón, Iban Zubeldia eta Francisca Fernández-i beren ezagupenak eta esperientziak ekartzeagatik eta liburu hau posible egiten laguntzeagatik.

## **Agradecimientos**

A Nemesio Echániz, José Ramón Luzuriaga, Juan-Santos López Antón, Tomás Liceaga, Xabier Albistur, Odón Elorza, Enrique Noain, Lander Aristi, Víctor Gascón, Iban Zubeldia y Francisca Fernández por haber aportado sus conocimientos y experiencias y por haber contribuido a que este libro haya sido posible.

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>7</b>
<b>1. URA HISTORIAN: UR-HORNIDURAREN ETA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN AURREKARI HISTORIKOAK</b> .....	<b>8</b>
Norena da ura? Jabari Publiko Hidrikoa eraikitzearen eta ur-horniduraren historiarako hurbilketa laburra, Espainiako testuinguruan .....	<b>17</b>
<b>2. DONOSTIAKO ETA DONOSTIALDEKO UR-ZERBITZUAK ETA PREMIA HIDRIKOAK (1850-1950)</b> .....	<b>28</b>
Hasierako konponbideak eta hornidura-iturri berrien bilaketa: Goiko Kanala, Artikutza eta beste eroanbide batzuk .....	<b>37</b>
<b>3. AÑARBEOKO UREN MANKOMUNITATEAREN SORRERA (1950-1976)</b> .....	<b>50</b>
Gipuzkoaren modernizazio-prozesua. Saneamendu-sarearen gabeziak eta edateko uraren hornidura-arazoa .....	<b>52</b>
Mankomunitatea eratzearen aurrekariak .....	<b>64</b>
Lehen urratsak eta obren finantzaketa .....	<b>80</b>
Mankomunitatearen funtzionamenduaren lehen urteak: banaketa-sare baten beharra .....	<b>87</b>
Añarbeko presaren eraikuntza .....	<b>94</b>
<b>4. MANKOMUNITATEA FINKATZEA (1977-1996)</b> .....	<b>118</b>
Elikadurako hodi-sarearen eta biltegien eraikuntza, 60 kotan .....	<b>128</b>
Petritegiko Edateko Uren Araztegia: kalitate-bermea .....	<b>146</b>
Saneamendu Eskema Orokorren sorrera .....	<b>160</b>
<b>5. MANKOMUNITATEA KUDEATZEKO SOZIJETATE PUBLIKOA (1997-2022)</b> .....	<b>180</b>
Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAREN helburuak eta egitura .....	<b>182</b>
Hornidura, saneamendu eta arazketako sistema indartzea eta ur-eskariaren beherakada .....	<b>191</b>
50. urteurreneko ekitaldiak .....	<b>196</b>
Energia elektrikoa produzitzeko jarduera .....	<b>198</b>
<b>6. AÑARBEOKO UREN MANKOMUNITATEKO LANGILEAK</b> .....	<b>210</b>
<b>7. ERANSKINAK</b> .....	<b>224</b>
Mankomunitateko presidentek .....	<b>227</b>
Mankomunitatearen Batzarreko udal-ordezkarien zerrenda .....	<b>248</b>
<b>ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>273</b>

# ÍNDICE

<b>PRESENTACIÓN</b> .....	<b>7</b>
<b>1. EL AGUA A LO LARGO DE LA HISTORIA: ANTECEDENTES HISTÓRICOS DEL SUMINISTRO DE AGUAS Y LA CONSTRUCCIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO HIDRÁULICO</b> .....	<b>8</b>
¿De quién es el agua? Breve aproximación a la historia de la construcción del Dominio Público Hídrico y del abastecimiento de agua en el contexto español .....	<b>17</b>
<b>2. LOS SERVICIOS DE AGUAS Y LAS NECESIDADES HÍDRICAS DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN Y SU COMARCA (1850-1950)</b> .....	<b>28</b>
Soluciones iniciales y búsqueda de nuevas fuentes de abastecimiento: El Canal Alto, Artikutza y otras conducciones .....	<b>37</b>
<b>3. LA FORMACIÓN DE LA MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE (1950-1976)</b> .....	<b>50</b>
El proceso de modernización de Gipuzkoa. Las carencias de la red de saneamiento y el problema del abastecimiento de agua potable .....	<b>52</b>
Antecedentes de la constitución de la Mancomunidad .....	<b>64</b>
Primeros pasos y financiación de las obras .....	<b>80</b>
Los primeros años de funcionamiento de la Mancomunidad: la necesidad de una red de distribución .....	<b>87</b>
La construcción de la presa de Añarbe .....	<b>94</b>
<b>4. LA CONSOLIDACIÓN DE LA MANCOMUNIDAD (1977-1996)</b> .....	<b>118</b>
La construcción de la red de tuberías de alimentación y los depósitos a la cota 60 .....	<b>128</b>
La ETAP de Petritegi: garantía de calidad .....	<b>146</b>
El nacimiento del Esquema General de Saneamiento .....	<b>160</b>
<b>5. LA SOCIEDAD PÚBLICA DE GESTIÓN DE LA MANCOMUNIDAD (1997-2022)</b> .....	<b>180</b>
Objetivos y estructura de Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. ....	<b>182</b>
El fortalecimiento del sistema de abastecimiento, saneamiento y depuración y el descenso de la demanda de agua .....	<b>191</b>
Los actos del 50 aniversario .....	<b>196</b>
La actividad de producción de energía eléctrica .....	<b>198</b>
<b>6. EL PERSONAL DE LA MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE</b> .....	<b>210</b>
<b>7. ANEJOS</b> .....	<b>224</b>
Los Presidentes de la Mancomunidad .....	<b>227</b>
Relación de representantes municipales de la Junta de la Mancomunidad .....	<b>248</b>
<b>FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA</b> .....	<b>273</b>



# AURKEZPENA PRESENTACIÓN

## Jaione Hervás Sáez de Arregui

Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentea

Presidenta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe

**O**raindik kontrakoa pentsatzen duenik badagoen arren, Iberiar penintsulako lekurik euritsuenetako batean bizitzeko zortea dugu.

Kantauri isurialdean eta, zehazkiago Gipuzkoan, klima moderatua da temperaturei dagokienez eta baita oso euritsua ere. Lurraldean izaten diren prezipitazio handien arrazoia faktore orografikoak dira, zeinak urtean 1.200 l/m<sup>2</sup> eta 2.500 l/m<sup>2</sup> artekoak izan daitezken.

Hala eta guztiz ere, plubiositate hori ez da beti nahikoa izan gizartearen ur eskaerei erantzuteko. XIX. mendearen amaieratik aurrera, biztanleria gero eta ugariago eta aberatsago baten beharrak izugarri handitu ziren, eta ur-hornidura buruhauste bihurtu zen garaiko agintarientzat. Ur-eskaerak eskaintza gainditzen zuen, batez ere udako hilabete kritikoetan, eta baliabide hidriko berrien aurkikuntzak beti eskasak ziruditen Donostiarentzat eta bere inguruko udalerrientzat. Baina XX. mendeak aurrera egin ahala, Añarbeko presa eraiki eta Mankomunitatea sortzearekin batera, uraren arazoa konpontzeko behar ziren behin betiko oinarriak ezarri ziren.

Testuinguru horretatik abiatuta, esku artean duzun liburuak ibilbide zehatza egiten du gaur egungo garaia iritsi arte gertatu diren mugari historikoei buruz, lehenik eta behin edateko uraren hornidurari dagokionez eta, aurrerago, hondakin-uren saneamenduari eta arazketari dagokienez.

Gipuzkoako txoko honetako uraren kudeaketari dagokionez, etapa garrantzitsu horren ezaugarri nagusia guztion ongizatea izan da, udalerrri batzuen edo besteen interes partikularren gainetik. Añarbeko Uren Mankomunitatearen sorrera eta ibilbidea dira horren adibide garbia.

1968an Mankomunitatea sortu zenetik, une historiko bakoitzean lurralde honen egoera markatu duten baldintzetara egokitzen joan da, ezinbestekoa eta funtsezkoa den zerbitzu baten beharrak asetuz, nahiz eta zerbitzua ez den beti behar bezala baloratua izan.

Datozen urteetan, dagoeneko gure artean dugun klima-aldaketak kudeaketa eraginkorragoa eta ingurumenaren aldetik jasangarriagoa egitera behartuko gaitu, haren ondorioetara egokitzeko. Ziur nago Mankomunitateak, beste behin ere, zuzen erantzungo diola erronka garrantzitsu honi.

**A**unque aún habrá quien piense lo contrario, tenemos la enorme fortuna de vivir en uno de los lugares más lluviosos de toda la península ibérica.

La vertiente cantábrica y, más en concreto Gipuzkoa, se caracteriza por tener un clima moderado en cuanto a las temperaturas y muy lluvioso. El factor orográfico explica las elevadas precipitaciones que se registran en el territorio, que pueden oscilar entre 1.200 l/m<sup>2</sup> y más de 2.500 l/m<sup>2</sup> anuales.

A pesar de ello, esta elevada pluviosidad no ha sido siempre suficiente para atender las demandas de agua de la sociedad. Desde finales del siglo XIX las necesidades de una población cada vez más numerosa y próspera se disparan y el abastecimiento de agua se convierte en un quebradero de cabeza para los gobernantes de la época. La demanda supera la oferta existente sobre todo en los meses críticos de verano y el hallazgo de nuevos recursos hídricos parecen siempre insuficientes para Donostia y los municipios de su entorno. No es hasta bien entrado el siglo XX cuando, con la ejecución de la presa de Añarbe y la creación de la Mancomunidad, se construyen los cimientos que han de solucionar definitivamente este problema.

Partiendo de este contexto el libro que tiene entre manos realiza un recorrido detallado de los distintos hitos históricos que se han ido sucediendo hasta nuestros tiempos en relación, en primer lugar, con el suministro de agua potable y, más adelante, con el saneamiento y depuración de las aguas residuales.

Si hay un rasgo que caracteriza esta importante etapa en lo que se refiere a la gestión del agua en este rincón guipuzcoano, es la predominancia del bien común por encima de los intereses particulares de unos u otros municipios. La propia creación y la trayectoria de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, son un claro ejemplo de ello.

Desde su creación en 1968 la Mancomunidad se ha ido adaptando a las condiciones que en cada momento histórico han marcado la situación de este territorio, resolviendo las necesidades en cuanto a un servicio esencial imprescindible, aunque no siempre suficientemente valorado.

En los próximos años, el cambio climático que ya está entre nosotros obligará a una gestión más eficiente y ambientalmente sostenible para adaptarse a sus efectos. Estoy convencida de que, una vez más, la Mancomunidad responderá con acierto a este importante reto.



A photograph of a forest stream with a waterfall. The water is clear and flows over mossy rocks. The surrounding forest is dense with green foliage and ferns. The scene is captured in a slightly blurred, artistic style.

# URA HISTORIAN ZE HAR

EL AGUA A LO  
LARGO DE LA  
HISTORIA



1



## UR-HORNIDURAREN ETA JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOAREN AURREKARI HISTORIKOAK

**K**yotoko Munduko Ur Foroaren (2003) arabera, ura izaki bizia, aparta, sortzailea eta eraldatzailea da, eskubide unibertsal eta komunitarioa da, elkarrekotasunaren eta osagarritasunaren oinarria, gizakiaren moldagarritasunaren adierazpena eta, azken batean, gizarte-birsorkuntza. Ura bizi-baliabidea da gizakiarentzat. Egarria asezten du, jaten ditugun elikagaiak hazten laguntzen du, garbitu eta, purifikatzen du, eta hainbat lehengai kontsumo-ondasun eta -produktu bihurtzeko indarra da. Izatez, urik gabe ez dago bizitzarik, ez litzateke bizitzarik sortuko, ezta garatuko ere.

Gizateriaren sorreratik bertatik, ur-ibilguen egoerak edo haiekiko hurbiltasunak eragina izan du asentamenduen, herrixken, hiribilduen eta hirien kokapenean, animaliek, pertsonen eta jardura ekonomikoek ura behar baitute. Behin leku batean finkatuta, giza taldeak saiatzen ziren uraren eskubidea eta erabilera beren onurarako zaintzen. Orduan hasi zen uraren erabileraren pribatizazioa. Antzinako Erregimeneko gizarteetan interes kolektiboa nagusitzen zen arren, uraren erabilera, beste hainbat herri-ondasunen erabilera bezalaxe, leku bateko bizilagunentzat gordetzen zen. Hori dela eta, orube edo etxe bat zuten eta bertan bizi ziren pertsonak soilik erabil zezaketen ura. Biztanle edo bizilagun hutsak kanpoan geratzen ziren, eta etxea izan arren bertan bizi ez zirenek ura baliatzeko aukera murriztuta edo mugatuta zuten.

## ANTECEDENTES HISTÓRICOS DEL SUMINISTRO DE AGUAS Y LA CONSTRUCCIÓN DEL DOMINIOPÚBLICO HIDRÁULICO

**S**egún el Foro Mundial del Agua en Kyoto (2003) el agua es un ser vivo, divino, creador y transformador, un derecho universal y comunitario, la base de la reciprocidad y la complementariedad, una expresión de la adaptabilidad del ser humano y, en definitiva, una recreación social. El agua es un recurso vital para el ser humano. Mitiga la sed, contribuye al crecimiento de los alimentos que ingerimos, limpia, purifica y sirve de fuerza para la transformación de diversas materias primas en bienes y productos de consumo. En realidad, sin agua no hay vida, tanto para que surja como para que se desarrolle.

Desde los orígenes de la humanidad la situación de los cursos de agua o su cercanía han influido en la localización de los asentamientos, aldeas, villas y ciudades, pues animales, personas y actividades económicas necesitaban de ella. Una vez asentados los grupos humanos trataban de preservar para su propio beneficio el derecho y el uso al agua. Es en ese momento cuando comenzaba la privatización del uso; es decir, aunque en las sociedades del Antiguo Régimen prevalecía el interés colectivo, el uso del agua, como otros bienes comunales, se reservaba a los vecinos y habitantes de un lugar. Significa que únicamente tenían acceso aquellas personas que tuviesen un solar o casa y habitaran en ella, quedando excluidos los meros moradores o habitantes y viendo reducido o limitado dicho acceso aquellos que, aunque tuviesen casa, no habitaban habitualmente en ella.

Entre los propios vecinos y moradores existían también grandes diferencias, entre aquellos que eran pecheros (personas obligadas a pagar impuestos) y aquellos que eran hidalgos, o entre diferentes estatus económicos y sociales. No obstante, en aras de evitar los conflictos, eran habituales los acuerdos para el disfrute compartido entre concejos y comunidades aledañas, sobre todo para garantizar el abrevado del ganado.

Bizilagunen eta biztanleen artean ere alde handiak zeuden: petxeroak izan (zergak ordaintzera behartuta zeuden pertsonak) edo kapareak izan, edo estatus ekonomiko eta sozial batekoak edo besteak izan. Hala ere, eta gatazkak saiheste aldera, ura erabiltzeko akordioak ohikoak ziren kontzejuen eta hurbileko erkidegoen artean, batez ere abelburuek edateko ura izan zezaten bermatzen zuten akordioak.

Dena dela, uraren inguruko gatazkak ohikoak izan dira historian zehar. Askotan, oso zaila zen giza jardueren edo jarduera produktiboen interesak uztartzea: gizakien edo animalien ur-kontsumoak bat etorri behar zuten amuarrainen, barboen eta izokinen arrantzarekin —askotan, ibaietako ibilguetan jarritako otarren eta butroien bidez—, elikagaiak lortzearekin, arropa eta ehunak garbitzearekin, animalia- eta industria-hondakinen tratamendurekin, errotekin, pilategiekin eta burdinolekin. Horren guztiaren ondorioz, jarduera horiek egiten zituztenak ibaiaren tarte batzuen kontrola ziurtatzen saiatzen ziren, erabilera pribatizatuz eta, nolabait, gainerakoak kanpoan utziz edo haien erabilera eta gozamena murriztuz; eta hori gatazka-iturri izaten zen.

Uraren presentzia ohikoa zen elikaduraren bidez; hartara, Erdi Aroko eta Aro Modernoko gizarteetan uraren kalitatea eta gutxieneko hornidura bermatzen saiatzen ziren, biziraupena ziurtatze aldera. Ia XIX.

A pesar de ello, los conflictos en torno al agua han sido habituales a lo largo de la historia. En numerosas ocasiones, era difícil conciliar los intereses de tan diversas actividades, como las humanas o las productivas: el consumo humano o animal del agua, debía convivir con la pesca (truchas, barbos y salmones), en muchos casos a través de nasas y butrones, que jalaban los cursos de los ríos; la obtención de alimentos; la limpieza de la ropa y los tejidos; el tratamiento de residuos animales e industriales; molinos; batanes y ferrerías. Todo ello hacía que quienes desarrollaban estas actividades trataran de asegurar el control de ciertos tramos del río, privatizando el uso, y de alguna forma, excluyendo al resto o disminuyendo su uso y disfrute, lo cual era fuente habitual de conflicto.

La presencia del agua se hacía cotidiana a través de la alimentación, por lo que las sociedades medievales y modernas intentaban garantizar la calidad y el abastecimiento mínimo para asegurar la subsistencia. Hasta prácticamente finales del siglo XIX, contar con agua en casa era un privilegio reservado a las altas capas de la sociedad; para la mayoría, la única forma de obtenerla era mediante el uso de pozos o fuentes, públicos o privados, y en no pocos casos, el agua había que ir a buscarla al río, labor reservada a las mujeres de casa o a los aguadores, lo que suponía una mercantilización del agua.



mendearen bukaerara arte, etxean ura izatea pribilegio bat zen, goi-mailakoek soilik goza zezaketen pribilegioa; gehientzat ura lortzeko modu bakarra putzu edo iturri publikoak edo pribatuak erabiltzea zen. Askotan, gainera, ura nahi izanez gero, ibaira joan behar izaten zuten, eta egiteko hori etxeko emakumeen edo ur-hartzaileen lana izaten zen. Horrek, beraz, uraren merkantilizazioa zekarren.

XV. mendeaz geroztik, ura babesteko zenbait neurri hartzen hasi ziren. Erabilera bermatze aldera eta tentsioak eta gatazkak saiheste aldera, udalerrietako ordenantzak eta foruak uraz arduratzen hasi ziren, eta gizakien eta animalien kontsumorako ura non har zitekeen arautzen hasi ziren; hortaz, udalerrietako foruek eta ordenantzek debekatu zuten edateko ura har zitekeen eremu horietan arropa, elikagaiak eta industria-produktuak garbitzea, eta bermatu zuten ura biztanleria guztiarentzat ahalik eta baldintzarik onenetan eskuragarri izatea. Horrez gain, errotei, pilategiei eta burdinolei energia hidrikoa eskuragarri izatea ziurtatzen zitzairen, eta, horretarako, udalerrietako foruek eta ordenantzek desbideratze-presak, presa txikiak eta errota-presak baimentzea eta eraikitzea arautu zuten. Ildo horretatik, eta baliabide hidrikoak nahiz baliabide eratorriak murriztu ditzaketen kalte konponezinak saihesteko helburuarekin, arrantzaren jardura arautu zuten eta, aldi berean, arrainak eskuratzeko metodo gisa ura pozoitzea debekatu zuten.

XIX. mendera arte, hau da, ur-zirkuitu itxiak edo water closed (wc) zirkuituak garatu arte eta agintariek hirietako osasungarritasunari eta bertako biztanleen egoerari arreta handiagoa jarri arte, zaborrak eta isuriak kalera botatzea zen ohikoena. Ez zegoen estoldatzat jo zitekeen sistemarik. Ur zikinak kaleetatik bideratzen ziren, eta hori, gogaikarria ez ezik, oso arriskutsua ere bazen, infekzioen eta gaixotasunen transmisiorako foku handia baitzen. Azkenik, garai hartan, ur gutxiegi edo ur gehiegi egotea arazo larria izaten zen. Ur gehiegi egoteak eragozpen handiak sortzen zituen eta eguneroko bizitza alda zezakeen; izatez, euriteek kaleak zikintzeaz gain, labore-lursailak urez bete eta uztak suntsi zitzaizkiren. Arazo horiek arintze aldera, hondamendi horiei aurre egingo zieten azpiegiturak eraiki ziren, hala nola ubideak, presak eta zubiak. Uraren zirkulazio librea eragotziko zuten oztopoak saihestu nahi izan ziren ibilguan, nahiz eta, oro har, ez ziren oso eraginkorrak izan.

Espainiaren kasuan, uraren titulartasuna ura erabiltzen zuten erkidegoen eskuetan egon arren, Aro Modernoan titulartasun horrek Koroaren eta Estatuaren esku amaitu zuen pixkanaka. XIX. mendean, 1866ko eta 1879ko legeek jabari publikoa areagotu zuten, eta jabeak erabiltzaile hutsak ziren. Irakurketa horri

A partir del siglo XV principalmente, se empezaron a tomar una serie de medidas para preservar el agua. Con el fin de garantizar el acceso y evitar tensiones y conflictos, los fueros y ordenanzas municipales se ocupaban del agua regulando dónde se podía coger para el consumo humano y animal; prohibiendo lavar ropa, alimentos y productos industriales en aquellas zonas, procurando garantizar la disponibilidad de este elemento para toda la población en las mejores condiciones posibles; asegurar la disponibilidad de la energía hídrica a molinos, batanes y ferrerías, regulando la autorización y construcción de azudes y presas de desviación y de los propios molinos. Con el objetivo de evitar daños irreparables que pudieran mermar los recursos, tanto hídricos como de bienes derivados, en el caso particular de la pesca, se regula la actividad a la vez que se prohíbe el envenenamiento de las aguas para hacerse con los peces.

Hasta el siglo XIX cuando se desarrollaron los circuitos cerrados de agua o water closed (wc) y los gobernantes comenzaron a prestar más atención a la salubridad de las ciudades y al estado de sus habitantes, lo habitual era arrojar las basuras y los vertidos a la calle. No existía un alcantarillado que pudiera considerarse como tal. De tal forma las aguas sucias circulaban por las calles, lo que constituía una molestia cuando no un peligro, que generaban importantes focos de infección y transmisión de enfermedades. Por último, tanto la escasez como el exceso de agua suponían en la época un grave problema. El exceso provocaba serios inconvenientes, pudiendo verse la vida cotidiana afectada, pues las lluvias podían ensuciar las calles y anegar y destruir cultivos. Para paliar estos problemas, se construyeron una serie de infraestructuras que prevenían estas catástrofes, como canales, presas y puentes, intentando evitar los obstáculos en el cauce que impidiesen la libre circulación de las aguas, aunque en general fueron poco eficientes.

En el caso de España, si bien la titularidad del agua se había mantenido en manos de las comunidades que la disfrutaban, a lo largo de la edad moderna fue paulatinamente cayendo en manos de la Corona y el Estado. Ya en el siglo XIX, las leyes de 1866 y 1879 acentuaron el dominio público, siendo los propietarios meros usuarios: lectura que se mantuvo hasta la ley de aguas de 1985. Esta visión perduró, a pesar de los cambios de gobierno y régimen, a través del Plan Gasset de 1902, la creación de las Confederaciones en 1926 o el Plan Nacional de Obras Hidráulicas de 1933, hasta llegar al Franquismo.

La creación de las Confederaciones Hidrográficas, mediante Decreto de 5 de marzo de 1926, vino a fortalecer ese discurso regeneracionista, tratando de que la política hídrica fuese eficaz, metódica y global,

**1933KO OBRA  
HIDRAULIKOEN  
PLAN NAZIONALAK  
PROIEKTATUTAKO  
AZPIEGITURA  
HIDRAULIKOAK.**

**INFRAESTRUCTURAS  
HIDRÁULICAS  
PROYECTADAS POR EL  
PLAN NACIONAL DE  
OBRAS HIDRÁULICAS  
DE 1933.**



1985eko Uren Legea onartu arte eutsi zitzaion. Ikuspegi horrek Frankismora arte iraun zuen, gobernu eta erregimena aldatu bazen ere —1902ko Gasset Planaren, 1926ko Konfederazioen edo 1933ko Obra Hidrauliko-en Plan Nazionalaren bidez—.

1926ko martxoaren 5eko Dekretuaren bidez sortutako Konfederazio Hidrografikoek indartu egin zuten birsorkuntza-diskurtso hori; asmoa zen politika hidriko eraginkorra, metodikoa eta globala lortzea. Bermatu behar zen, lehenik eta behin, uraren kudeaketa batzea —arro hidrografikoak baliabide hidrikoen erabilera planifikatzeko ekintza-eremu naturaltzat hartu ziren—, bigarrenik, erabiltzaileek aprobetxamenduen kudeaketa autonomoan parte hartzea, eta, hirugarrenik, Estatuak funtzioen ordezkartizan jardutea. Eredu horrek arrakasta handia izan zuen garai hartan nazioartean, eta horren froga dira Tennessee Valley Authority erakundea, Britainia Handiko Uraren Eskualde Agintaritzak, Frantziako Arroko Finantza Agentziak edo Mexikoko Uren Lege Federalak. Frankismoan arroen arteko desorekak zuzendu nahi izan ziren eta, horretarako, plangintza hidrologiko nazionala areagotu nahi izan zen; Trantsizioan ildo berari jarraitu zitzaion.

1950 eta 1980 artean, Espainia zen urtegiek azalera handien hartzen zuten estatua, Mundu osoan. 3,5 milioi hektarea baino gehiago ureztatzen ziren, labore-lursailen % 19. 1940-63 aldirian, 322 presa eraiki ziren, eta urtegieta bildutako ura 25.000 hm<sup>3</sup>-ra iristen zen. 1964 eta 1977 artean eraikitako urtegien % 38,2k soilik zuten ureztaketa helburu nagusi (6.400 hm<sup>3</sup>);

y garantizase, en primer lugar, la unidad de gestión del agua, teniendo a las cuencas hidrográficas como ámbito de actuación natural para planificar el uso de recursos hídricos; en segundo lugar, la participación de usuarios en la gestión autónoma de aprovechamientos; y, en tercer lugar, actuar en delegación de funciones por parte del Estado. Este fue un modelo que tuvo gran éxito en la época a nivel internacional, como lo demuestran los casos de Tennessee Valley Authority, las Autoridades Regionales del Agua en Gran Bretaña, las Agencias Francesas Financieras de Cuenca o la Ley Federal de Aguas Mexicanas. Durante el Franquismo, se intentaron corregir los desequilibrios entre las diferentes cuencas y acentuar la planificación hidrológica nacional, tónica que continuó durante la transición.

Entre 1950 y 1980 España se convirtió en líder mundial en superficie ocupada por embalses, pasando del millón a los 3,5 millones de hectáreas de riego, el 19% del total de tierras cultivadas. En el periodo 1940-63 se completaron 322 presas, elevando la capacidad embalsada a 25.000 hm<sup>3</sup>. De los embalses construidos entre 1964 y 1977, sólo el 38,2% (6.400 hm<sup>3</sup>) tenían como objetivo principal el regadío, mientras que el 57,6% estaba destinado a la producción hidroeléctrica.

Durante el siglo XX, el consumo de agua se ha multiplicado por 1.000 en todo el planeta y actualmente la población humana se sitúa en los 7.000 millones de habitantes que, según los últimos cálculos de las Naciones Unidas, llegaremos a ser 9.300 millones en 2050. En un futuro no muy lejano, el problema será

izatez, urtegien % 57,6 produkzio hidroelektrikora bideratzen ziren.

XX. mendean, ur-kontsumoa 1.000 aldiz handitu da planeta osoan, eta, gaur egun, giza populazioa 7.000 milioi biztanlekoa den arren, 2050ean 9.300 milioi biztanlekoa izatera iritsiko da, Nazio Batuen azken kalkuluen arabera. Etorkizun ez oso urrunean, arazoa izango da nola erantzun 2.300 milioi emakume eta gizon horien beharrei, eta nola kudeatu atzematen hasi diren gatazkak. Uraren eskari nagusia nekazaritzak eragindakoa da, kontsumo osoaren % 70etik % 85era bitartean (3 metro kubiko behar dira 1 kg zereal ekoizteko eta 15 metro kubiko txekor bat ekoizteko).

Azken berrogeita hamar urteotan hiru aldiz gehiago ur ateratzen da, eta horrek geruza freatikoak murriztea ekarri du, emariak ez baitira behar bezala berrezartzen. Gainera, kalkulatu da nekazaritza-erabilerarako eskaria bikoiztu egingo dela 2050 baino lehen, eta horri gehitu beharko zaizkio industriarako kontsumoa (40 metro kubiko erabiltzen dira automobil bat egiteko), petrolio-putzuetan presioa handitu eta ponpatzeko erabiltzen diren ur kantitate handiak eta gas naturala “haustura hidriko” edo “fracking” bidez lortzea —horrek edateko ura lortzen den akuiferoak kutsa ditzake—. Giza kontsumorako ura bera ez dago ziurtatuta, eta 1.000 miloi gizakik ez dute gaur egun ur garbia eskuratzeko aukerarik. Herrialde pobreetan ur garbirik ez izatea da, gaur egun, Nazio Batuen *Giza Garapenari buruzko Txostenean* islatzen den kezka nagusietako bat. Txosten horretan aditzera ematen denez, ur garbirik ez izatea da mundu osoan gaixotasunak gartzeko hamar arrazoi larrienetako bat. 2050erako, eta aurreikusten den biztanleriaren igoera kontuan hartuta, % 80 ur gehiago beharko da giza kontsumorako.

Planetako zenbait tokitan agerikoak diren lehorte, ur-eskasia eta birbanaketako arazoak direla eta, ura ondasun komun global gisa planteatzen ari da (*common pool resources*), gobernantza globala eta tokikoa uztartuko dituzten gobernantza-formen beharrari lotuta, Elynor Ostrom-ek sortutako kontzeptuari jarraituz. Kontzeptu hori Hardin-ek hirurogeiko hamarkadan ezarritako kontzeptuari kontrajarri zitzaion; izan ere, azken horren iritziz, erabilera komunek desagertu behar zuten eta estatuaren eta merkatu-legeen mende egon behar zuten.

Ura da ondasun komunen historiaren beste atal bat, eta ikuspegi zabal batetik aztertu behar da, kontuan izanik jabetza eta edukitza moduak, legeriaren bilakaera eta gizarteetan duen eragina. Hain zuzen ere, azken hamarkadetan uraren gaineko eskubide komunitarioak pixkanaka galtzeak munduko zati handi baten pobretzea eragin du, eta gatazka etnikotzat edo erlijiosotzat jotzen diren gatazka asko eta asko, berez, ura edukitzearen inguruko liskarrek eragindakoa dira.

Herrialde pobreetan ur garbirik ez izatea da, gaur egun, Nazio Batuen *Giza Garapenari buruzko Txostenean* islatzen den kezka nagusietako bat (...) 2050erako, eta aurreikusten den biztanleriaren igoera kontuan hartuta, % 80 ur gehiago beharko da giza kontsumorako

cómo atender a las necesidades de esos 2.300 millones más de mujeres y hombres, y cómo gestionar los conflictos que ya se comienzan a vislumbrar. La demanda fundamental de agua es la que procede de su empleo en la agricultura, que representa de un 70 a un 85 por ciento del consumo global (se necesitan 3 metros cúbicos para producir 1 kg de cereales y 15 metros cúbicos para producir 1 kg de carne de ternera).

La extracción de agua se ha triplicado en los últimos cincuenta años, lo que ha implicado que mengüen las capas freáticas al no restablecerse suficientemente sus caudales. Se calcula además que la demanda para uso agrícola se duplicará antes de 2050, a lo que hay que agregar el consumo industrial (se emplean 40 metros cúbicos para fabricar un automóvil), las grandes cantidades que se usan para bombearla en los pozos de petróleo con el fin de aumentar la presión y para la obtención de gas natural por el procedimiento de “fractura hídrica” o “fracking”, lo que puede contaminar los acuíferos de donde se obtiene el agua potable. Ni siquiera el agua para el consumo humano está asegurada, y unos 1.000 millones de seres humanos no tienen hoy acceso a agua limpia. La falta de agua limpia en los países pobres es una de las máximas preocupaciones que se reflejan en la actualidad en el Informe sobre el Desarrollo Humano de las Naciones Unidas, donde se afirma que es una de las diez causas más graves del desarrollo de enfermedades en el mundo entero. Para 2050, tomando en cuenta el aumento previsto de la población, se necesitará un 80 por ciento más de agua para el consumo humano.

Ante los problemas de redistribución, sequía y escasez de agua en algunas latitudes del planeta, el agua se está planteando como un bien común global (*common pool resources*), vinculada a la necesidad de formas de gobernanza global y local, siguiendo el concepto acuñado por Elynor Ostrom, que vino a contraponerse al concepto establecido en los años sesenta por Hardin, para el que los usos comunes debían desaparecer y someterse a los dictados de las leyes de mercado y el Estado.

La declaración formulada el 28 de julio de 2010 por la Asamblea General de las Naciones Unidas estableció el Derecho humano al agua y al saneamiento y proclamó “el acceso al agua potable como un derecho humano básico”

Horrenbestez, gaur egungo baliabide hidrikoen inguruko egoera nahasia hazkunde-eredu jakin baten emaitza da. Izan ere, aurrerabiderako formula seguru gisa aurkeztu nahi izan zen hazkunde-eredua, azkenean, elikagaien egungo garestitzearen kausa bihurtu da, baita etorkizunean edateko ura eskuragarri izatearen gaineko ziurgabetasunaren kausa ere. Hori ez dator bat Nazio Batuen Batzar Orokorrak 2010eko uztailaren 28an egindako adierazpenarekin. Batzar Orokor horretan *ur eta saneamendurako giza eskubidea* ezarri zen, eta, bertan, aldarrikatzen zen *“edateko ura edukitzea oinarritzko giza eskubidea dela”*, eta bultzatzen zuen *“bizitzarako beharrezkoa den likidoa ez duten ia 900 milioi pertsonen eskubide hori baliatu ahal izan dezaten bermatu behar dela”*. Gaur egun, uraren kudeaketak lotura estua du garapen jasangarriarekin; Nazio Batuen Munduko Baliabide Hidrikoen Garapenari buruzko Txostenaren arabera —2003an egindako Urari buruzko Topaketetan jasotakoa—, uraren krisia gai publikoen kudeaketaren krisia da, hau da, gobernagarritasunaren krisia.

1992an, Dublino Urari eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, arlo horretako zenbait oinarritzko printzipio ezarri ziren: lehenik, ur geza baliabide amaikorra eta zaugarria dela, funtsezkoa bizitzari, garapenari eta ingurumenari eusteko; bigarren, uraren aprobetxamenduak eta kudeaketak oinarritu behar duela erabiltzaileen, planifikatzaileen eta erabakien erantzuleen parte-hartzean; hirugarren, emakumeak funtsezko zeregina betetzen duela uraren horniduran, kudeaketan eta babesean; eta, laugarren, urak balio ekonomikoa duela bere askotariko erabilera guztietan, eta ondasun ekonomikotzat hartu beharko litzatekeela.

Urte berean, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzia (IGNBK) egin zen Rio de Janeiroan, eta konferentzia horrek aukera eman zuen Agenda 21 onartzeko eta, horren bidez, uraren kudeaketarako jardunbideak hobetzeko. Haga hiriko Uraren Bigarren Mundu Foroak (2000) eta Bonn-eko Ur Gezari buruzko Nazioarteko Konferentziak (2001) Rio de

El agua es un episodio más de la historia de los bienes comunes, que debe ser analizado desde una amplia perspectiva, teniendo en cuenta las formas de propiedad y posesión, la evolución legislativa y su impacto en las sociedades que la disfrutaban. Precisamente, la pérdida gradual de los derechos comunitarios sobre el agua en las últimas décadas ha provocado el empobrecimiento de una gran parte del mundo, donde muchos conflictos que se nos presentan como de origen étnico o religioso tienen en realidad en su trasfondo la lucha por el agua.

Por tanto, la actual confusa situación en torno a los recursos hídricos es el fruto de un modelo de crecimiento que pretendiendo presentarse como una fórmula segura para el progreso ha acabado convirtiéndose en una de las causas de la carestía actual de los alimentos y de la incertidumbre acerca de la disponibilidad de agua potable en el futuro. Ello está en clara contradicción con la declaración formulada el 28 de julio de 2010 por la Asamblea General de las Naciones Unidas que estableció el Derecho humano al agua y al saneamiento, donde se proclama “el acceso al agua potable como un derecho humano básico” y se urge a “garantizar que los casi 900 millones de personas que carecen del líquido vital puedan ejercer ese derecho”. Hoy en día, la gestión del agua está íntimamente ligada al desarrollo sostenible; según el Informe de las Naciones Unidas sobre el Desarrollo de los Recursos Hídricos en el Mundo que figura en los Encuentros sobre el Agua celebrados en 2003, la crisis del agua es una crisis de gestión de los asuntos públicos, es decir, de gobernabilidad.

En 1992, en la Conferencia Internacional sobre el Agua y el Medio Ambiente de Dublín, se establecieron en este sentido una serie de principios básicos: primero, que el agua dulce es un recurso finito y vulnerable, esencial para sostener la vida, el desarrollo y el medio ambiente; segundo, el aprovechamiento y la gestión del agua debe inspirarse en un planteamiento basado en la participación de los usuarios, los planificadores y los responsables de las decisiones a todos los niveles; tercero, la mujer desempeña un papel fundamental en el abastecimiento, la gestión y la protección del agua; cuarto, el agua tiene un valor económico en todos sus diversos usos a los que se destina y debería reconocérsele como un bien económico.

En el mismo año se celebró en Río de Janeiro la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo (CNUMAD) que permitió la adopción de la Agenda 21, a través de la cual se mejoraron las prácticas en la gestión del agua. El Segundo Foro Mundial del Agua de La Haya en el año 2000 y la Conferencia Internacional sobre el Agua Dulce de Bonn en



**Resolución aprobada por la Asamblea General el 28 de julio de 2010**

Una resolución presentada por el Comité Principal (A/RES/64/292) y A/RES/64/292. **El derecho humano al agua y el saneamiento**

La Asamblea General,  
 Recordando sus resoluciones 56175, de 17 de diciembre de 1999, relativa al derecho al desarrollo, 55196, de 23 de diciembre de 2000, en que proclamó 2003 Año Internacional del Agua Dulce, 58211, de 23 de diciembre de 2003, en que proclamó el Decenio Internacional para la Agua, "El agua, fuente de vida", proclamó el Decenio Internacional para el Saneamiento, y 64198, de 20 de diciembre de 2009, en que proclamó 2009 Año Internacional del Saneamiento, y 64198, de 20 de diciembre de 2009, relativa al examen amplio de mitad de período de las actividades del Decenio Internacional para la Agua, "El agua, fuente de vida", el Programa 21, de junio de 1992, el Programa de Hábitat, de 1996, el Plan de Acción de Mar del Plata, de 1977, aprobado por la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Agua,<sup>1</sup> y la Declaración de Río sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo, de junio de 1992,<sup>2</sup>  
 Recordando también la Declaración Universal de Derechos Humanos,<sup>3</sup> el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales,<sup>4</sup> el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos,<sup>5</sup> la Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial,<sup>6</sup> la Convención sobre la

<sup>1</sup> Informe de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo, (Río de Janeiro, 3 a 14 de junio de 1992), vol. I, Resolución aprobada por la Conferencia (publicación de las Naciones Unidas, número de venta: S.92.I.8 y corrección), resolución I, 1992.11.  
<sup>2</sup> Informe de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo, (Río de Janeiro, 3 a 14 de junio de 1992), vol. I, Resolución aprobada por la Conferencia (publicación de las Naciones Unidas, número de venta: S.92.I.8 y corrección), resolución I, 1992.11.  
<sup>3</sup> Artículo 25 de la Declaración Universal de Derechos Humanos sobre el agua, Mar del Plata, 1977.  
<sup>4</sup> Informe de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo, (Río de Janeiro, 3 a 14 de junio de 1992), vol. I, Resolución aprobada por la Conferencia (publicación de las Naciones Unidas, número de venta: S.92.I.8 y corrección), resolución I, 1992.11.  
<sup>5</sup> Resolución 217 A III.  
<sup>6</sup> Véase la resolución 2202 A (XXI), 1966.  
<sup>7</sup> Naciones Unidas, Treaty Series, vol. 803, p. 244, 1964.

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 64/292 Ebazpena, ura eta saneamendurako giza eskubidea onartzen duena.

Resolución 64/292 de la Asamblea General de las Naciones Unidas reconociendo el derecho humano al agua y al saneamiento (28-07-2010).

Janeiron hasitako dinamikari eutsi zioten, nahiz eta finkatutako helburuetatik oso gutxi bete diren.

Johannesburg-en 2002an egindako Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Goi Bileran bost gai nagusi identifikatu ziren garapen jasangarriaren nazioarteko ikuspegiaren parte gisa: ura eta saneamendua; energia; osasuna; nekazaritza; eta biodibertsitatea (ingelesez, WEHAB). Bilera horiek jarraipena izan zuten 2003an, Uraren Hirugarren Mundu Foroarekin eta Ur Gezaren Nazioarteko Urtearekin. Konferentzia horiek beraiek eta konferentzien prestaketak eta ondorengo eztabaidek urari buruzko pertzepzioak aldatu dituzte.

Aurrekoari jarraituz, Baliabideak Ebaluatzeko Mundu Programan funtsezkoa da uraren arloko adierazleak ezartzea eta, horiei esker, lortutako aurrerapenak baloratu ahal izatea. Sektore hidrikoaren fenomenoak modu errazean eta osotasunean erakutsi ditzaketen adierazleak izan behar dute, fenomeno horiek aztertu eta arduradun politikoei eta, oro har, publikoari erakutsi dakien. Uraren arloko zenbait adierazle prestatzeko epe luzerako proiektu bati eman zaio hasiera, adierazle horiek probatu eta lortutako esperientziaren arabera egokitu beharko baitira.

2001 continuaron la dinámica iniciada en Río de Janeiro, aunque muy pocos de los objetivos fijados se han alcanzado.

En la Cumbre Mundial del Desarrollo Sostenible de Johannesburgo celebrada en 2002, se identificaron cinco grandes temas como parte de un enfoque internacional de desarrollo sostenible: agua y saneamiento, energía, salud, agricultura y biodiversidad (en inglés WEHAB). Esta serie de reuniones continuó en 2003 con la celebración del Tercer Foro Mundial del Agua, y con el Año Internacional del Agua Dulce. Estas conferencias, las preparaciones que las precedieron y los debates subsiguientes han modificado las percepciones del agua.

En aplicación de lo anterior, resulta clave en el Programa Mundial de Evaluación de los Recursos, el establecimiento de indicadores para el agua, donde se puedan valorar los progresos alcanzados. Deben ser indicadores que puedan mostrar de manera sencilla y completa los fenómenos del sector hídrico, para analizarlos y mostrarlos tanto a responsables políticos como al público en general. Se ha comenzado un proyecto a largo plazo de elaboración de una serie de indicadores del agua que habrán de ser puestos a prueba y adaptados según la experiencia alcanzada.



## NORENA DA URA?

### Jabari Publiko Hidrikoa eraikitzearen eta ur-horniduraren historiarako hurbilketa laburra, Espainiako testuinguruan

Populazioei zuzendutako lehen ur-hornidurak antzianako zibilizazioetan garatu ziren, hiriak sortzearekin lotutako lehen zerbitzuetako bat izan baitziren. Giza antolaketa sozialek, zibilizazio klasiko handietatik hasi eta primitiboenetaraino, baliabide hidrikoen aprobetxamendu ordenaturako eta arrazionalerako arauak eta legeak ezarri zituzten. Ur-emariei arreta jartzen zitzairen, batez ere lehorte-arriskua zegoenean. Gizarte horien oinarriko neurrien artean zeuden ur-iturrien garbiketa eta ur-iturburuen irisgarritasuna eta babesa. Erabilera horien arloko behar beste adibide dugu Espainiako lurralde osoan barreiatuta. Erromatarren arkitektura hidrikoak funtsezko obrak utzi zituen, eta obra horiek (kanalak, akueduktuak, termak, iturriak, putzuak, biltegiak eta abar) Erromako Estatu desagertu eta hainbat mende geroago funtsezko erabilera izaten jarraitu zuten penintsulako hiri-sarean nahiz nekazaritzan.

## ¿DE QUIÉN ES EL AGUA?

### Breve aproximación a la historia de la construcción del Dominio Público Hídrico y del abastecimiento de agua en el contexto español

Las primeras manifestaciones del abastecimiento de agua a poblaciones se dieron en las civilizaciones antiguas, siendo uno de los primeros servicios que se ligaron a la creación de las ciudades. Las organizaciones sociales humanas, desde las grandes civilizaciones clásicas hasta las más primitivas, establecieron reglas y leyes que permitieran un aprovechamiento ordenado y racional de los recursos hídricos. Los caudales de agua eran objeto de atención, sobre todo ante el riesgo de sequías. La limpieza de las fuentes de agua y el acceso y protección de los manantiales fueron medidas básicas en esas sociedades. Sobre estos usos, tenemos ejemplos suficientes dispersos por todo el territorio español. La arquitectura hídrica romana dejó para la posteridad obras fundamentales que, siglos después de haber desaparecido el Estado romano, aún siguieron teniendo un uso fundamental para el entramado urbano peninsular, así como para la agricultura en forma

## XVIII. mendetik aurrerera. Estatuko erakundeak modu aktiboagoan parte hartzen hasi ziren tokiko premietan. uraren osasun-baldintzak eta uraren kalitateak hobetzeko helburuarekin

Erromatarren azpiegitura horiek eta arabiarrek eta musulmanek Erdi Aroan, zenbait mendez, Iberiar Penintsulan eraiki zituzten beste azpiegitura berri-zaile batzuek hirien susperraldi handia ekarri zuten. Hegoalderantz aurrera egin zuten erresuma kristauek konkistatutako gizarte horiengandik ikasi zuten, eta Espainiako historiografian Errekonkista (722-1492) deiturikoan parte hartu zuten monarkia hispaniko kristauek bere egin zituzten beren esku erortzen ziren azpiegitura horiek guztiak. Garraiatutako uraren kalitatearen arloan arabiarrek egindako ekarpen nagusia lokatz egosiko hodien erabilera estentsiboa izan zen. Sifoiak erabilerak hornidura hobea ahalbidetzen zuen eta ur-banaketa hobetzen zuen. Azkenean, ur-biltegi handiak eraiki zituzten, hondoan harea eta legarra jarrita, eta akueduktuetatik iristen zen ura benetako iragazki-sistema berritzaile horren bidez iragazten zuten. Jakina da, esate baterako, hornidura-sistema horri esker, Granada musulmanean iturri asko eraiki zirela eta ura etxe partikularretan ere banatu zela<sup>1</sup>.

Industriaurreko aldia —antzinako zibilizazioen garaietatik industrializazioaren hastapenetara, Erdi Aroan eta Aro Modernoan barrena—, edateko uraren eskaintza urria zen, ur-hornidurak antolaketa mugatua zuen, ez zegoen etxez etxeko hornidura orokorrik, hornidura kolektiboa zen oro har —nahiz eta jabetza partikularreko iturriak eta putzuak ere ba zeuden—, eta ez zegoen edateko uraren gaineko osasun-kontrolik. Udalek arielak erabiltzen zituzten ur-horniduraren kostuak ordaintzeko. Nolanahi ere, tresna hori, askotan, ez zen nahikoa uraren kalitate ona ziurtatzeko. Uraren edangarritasun egokiari buruzko ezagutzarik ezak eta saneamendu-sistemaren gabezia larriek eraginda, ur beltzak iragazi egiten ziren eta, ondorioz, ur garbiak kutsatzen ziren. Horrek zenbait agerraldi epidemiko eragin zituen.

de canales, acueductos, termas, fuentes, pozos, depósitos, etc.

Estas infraestructuras, junto a otras nuevas e innovadoras, introducidas en la Península ibérica durante los siglos de presencia árabe y musulmana, a lo largo de la Edad Media, supusieron una importante revitalización de las ciudades. Los reinos cristianos que avanzaron hacia el sur aprendieron de las sociedades conquistadas e hicieron suyas todas esas infraestructuras que iban cayendo en sus manos durante el proceso de expansión de las monarquías hispánicas cristianas que en la historiografía española se conoce como Reconquista (722-1492). La principal aportación árabe a la calidad del agua transportada fue el uso extensivo de tuberías de barro cocido. La introducción de sifones permitía un mejor abastecimiento mejorando la distribución del agua. Finalmente, construyeron grandes depósitos de agua, colocando arena y grava en el fondo. El agua que llegaba a través de los acueductos era así, con ese innovador sistema, sometida a un verdadero sistema de filtración. Se sabe, por ejemplo que, gracias a este sistema de abastecimiento, en la Granada musulmana, se construyeron gran cantidad de fuentes y se acometió la distribución de agua a casas particulares<sup>1</sup>.

En general, en la etapa preindustrial —desde los tiempos de las civilizaciones antiguas hasta los albores de la industrialización, pasando por la Edad Media y Moderna—, el agua potable se caracterizaba por su escasa oferta, limitada organización, inexistencia de suministro domiciliario generalizado, aprovisionamiento generalmente colectivo —a pesar de que también existían fuentes y pozos de propiedad particular— y la falta de control sanitario. Los ayuntamientos solían utilizar los arbitrios para sufragar los costes que suponía el abastecimiento de agua, una herramienta que en muchos casos resultaba insuficiente para asegurar su buena calidad. La falta de conocimientos sobre la correcta potabilidad del agua, junto con las graves carencias del sistema de saneamientos, producían filtraciones de aguas negras que terminaban por contaminar las aguas limpias, lo cual generaba diversos brotes epidémicos.

El abastecimiento de agua era uno de los principales problemas urbanos a los que se enfrentaban los concejos. Por otro lado, el aprovechamiento de los recursos hídricos dependía muchas veces de la voluntad de la Corte y de las concesiones reales. La intervención de las autoridades municipales empieza a ser más

1 Álvarez Fernández, 2004, 31-33. or.

1 Álvarez Fernández, 2004, pp. 31-33.

Ur-hornidura zen kontzejuek aurre egin beharreko hiri-arazo nagusietako bat. Bestalde, baliabide hidrikoen aprobetxamendua, askotan, Gortearen borondatearen eta errege-emakiden mende zegoen. Udal-agintarien esku-hartzea nabariagoa izaten hasi zen Aro Modernoan, esku-hartze handiagoa eskatzen zuten premia eta prestazio berriak agertzearekin batera. XVIII. mendetik aurrera, Estatuko erakundeak modu aktiboagoan parte hartzen hasi ziren tokiko premietan, uraren osasun-baldintzak eta uraren kalitatea hobetzeko helburuarekin. Jabetzari dagokionez, foruek herrien esku uzten zituzten haien barrutiaren barruan sortutako ur guztiak. Halakoetan, zuzenbide partikularra, maiz, eskubide eta erabilera komunitarioaren gainera zegoen, eta horrek zaildu eta luzatu egiten zituen herritarrentzako edateko uraren inguruko akordioak eta moldaketak.

Erdi Aroan eta Aro Modernoan, herri batzuek jasaten zuten ur-eskasiak beste lanbide baten sorrera eragin zuen, urketari ibiltariena. Urketariek iturri, ibai, iturburu edo putzu publikoetatik ateratzen zuten ura, eta tokiko agintariek arautzen zituzten uraren prezioa edo zergak<sup>2</sup>. Ura —baliabide ekonomikoa eta estrategikoa zen heinean— babestuta zegoen Erdi Aroan. Bibliografia espezializatuak Erdi Aroko lege eta foruak aipatzen ditu, baina adibide gutxi batzuetan izan ezik, ezin da esan baliabide hidrikoen kudeaketa eta ustiapena antolatzeke eta optimizatzeko araudi orokor bat zegoenik kontsumorako edateko uraren hornidurari dagokionez, ezta beste erabilera industrial edo komertzial batzuei dagokionez ere.

Gaztelako Erresumarako, adibidez, Alfontso X.a Jakitunaren Zazpi Partiden Kodea aipatzen da. Lege horietan, erregea ibai nabigagarrien izaera publikoa deklaratzera mugatzen zen. Gainerako baliabide hidrikoei dagokionez, aurreikusten zen inguruko feudoen jabeek edo jabearen baimena zuten pertsonak baliabide horiek aprobetxatzea. Norberaren lursailetan putzuak eta iturriak irekitzeko askatasuna izaten zen, baina zenbait zortasun bete behar ziren ura baliatzeko.

Ministro Kontseiluak, 1953ko martxoaren 27ko Herri Lan Ministerioaren Ebazpen baten bidez, baimendu zituen Gipuzkoako hiriburuko Udala Enobietara izeneko ibaian eta Artikutzako finkaren barruan jada eraikitzen ari zen presa eta kanal berria (Presa horren obrak 1951n hasi ziren, eta, esan bezala, geldirik egon ziren, hasiera batean aurreikusitako proiektua amaitzea eragotzi zuten arazo geologikoak tarteko; eraikuntza, beraz, 1960ra arte atzeratu zen). Horrez gain, 1899tik martxan zegoen kanalean egin beharreko berrikuntzak ere onartu zituen; berrikuntza horiei esker, kanal zaharraren ahalmena handituko zen, beharrezko konponketak egingo ziren eta iragazteen ondoriozko galarak murriztuko ziren. 1958an jarri zen martxan aurreko kanalaren gabezien eta ur-premia berrien ondorioz eraiki berri zen Arranbide-Txoritokietako kanala. Kanal berri horrek 1.100 litro segundoko edukiera zuen eta egungo kanala baino beherago igarotzen zen. Hori dela eta, Beheko Kanala eta Goiko Kanala izena hartu zuten,

*que está en el Ayuntamiento de Madrid!.* (E 1. Nemesio Echániz)

En 1953, el ayuntamiento de Donostia, ante la creciente demanda de la población, presentó al Gobierno español un proyecto para el aprovechamiento de aguas invernales (precipitaciones, escorrentías y crecidas de invierno) y para derivar hasta 2.000 litros de agua por segundo en la zona de Artikutza, finca de su propiedad, procedentes de los ríos Enobietara y Añarbe, en término municipal de los municipios guipuzcoanos de Oiartzun y Errenteria, y el navarro de Goizueta.

El Consejo de Ministros, a través de una Resolución del Ministerio de Obras Públicas fechada el 27 de marzo de 1953, autorizaba al ayuntamiento de la capital de Gipuzkoa la presa en construcción de Enobietara, en el río homónimo y dentro de la propia finca de Artikutza, cuyas obras habían arrancado en 1951 y que se encontraba paralizada, como se ha dicho, por problemas geológicos que impidieron finalizar el proyecto inicialmente previsto, llegando a retrasar la construcción hasta 1960; así como el nuevo canal y las reformas en el que ya estaba en servicio desde 1899, para acrecentar su capacidad de conducción, llevar a cabo las reparaciones necesarias y aminorar las pérdidas por filtraciones. El nuevo canal de Arranbide-Txoritokietara, fruto de las carencias del anterior y consecuencia de las nuevas necesidades de agua, entró en servicio en 1958, con una capacidad de 1.100 litros segundo, transcurría a una cota más baja que el canal existente, por lo que fueron denominados como Canal Bajo y Canal Alto



Donostiako edateko ura banatzeko sarea (1959).

Red de distribución de agua potable de San Sebastián (1959).

hurrenez hurren<sup>60</sup>. Enobietako presaren lanak hasteko baimena eman zen urte berean (1947), onartu zen Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza aldatzen zuen eta Penintsulako eta Kanariar Uharteetako Ur Zerbitzuak eta Geologia Aholkularitza antolatzen zituen Dekretua. Horrela, edozein obraren ikuskapena eta zaintza Espainiako Iparraldeko Zerbitzu Hidrikoen esku zegoen. Dekretu horrek hau adierazten zuen zioen azalpenean:

“Liberazioaren ondorioz, langile espezializatuen administrazio-zailtasunek eta egokitze-zailtasunek —arro bakoitzak multzo bakar eta zatiez in bat osatzen duen errealitate geografiko eta hidrologikoarekin lehian— funtzioen bereizketa horri eutsi diote, eta, batzuetan, interferentziak, bikoiztasunak eta atzerapenak eragiten dituzte aipatutako erakundeei agindutako gaien azterketetan, txostenetan eta ebazpenetan. Horrek, jakina, kalte nabarmena egin dio haien funtzioen eraginkortasunari”<sup>61</sup>.

respectivamente<sup>60</sup>. El mismo año en el que se autorizaba comenzar los trabajos de la presa de Enobietta (1947) se aprobó un Decreto por el que se modificaba la Dirección de Obras Hidráulicas, con la organización de los Servicios Hídricos en la Península e Islas Canarias y de la Asesoría Geológica. Así, la inspección y vigilancia de cualquier obra recaía en los Servicios Hídricos del Norte de España. En la exposición de motivos se decía lo siguiente:

*“Dificultades de orden administrativos y de acoplamiento del personal especializado a raíz de la liberación ha venido manteniendo –en pugna con la realidad geográfica e hidrológica que cada cuenca constituye un conjunto único e indivisible- esta separación de funciones, que, en algunos casos, da lugar a interferencias, duplicidades y retraso en los estudios, informes y resoluciones de los asuntos encomendados a los referidos organismos, con perjuicio evidente en la eficacia de sus funciones”<sup>61</sup>.*

60 García Lesaga, 1965.

61 1947ko urtarrilaren 10eko Dekretua, Obra Hidrikoen Zuzendaritza, Penintsulako eta Kanariar Uharteetako Zerbitzu Hidrikoak eta Geologia Aholkularitza aldatzen dituen.

60 García Lesaga, 1965.

61 Decreto de 10 de enero de 1947 por el que se modificaba, la Dirección de Obras Hidráulicas, la organización de los Servicios Hídricos en la Península e Islas Canarias y de la Asesoría Geológica.

Los resultados del Decreto son los siguientes:

En el territorio confederal de la España peninsular: se fusionan, con el nombre de Servicios Hídricos, las Jefaturas o Comisarías de Aguas.

En el territorio no confederal de la España peninsular: se mantiene el nombre de los Servicios Hídricos del Sur de España y Servicios Hídricos del Tajo y se actualiza y homogeneiza la denominación en dos casos:



La Vanguardiako portada (1960/08/14).

Portada de La Vanguardia (14/08/1960).

Azkenik, 1960ko abuztuaren 13an, inauguratu zen Donostiako ur-ekarri berria, Francisco Franco diktadorea bertan zela. Izatez, Francisco Franco diktadoreak hirian ematen zuen uda, bere segizioarekin eta gobernuko kide garrantzitsuekin batera<sup>62</sup>. Artikutzan egindako obren kostua —presa eta kanal berria— 128.193.000 pezetakoa izan zen. Horietatik, 85 milioi kanal berriari zegozkion. Estatuak 15 milioi euro jarri zituen horretarako eta gainerako 69 milioiak hiriak jarri zituen Banco de Crédito Local banketxearen mailegu baten bidez.

Laburbiduta, urte erabakigarriak izan ziren Gipuzkoako eskualde honentzat edateko uren horniduran eta iturri berrien bilaketan.

Finalmente, el 13 de agosto de 1960 se inauguraba la nueva traída de aguas a Donostia/San Sebastián, con asistencia del dictador Francisco Franco, quien solía veranear en la ciudad, acompañado de su séquito y destacados miembros del gobierno en la ciudad<sup>62</sup>. El costo de las obras realizadas en Artikutza, la presa y el nuevo canal, fue de 128.193.000 pesetas. De ellos, 85 millones correspondían al nuevo canal, de los que el Estado aportaba 15 millones y los 69 millones restantes fueron aportados por la ciudad a través de un préstamo del Banco de Crédito Local.

En resumen, fueron años decisivos en la búsqueda de nuevos abastecimientos y fuentes de agua potable para toda la comarca guipuzcoana.

Hauek dira Dekretuaren emaitzak:  
 Penintsulako Espainiako lurralde konfederalean: Zerbitzu Hidrikoak izenarekin bat egin zuten Ur Burutzak edo Ur Komisariak.  
 Penintsulako Espainiako lurralde ez-konfederalean: Espainiako Hegoaldeko Zerbitzu Hidrikoak eta Tajo ibaiko Zerbitzu Hidrikoak izenei eusten zaie, eta honako bi kasu hauetan eguneratu eta homogeneizatzen dira izenak:  
 Espainiako Iparraldeko Dibisio Hidraulikoa izena aldatu eta Espainiako Iparraldeko Zerbitzu Hidrikoak izatera pasa da.  
 Guadiana eta Cijara ibaietako Zerbitzu Hidrikoak izena aldatu eta Guadiana ibaiko Zerbitzu Hidrikoak izatera pasa da.  
 1740/1959 Dekretuan berrezartzen dira arto hidrografikoetako Ur Burutzak, baina Ur Komisariak izena hartuta. Hemen: Vera Aparici, 2008.

La División Hidráulica del Norte de España pasa a ser Servicios Hidricos del Norte de España.  
 Los Servicios Hidricos del Guadiana y Cijara pasan a ser Servicios Hidricos del Guadiana.  
 En el Decreto 1740/1959 se restablecen las Jefaturas de Aguas en las cuencas hidrográficas adoptando la denominación de Comisariats de Aguas. En: Vera Aparici, 2008.

62 Luengo Teixidor, 2018, 201-218. or.

62 Luengo Teixidor, 2018, pp. 201-218.



## MANKOMUNITATEA ERATZEAREN AURREKARIAK

Lehen aditzera eman dugun bezalaxe, 1953an Donostiako Udalak, biztanleriaren ur-hornidura handitze aldera, Herri Lan Ministerioari eskatu zion Artikutzako bere finkaren eremuaren barruan neguko urak aprobetxatu ahal izatea eta Enobieta eta Añarbe ibaietatik segundoko 2.000 litrorako arte ur hartzea. Gaia aztertu ondoren eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiaren proposamenaren oinarrituta, Herri Lan Ministerioak erabaki zuen Añarbeko Artikutza eta Arranbide finketako ur-emari osoa aprobetxatzeko baimena ematea Donostiako Udalarari. Baimen hori ematean, *“uretan beherakoan egungo eskubideak errespetatuko dira, baina horien gutxiengainetik lehentasuna du Udala horrek 203 litro segundoko erabiltzeko eskubidea”*. Gainera, Urumearen ibaia-darretako soberako ur-emariak erreserbatzen ziren, eta Enobietako presa (Artikutzan) eraikitzea baimentzen zen —presa hori geldiarazita zegoen—, 1953ko martxoaren 27ko Herri Lan Ministerioaren Ebazpenaren bidez. Izatez, Donostiako Udalarari baimena ematen zitzaion Arranbideko, Artikutza finkako eta Añarbe ibaiko ur-emari osoa Donostiaren ur-hornidurarako aprobetxatzeko<sup>63</sup>.

Presaren edukiera erdira mugatu zuten arazo geologikoen ondorioz eta hiriburuak eta haren inguruneak izandako garapen izugarriaren ondorioz, hamarkada batean baino gutxiagoan azpiegitura jada ez zen ur-eskari gero eta handiagoari aurre egiteko behar bestekoa. Jose Eizmendi iturgina, eta geroago Mankomunitateko lehen presidente izango zena, 1962. urtean hiriburu-ko udalean zinegotzi sartu zenean —hiru herenetako bateko zinegotzi izan zen eta gero alkateorde kargua ere bete zuen—, ur-hornidurak jada gabezia nabarmenak zituen<sup>64</sup>. Urte gutxiren buruan, ur-banaketa txiki eta zaharkituta geratu zen eta ezin zuen hiri osoan ura banatu. Amara auzoa eraikitzen ari ziren: Antso Jakitunaren zona jada zutik zegoen, eta Pio XII.etik aurrera lan egiten ari ziren, Felipe IV.aren eta Madril hiribidearen inguruetan. Hiriaren hazkundera bor-bor zegoenean, ura ez zen etxebizitza-eraikinetako lau-

## ANTECEDENTES DE LA CONSTITUCIÓN DE LA MANCOMUNIDAD

Como ya hemos dicho anteriormente, en 1953 el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián solicitó, para la ampliación del abastecimiento de la población, al Ministerio de Obras Públicas el aprovechamiento de aguas invernales y para derivar hasta 2.000 litros por segundo de aguas dentro del área de su finca de Artikutza, procedentes de los ríos Enobieta y Añarbe. Estudiado el asunto y en base a la propuesta de la Dirección General de Obras Públicas, el Ministerio de Obras Públicas resolvió autorizar al Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián el aprovechamiento de todo el caudal de agua de las fincas Artikutza y Arranbide en Añarbe. Esta autorización se hacía *“respetando los derechos existentes en la actualidad de los de aguas abajo, pero siendo preferentes a todos estos el de los 203 litros por segundo de los que disfruta dicho Ayuntamiento”*, además se reservaban los caudales sobrantes de los afluentes del Urumea y se autorizaba la construcción de la presa de Enobieta (en Artikutza), que estaba paralizada, mediante Resolución del Ministerio de Obras Públicas de 27 de marzo de 1953. Autorizando al Ayuntamiento donostiarra el aprovechamiento, con destino al abastecimiento de agua en su término municipal, de todo el caudal de agua de la finca de Artikutza y del río Añarbe, en Arranbide<sup>63</sup>.

Los problemas geológicos, que limitan la capacidad de la presa a la mitad, junto con el enorme desarrollo vivido por la capital y su entorno hacen que en menos de una década la infraestructura sea insuficiente para hacer frente a la creciente demanda de agua. Cuando José Eizmendi, fontanero y futuro primer presidente de la Mancomunidad, entra en el ayuntamiento de la capital como concejal perteneciente a uno de los tres tercios (posteriormente ocupará el cargo de teniente alcalde), en el año sesenta y dos, las carencias del suministro de agua eran notables<sup>64</sup>. En pocos años la red de distribución de agua se había quedado

63 *Estatuko Aldizkari Ofiziala, BOE*, 1953.3.27

64 Erregimen frankistan, hiru hereneko zinegotziak aukeratzen ziren (bat familiarrena zen, beste bat profesionalena eta hirugarrena herena sindikala zen). Heren sindikal horretan iturginen gremioa oso antolatuta eta elkartuta zegoen. Indarra zuen eta beti bilatzen zuen Udalean ordezkari bat izateko bidea. 1940ko hamarkadatik zenbait pertsonak bete zuten postu hori (Valdivielso, Aizpitarte, Eizmendi eta gero Irizar), guztiak iturginen gremioak: Tomas Eizmendi, MR 2.

63 *Boletín Oficial del Estado*, 27.3.1953

64 Durante el Régimen Franquista, se elegían concejales pertenecientes a tres tercios (uno era el de la familia, otro el de los profesionales y otro del tercio sindical). En ese tercio sindical el gremio de fontaneros de Donostia / San Sebastián era un gremio que estaba muy organizado y unido. Tenía fuerza y siempre buscaba la manera de tener un representante en el Ayuntamiento. Desde la década de 1940 el puesto fue ocupado por varias personas, (Valdivielso, Aizpitarte, Eizmendi y posteriormente Irizar), todos del gremio de fontaneros: Tomás Eizmendi, MR 2.



Donostia  
ortoargazkia  
(1956/57).

Ortofoto de  
Donostia / San  
Sebastián (1956/57).

garren solairutik pasatzen, eta ponpaketa-ekipoak eta biltegiak erabili behar ziren. Garai hartan, Lorea auzoko plazen azpian, tamaina handiko biltegiak eraiki ziren, gauzez betetzen zirenak egunez zituzten hornidura-mugak konpon zitezten. Ura Monseko biltegitik zetorren eta, bertatik, adar bat Ategorrietan behera jaisten zen, ura Donostia osora banatze aldera. Biltegiaren tamaina mugatua zela eta, konponbide azkarra eman behar zitzaion gaiari.

Nolanahi ere, beste arazo handiago bat ere bazegoen, ez baitzegoen Artikutzako Enobietan urtegiarekin Donostiarako ur-hornidura bermatuko zuen behar besteko erregulazio-gaitasunik —berrogeita hamarrek hamarkadatik urritasun handiekin funtzionatzen ari zen—.Donostiak bidezko azterketak jada eskutan zituen arren, hala nola Añarbeko presarena, ez zuen horiek gauzatzeko behar adinako baliabide finantzariorik<sup>65</sup>.

Eskualdeko egoera ez zen monolitikoa, zenbait errealitate zegoen. Usurbil eta Oiartzun gisako udalerriek ez zuten inoiz larritasunez ikusi ur-horniduraren gaia, nolabaiteko autonomia baitzuten beren ur-iturrirei esker. Beste udalerrri batzuk (hala nola Errenteria edo geroago Lasarte-Oria udalerrria osatuko zuten

pequeña y anticuada, y no podía suministrar agua a toda la ciudad. El barrio de Amara se encontraba en plena eclosión: la zona de Sancho el Sabio ya se encontraba en pie, y se estaba trabajando a partir de Pío XII, en Felipe IV y Avenida de Madrid. En plena ebullición de la ciudad, el agua no pasaba del cuarto piso de los edificios de viviendas y era necesario utilizar equipos de bombeo y depósitos. En Lorea, debajo de sus plazas, se levantaron por esas fechas unos depósitos de grandes dimensiones que se llenaban por la noche para solventar las limitaciones de suministro que padecían durante el día. El agua venía del depósito de Mons, y de ahí salía un ramal que bajaba por Ategorrieta, que distribuía a todo Donostia/San Sebastián. El limitado tamaño del depósito exigía una rápida solución.

Pero había un problema de mayor envergadura y es que no había capacidad de regulación para garantizar que hubiera un suministro de agua para Donostia/San Sebastián con el embalse Enobietan en Artikutza, que estaba en funcionamiento con notables deficiencias desde los años cincuenta. Y aunque Donostia/San Sebastián tenía ya los estudios pertinentes, como el de la presa de Añarbe, carecía de recursos financieros para materializarlos<sup>65</sup>.

65 MR 2. Tomas Eizmendi.

65 MR 2. Tomás Eizmendi.

auzoak), ordea, donostiarren borondate onaren mende zeuden, Artikutzatik zetozen emariak erabiltzen baitziren udalerrri horien ur-hornidurarako. Jose Ramon Luzuriaga udal-ingeniariak gogoan du urik ezak sortzen zuen pikareska:

*“Donostiak Erreteriarri, adibidez, Artikutzako ura uzten zion. Hodi bat zegoen eta ura ematen zitzaien, baina gure gorabeherak ere izaten genituen, segundoko hainbat litro baitziren eta, deskuidatuz gero, giltza zabaldu eta ur gehiago zihoan eta.”* (MR 1. Jose Ramon Luzuriaga)

Udal batzuei ez zitzaien ura iristen, ez zeuden premia handiak zituzten beste batzuen moduan integratuta, hala nola Erreterria —ez zuen hazkunde demografiko eta industrial handiari aurre egiteko behar besteko urik—edo Pasaia —Jaizkibelen hargune ona zuen arren, arazoak zituen—<sup>66</sup>.

Egoera horretan, ez zen batere erraza izan Mankomunitatea osatzeko udalen atxikipena lortzea eta Donostialdeko udalerrri guztiak biltzea. Donostiako udal-ordezkariek banan-banan konbentzitu behar izan zituzten inguruko udalerrietako arduradunak, Añarbe eratu aurreko prozesuan. Prozesu makala izan zen eta prozesu horretan funtsezkoa izan zen Espainiako Gobernuaren babes instituzionala eta ekonomikoa. Eskualdeko herrietan agerikoa zen Donostiako Udalarekiko mesfidantza. Zuazola gizon lotsatia eta isila zen arren, sutsuki defendatzen zituen bere postulatu teknikoak, batik bat ur-hornidura beren iturburuen bidez konponduta zutela alegatzen zuten udalerrien aurrean. Ezin hobe zehaztuta zuen zein ziren eskualdea eta arroak, eta herriz herri joan zen zinegotziekin hitz egitera eta horiek konbentzitzera. Zuazola-Eizmendi bikotea garrantzi handikoa izan zen Añarbeko uren hornidura-proiektuaren eraginpean zeuden udalerrri guztien atxikipena lortzeko garaian.

Pasaiari dagokionez, Jaizkibelgo ur-harguneak belaki gisa funtzionatzen zuen. Hargune hori zetzan ur-hariak tunelen bidez moztean eta ura tantaka erortzean eta, horrela, tunelaren amaieran bi kilometro inguruko ur-hornidurarako ur-emaria sortzean. Dena dela, ur-hargune dezimononiko eta burutsu hori ez zen eskari gorakadari aurre egiteko behar bestekoa. Hasiara batean, hartutako ur-bolumena handitzen saiatu ziren, itsasora ematen zuen Jaizkibeleko hegaleko ur-ibilgu eta sakanetik galtzen zen ura murriztuko zuten hainbat prozeduraren bidez —ura berriro igotzen zuten turbinen bidez—. Sistema horren oinarriak XIX.

66 Juan-Santos Lopez, MR 1.

## El tándem Zuazola-Eizmendi fue de gran importancia a la hora de obtener la adhesión de todos los municipios concernidos por el proyecto de abastecimiento de aguas del Añarbe

La situación de la comarca no era monolítica, existían diferentes realidades. Municipios como Usurbil y Oiartzun nunca vieron con urgencia el tema del abastecimiento, ya que gozaban de cierta autonomía merced a sus propias fuentes de agua. Otros, sin embargo, como el entonces conjunto de barrios que más adelante constituiría el municipio de Lasarte-Oria, así como Erreterria, dependían de la buena voluntad de los donostiarros que aportaban caudales procedentes de Artikutza al abastecimiento de esos municipios. El Ingeniero municipal, José Ramón Luzuriaga, recuerda la picaresca que suscitaba la falta de agua:

*“San Sebastián cedía a Rentería, por ejemplo, agua de Artikutza. Había una tubería y se les daba agua, aunque solíamos tener también nuestros conflictos, porque eran tantos litros por segundo, y cuando nos descuidábamos abrían la llave y les iba más agua.”* (MR 1. José Ramón Luzuriaga)

Había Ayuntamientos a los cuales no les llegaba el agua, no estaban integrados como otros que tenían enormes necesidades, como Erreterria, que no tenía agua propia suficiente para hacer frente al fuerte crecimiento demográfico e industrial. Incluso Pasajes, que tenía una buena captación en Jaizkibel, tenía sus problemas<sup>66</sup>.

En esta situación, no fue nada fácil conseguir la adhesión de los ayuntamientos para crear una Mancomunidad y agrupar a todos los municipios de Donostialdea. Los representantes municipales de Donostia/San Sebastián tuvieron que convencer uno por uno a los responsables municipales vecinos, proceso que precedió a la constitución de Añarbe. El proceso fue lento y la obtención del respaldo institucional y económico del Gobierno español fue fundamental. En los pueblos de la comarca, la desconfianza hacia el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián era palpable. Zuazola, hombre

66 Juan-Santos López, MR 1.

## Zuazola-Eizmendi bikotea garrantzi handikoa izan zen Añarbeko uren hornidura-proiektuaren eraginpean zeuden udalerrri guztien atxikipena lortzeko garaian

mendeko eskariari erantzuteko pentsatutako tunelak ziren, baina ez ziren premia berriei erantzuteko behar bestekoak<sup>67</sup>.

Hain zuzen ere, 1964ko abuztuaren 13an, Andres Aramendi Sodupe Pasaia alkatea Herri Lan Ministerioko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari zuzendu zitzaion donostiarrek Añarbe ibaiko presaren inguruan egindako proiektua zela eta. Gutun horretan, eskualdearen egoera azaltzen zuen, eta adierazten zuen Donostia hiriburuaren inguruko udalerrien arteko elkarrekiko mendekotasuna zela eskualdeko bereizgarri, *“azken urteotan eskualdeak biztanlerian eta industrian izugarriko garapena izan du, eta gaur egun bertan ur-horniduraren arazo oso larria nabari da; izan ere, gaur egungo ur-harguneak ez dira aski kontsumoa handitzeko, eta Añarbe ibaiaren kanpo ez dago etorkizunean handitzeko aukera naturalik eta ur-horniduraren arazoari eta etorkizuneko handitzei erantzuteko modurik”*.

Pasaia Udalak informazioa eskatzen zuen. Hain munta handiko obrak planteatzeko garaian jakin nahi zuen Estatuak ordainduko zituen, inguruko udalerririk kontuan hartu ote ziren eta Pasaia, Errenteria, Hernani, Lezo eta Oiartzun ur horietan parte interesatutzat hartzen ote ziren. Errenteriako Udalak ere gauza bera egin zuen. Interes hori ez zen berria, 1963an Gobernadore Zibilak deitutako hainbat bilera egin ziren, eta bilera horietan Donostialdeko Udalerrien Mankomunitatea eratzearen komenigarritasuna eta beharra aztertzen zen, interesa zuten herri guztietan behin betiko eta zentzuzko ur-hornidura lortzeko bitartekoak eta ahaleginak bateratuko zituen legezko modu bakar gisa. Toki Araubidearen Legean oinarrituta, Pasaia, Lezo, Hernani, Oiartzun eta Errenteriako Udalek erabaki zuten gaia aztertuko zuen batzorde bat eratzea, eta batzorde horrek 1964ko otsailean idatzi zuen Donostialdeko Ur Mankomunitatearen Estatutu eta Ordenantzen

tímido y reservado, sin embargo, era una persona que defendía con vehemencia sus postulados técnicos ante los municipios que alegaban ya tener resuelto su abastecimiento mediante sus manantiales. Tenía perfectamente definida cuál era la comarca y las cuencas y fue pueblo por pueblo, hablando con los concejales intentando convencerlos. El tandem Zuazola-Eizmendi fue de gran importancia a la hora de obtener la adhesión de todos los municipios concernidos por el proyecto de abastecimiento de aguas del Añarbe.

En lo referente a Pasaia, la captación de Jaizkibel, al funcionar la montaña como una esponja, consistía en cortar las vetas mediante túneles, y el agua iba cayendo por ellos gota a gota, creando un caudal de agua al final del túnel de unos dos kilómetros, que se destinaba al abastecimiento. Sin embargo, esa decimonónica e ingeniosa captación de aguas terminó resultando escasa ante el aumento de la demanda. En un primer momento, intentaron ampliar el volumen de agua captada, mediante distintos procedimientos para reducir el agua que se perdía e iba por la ladera del Jaizkibel que daba al mar, donde hay abundantes cauces y barrancos, mediante unas turbinas que las volvían a subir. Se trataba de un sistema cuya base eran los túneles ya mencionados, ideado en el siglo XIX para hacer frente a la demanda del momento e incapaz de responder a las nuevas necesidades<sup>67</sup>.

De hecho, el 13 de agosto de 1964, Andrés Aramendi Sodupe, Alcalde de Pasaia se dirigía mediante instancia a la Dirección General de Obras Hidráulicas, del Ministerio de Obras Públicas, en relación con el proyecto de la presa que sobre el río Añarbe habían presentado los donostiarras. En la misiva se explicaba la situación de la comarca en la que la interdependencia era una característica de las poblaciones asentadas en ella, una zona circundante a la capital donostiarra que *“ha sido en los últimos años objeto de un vertiginoso desarrollo en población e industrias, acusándose actualmente en toda ella un gravísimo problema de abastecimiento de aguas, ya que las que actualmente poseen no bastan para el incremento de consumo ni existen posibilidades naturales, fuera de las aguas del río Añarbe para remediarlo y atender a futuros incrementos”*.

El Ayuntamiento de Pasaia pedía información sobre si a la hora de plantearse unas obras de tan gran envergadura, y que iban a ser sufragadas por el Estado, se habían tenido en cuenta los municipios del entorno y si Pasaia, así como Errenteria, Hernani, Lezo y

67 Juan-Santos Lopez, MR 1.

67 Juan-Santos López, MR 1.

1963az geroztik bilduta zeuden udalerriek proiektatutako mankomunitateak aintzat hartzen zuen eskualdeko egungo eta etorkizuneko baliabide hidriko guztiak integratzea, herrietako biztanleak eta industriak erabat eta zentzuz horni zitezen

Proiektua deiturikoa —Donostiak ez zuen horretan parte hartu—<sup>68</sup>. Geroago, 1965eko abenduaren 20an, Donostialdeko udalek eskaera bat egin zioten Donostiako Udalari eskualde osorako ur-mankomunitatea erazedin. Artikutzako presak, hiriburua ez ezik, inguruko beste udalerrri batzuk ere hornitzen zituen modu partzialean, eta 1964ko abuztuaren 18an erabakitakoari jarraituz, hiriko Udalak konpromisoa hartu zuen ondoko udalerrietara segundoko 85 litro bideratzeko, Añar-beko atagia eraiki bezain laster<sup>69</sup>.

Apirilaren 8ko 1065/1965 Dekretuak apirilaren 2ko Ministro Kontseiluaren erabaki bat jasotzen zuen eta hau zioen goiburuan: *“Añarbeko urtegia Urumea ibaia- ren saneamenduaren inguruko beharrezko obra osagarri- tzat hartzen da, eta Donostialdeko (Gipuzkoa) herriei hornidura mankomunitate emateko aukera emango du, baita hiri horretarako mila bederatzehun eta laurogei urte ingururako aurreikusitako kontsumoak ziurtatzeko aukera ere”*.

Dokumentu horrek aitortzen zuen Donostiako Uda- lak ahalegin ekonomikoa egin beharko zuela eta horri soilik aurre egingo ziola otsailaren 25eko 317/1960 Dekretuaren babesean eta Estatuak emandako lagun- tza bereziarekin; *“eta, gainera, justifikatuta dago obra horiek eskualdearentzat ekarriko dituzten onuren ondo- rioz. Horrez gain, Estatuak obrak berehala egiteak es- katzen duen ekarpen handiagoaren ordaina jasoko du, zuzenean eta zeharka”*. Urtegiak erregulatuko lituzkeen emariak etorkizuneko horniduretarako, saneamendu- rako eta industria-erabileretarako erreserbatu behar

La mancomunidad que proyectaron los municipios reunidos desde 1963, contemplaba la integración de todos los recursos hídricos, presentes y futuros de la comarca, para un abastecimiento completo y racional de las poblaciones y sus industrias

Oiartzun, eran consideradas parte interesada en esas aguas. Por su parte, el Ayuntamiento de Errenteria ha- cía lo propio. Este interés no era nuevo, ya en 1963 se habían celebrado varias reuniones convocadas por el Gobernador Civil, en las que se había tratado la con- veniencia y necesidad de constituir una Mancomunidad de Municipios de la comarca donostiarra, como única forma legal de conjugar medios y esfuerzos para lograr un abastecimiento de aguas definitivo y racional en todas las poblaciones interesadas. En base a la Ley de Régimen Local los Ayuntamientos de Pasaia, Lezo, Hernani, Oiartzun y Errenteria acordaron constituir una comisión de estudio que redactó el llamado *Proyecto de Estatutos y Ordenanzas de la Mancomunidad de Aguas de la Comarca de San Sebastián*, en febrero de 1964, en la que Donostia/San Sebastián no participó<sup>68</sup>. Posteriormente, el 20 de diciembre de 1965 los ayuntamientos de la comarca dirigían una solicitud al Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián para constituir una man- comunidad de aguas para toda la comarca. La presa de Artikutza abastecía no sólo a la capital sino también parcialmente a otros municipios vecinos, y siguiendo lo acordado el 18 de agosto de 1964 el Ayuntamiento de la ciudad se comprometía a derivar a los municipios vecinos 85 litros por segundo tan pronto como se cons- truyera la ataguía del Añarbe<sup>69</sup>.

El Decreto 1.065/1965, de 8 de abril, que recogía una decisión del Consejo de Ministros del 2 de abril, en su encabezamiento exponía lo siguiente: *“El em- balse del Añarbe, considerado como obra necesaria y*

68 Donostialdeko herrietarako ur-hornidura mankomunitateari buruzko txostena, Pasaia Udaleko idazkariak idatzia (1965ko uztailaren 12a). Añarbeko Uren Mankomunitatearen Artxiboa (AUMA): Sig. C 039.

69 1965eko abenduaren 20ko Pasaia Udalaren udalbatzaren aktaren kopia. Añarbeko Uren Mankomunitatearen Artxiboa (AUMA): Sig. C 039.

68 *Informe sobre abastecimiento mancomunado de aguas a las poblaciones de la comarca de San Sebastián*, redactado por el secretario del Ayuntamiento de Pasaia (12 de julio de 1965). Archivo de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe (AMAGA): Sig. C 039.

69 Copia del acta de la Sesión plenaria de 20 de diciembre de 1965, celebrada por el Ayuntamiento de Pasaia. Archivo de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe (AMAGA): Sig. C 039.

zirela aditzera ematen zuen klausula bat erantsi zen. Funtsezko alderdiak bost puntutan laburbil daitezke<sup>70</sup>:

- Onartutako proiektuak 334.014.147,60 pezetako kostua zuen.
- Estatuak beretzat erreserbatzen zituen Añarbeko urtegia erregulatzen duten emariak.
- Presak erregulatzen zituen emariak eskualdeko udalerrien artean banatzeko proposamena egin behar zen.
- Aprobetxamendua mankomunitatea izango zen, ura mankomunitateko herrietan horni zedin.
- Estatuak obrak egiteko zenbatekoaren % 50 dirulaguntza gisa jarriko zuen eta beste % 50a aurrerakin gisa, Udal onuradunek 20 urtetan itzuli beharrekoa.

Estatuak hasiera batean planteatutako formula benetan eskuzabala zen. Presarekin erabat konponduko zen eskualde horretako ur-horniduraren zerbitzu publikoa, eta, horretarako, udalei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematen zitzaien, haiek hasiera batean inolako zenbatekorik jarri behar izan gabe. Obren finantzaketa gauzatu zedin, lehenengo urratsa zen udalerriek zerbitzu-mankomunitatea eratzea, ur-emariak eta instalazioek komunak izan behar baitzuten eta juridikoki estatutu bidez arautuak. 1963az geroztik bilduta zeuden udalerriek proiektatutako mankomunitateak aintzat hartzen zuen eskualdeko egungo eta etorkizuneko baliabide hidriko guztiak integratzea, herrietako biztanleak eta industriak erabat eta zentzuz horni zitezten. Udal-mailako enpresa handi batek arautu beharko luke mankomunitatea, baliabide naturalen koordinaziorik onena lortze aldera, nahiz eta haren xedea Añarbeko etorkizuneko urtegiaren ur-emariak aprobetxatzea eta banatzea soilik izan daitekeen.

Añarbeko Mankomunitatea eratu eta berrogeita hamar urte geroago, mankomunitatearen eraketaren historiako protagonista nagusiak desagertu dira. Hala ere, garai hartan ingeniariaritzak ikasle gaztea zen Tomás Eizmendik bertatik bertara kontu diezaguke Mankomunitatearen sorreraren intrahistoria interesgarria. Jakinarazi digu gaitasun pertsonalek eta harremanek zer garrantzi izan zuten; gizarte zibila ia existitzen ez zen garaian, herritarrek zer gaitasun zuten zerbitzari publikoak saritzeko edo zigortzeko —azken batean, ez zegoen informazio-gardentasunik, eta askatasunak mugatuta zeuden—. Garai hartan, funtsezko erakundeetan ezagun bat izatea edozein proiektutan

*complementaria de la del saneamiento del río Urumea, permitirá, además el abastecimiento mancomunado a las poblaciones de la comarca de San Sebastián (Guipúzcoa), así como asegurar los consumos previstos para esta ciudad hacia el año mil novecientos ochenta”.*

Este documento reconocía que el Ayuntamiento donostiarra debería hacer un esfuerzo económico que sólo podía afrontarse con un auxilio extraordinario del Estado al amparo del Decreto 317/1960, de 25 de febrero, “y que además está justificado por los beneficios que dichas obras representarán para la región y con los que el Estado quedará resarcido, directa e indirectamente, de la mayor aportación que exige esa realización inmediata de las obras”. Introducía también una cláusula en la que se decía que era preciso reservar los caudales que pudiera regular el embalse para futuros abastecimientos, saneamiento y usos industriales. Los aspectos fundamentales se pueden resumir en cinco puntos<sup>70</sup>:

- El proyecto aprobado importaba 334.014.147,60 pesetas.
- El Estado se reservaba los caudales que regulan el embalse del Añarbe.
- Debía formularse una propuesta de distribución de caudales regulables por la presa entre los distintos municipios de la comarca.
- El aprovechamiento se haría en régimen mancomunado para el abastecimiento de agua a las poblaciones mancomunadas.
- El Estado aportaría para la ejecución de las obras el 50% de subvención y el otro 50% como anticipo, reintegrable en 20 años por los Ayuntamientos beneficiados.

La fórmula planteada en un principio por el Estado era ciertamente generosa. Con la presa iba a resolverse por completo el servicio público de abastecimiento de aguas a dicha comarca, ayudando técnica y económicamente a los ayuntamientos sin que ellos tuvieran que aportar inicialmente ninguna cantidad. Para que la financiación de las obras fuera una realidad, el primer paso era constituirse en mancomunidad de servicios, puesto que caudales e instalaciones debían ser comunes y regulados jurídicamente por unos estatutos. La mancomunidad que proyectaron los municipios reunidos desde 1963, contemplaba la integración de todos los recursos hídricos, presentes y futuros de la comarca, para un abastecimiento completo y racional de las poblaciones y sus industrias. La mancomunidad

70 Estatuko Aldizkari Ofiziala, BOE, 1965.4.27

70 Boletín Oficial del Estado, 27.4.1965.



Federico Silva Muñoz Herri Lanetako ministroak Gipuzkoako hainbat obra bisitatzeari buruzko artikulua prentsan (1967-09-08).

Artículo en prensa sobre la visita del ministro de Obras Públicas, Federico Silva Muñoz, a distintas obras de Gipuzkoa (8-09-1967).

tendría que estar regulada por una gran empresa de signo municipal, con el objetivo de alcanzar la mejor coordinación de los recursos naturales, aunque el objeto de la misma también se podría limitar únicamente al aprovechamiento y distribución de los caudales del futuro embalse del Añarbe.

Cincuenta años después de constituida la Mancomunidad del Añarbe, los principales protagonistas de la historia de la gestación de la misma han desaparecido. Sin embargo, quien en esa época era un joven estudiante de ingeniería, Tomás Eizmendi, puede darnos cuenta de primera mano a través de su testimonio, una interesante intrahistoria de cómo se gestó la creación de la Mancomunidad. La importancia que tuvieron las capacidades personales y los contactos, en un período en el que la sociedad civil prácticamente no existía y la ciudadanía tenía poca capacidad para premiar o castigar a los servidores públicos —en definitiva, no existía transparencia informativa y las libertades estaban restringidas—. Tener un conocido en las instituciones clave, podía significar la diferencia entre el éxito o el fracaso de cualquier proyecto, por interesante que éste fuera. Añarbe no fue una excepción, en una época en la que las administraciones públicas se hallaban desbordadas por las crecientes exigencias de una economía en constante crecimiento y las nuevas necesidades sociales. Infraestructuras fundamentales como la del abastecimiento de agua adquirirían así una importancia de primer orden. La industrialización, el turismo, el crecimiento demográfico, la transformación en las costumbres, los niveles de vida y el urbanismo, todo ello jugaba en una misma dirección.

*“Mi padre (José Eizmendi, fontanero y concejal del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián) solía ir a Madrid por estas cuestiones con el Alcalde porque (el abastecimiento) era un problema importante. Mi padre tenía un conocido en Madrid, un tal (José) Salgado Torres, que era el subgobernador del Banco de España, y que en su momento creo que había estado en el Banco de Crédito Local. Al que mi padre conocía porque estuvo prisionero en la guerra, pues era gudari y cayó prisionero, bueno se entregaron en Santoña (...). Lo enviaron a un batallón de trabajadores a un campo de concentración. Fue de preso, pero a una oficina en la que estaba este señor (Salgado Torres) que era falangista, creo que era*

arrakasta izatearen edo ez izatearen arteko aldea izan zitekeen, proiektua arras interesgarria izan arren. Añarbe ez zen salbuespena izan, administrazio publikoak gainezka zeuden garai batean, etengabe hazten ari zen ekonomia baten eskakizun gero eta handiagoen ondorioz eta premia sozial berrien ondorioz. Funtsezko azpiegiturek, hala nola ur-hornidurarako azpiegiturek, lehen mailako garrantzia zuten. Industrializazioak, turismoak, hazkunde demografikoak, ohituren aldaketak, bizitza-mailak eta hirigintzak bide beretik jotzen zuten.

*“Nire aita (Jose Eizmendi, iturgina eta Donostiako Udaleko zinegotzia) alkatearekin Madrilera joaten zen gai horiei buruz hitz egiteko, hornidura garrantzi handiko arazoa baitzen. Nire aitak ezagun bat zuen Madrilen, (Jose) Salgado Torres, Espainiako Bankuko gobernadore-ordea eta, oso oker ez banago, bere gailan Banco de Crédito Localen egon zena. Nire aitak gerran ezagutu zuen; aita gudaria zen eta preso hartu zuten, beno Santoñan errenditu ziren (...).Kontzentrazio-esparru batera bidali zuten, langile-batailoi batera. Beraz, preso joan zen gizon horrek (Salgado Torres) lan egiten zuen bulego batera, falangista baitzen; uste dut komandantea zela. Komandantea izateaz gain, Estatuko abokatua eta hornidura-bulego horretako buru ere bazen. Tropen horniduraz arduratzen ziren, hornidura osoaz. Nire aitak zenbakiez ulertzen zuenez gero, eta idazten eta gidatzen zekienez*

Federico Silva Muñoz, Herri Lanetako ministroa (erdian). ARXIU D'IMATGES DE LA CAIXA RURAL D'ONDA. REPOSITORI DE LA UNIVERSITAT JAUME I

El ministro de Obras Públicas, Federico Silva Muñoz (centro). ARXIU D'IMATGES DE LA CAIXA RURAL D'ONDA. REPOSITORI DE LA UNIVERSITAT JAUME I

gero, laguntzaile hartu zuen. La Puebla de Hajar-era bidali zuen. Eta La Puebla de Hajar-eko geltokian egon zen, merkantziak hornitzen, frontera zihoazen kamioietan banatze aldera. Guardia Zibilak zainduta, baina aita zen arduraduna (...).

Gerra 39an amaitu, eta (Salgado Torres-ek eta aitak) ez zuten berriro elkar ikusi, Koipe enpresa sortu zen arte (50eko hamarkadaren bigarren erdian). (Donostia-ko) Polizia Nazionalaren ondoan zegoen garrantzi handiko fabrika horretan, nire aita iturgintzaz, hoditeriaz, lurrun-instalazioez eta abar arduratzen zen. (...) Fabrika inauguratu zen egunean, beste askoren artean, Madrigo gizon bat etorri zen, Koiperi kreditua eman izanaren erantzulea. Gizon hori Salgado Torres zen eta horrela egin zuten berriro topo aitak eta bere antzinako "nagusiak" (...). Hurrengo egunean nire etxera etorri zen bazkaltzera eta, orduz geroztik, berriz ekin zioten adiskidetasun horri.

Uraren inguruko gai korapilatsu horri buruz Ministerioarekin hitz egiteko Madrilera egindako bidaiari horietako batean (1965ko udaren eta 1966. urtearen artean), nire aitak bisita egin zion Salgado Torres-i eta zer gertatzen ari zen kontatu zion. Hark esan zion: "Galduta zaudete, zuzenean (Herri Laneko) ministroarengana jo behar duzue" —garai hartan Federico Silva Muñoz (1965-1970) zen ministroa—. "Ministroa bisitatu behar duzue Ministerioa gainezka dago eta" (...). Turismoaren eta garapen turistikoaren hasiera zen. Espainiako kostaldeko herri guztiak jotzen zuten Ministeriora: ura, ura, ura, ura. Eta Ministerioak ezin zien guztxi erantzun. Salgado Torres-ek zera esan zion nire aitari: "Begira, duela gutxi Alemaniako banku batzuekin jesapen bat sinatu dugu Obra Hidraulikoetarako dirua lortzeko, guztiak dirua eskatzen ari baitira"<sup>71</sup>. (Kostaldeko herri horiek) ez dute inoiz ezer egin uraren alde, eta orain hotel guztiak gainera etortzen zaizkie eta Ministerioak ezin die guztxi erantzun... Zuzenean ministroarekin hitz egin behar duzue. Bestela, jai duzue. Nik egingo dizut gestioaren bat".

Hartara, Salgado Torres-ek Silva Muñoz-i deitu, eta gero Donostiara, Udaletxera deitu zuen, eta esan zuen:



comandante. Aparte de ser comandante era abogado del Estado y jefe de aquello, que era una oficina de abastecimientos. Se dedicaban a los abastecimientos para las tropas, todo el suministro. Como mi padre entendía de números, sabía escribir y sabía conducir, lo cogió de ayudante. Lo mandó a La Puebla de Hajar y allí estuvo en la estación de La Puebla de Hajar, donde suministraba la mercancía para repartirla en camiones para los frentes. Vigilado por la Guardia Civil, pero de encargado (...).

Terminó la guerra en el 39 y (Salgado Torres y él) no se volvieron a ver, pero cuando se montó la empresa Koipe (en la segunda mitad de los años 50), fábrica de gran importancia que estaba al lado de la Policía Nacional (de Donostia/San Sebastián), mi padre se encargó de la fontanería de la fábrica, tuberías, instalaciones de vapor, etc. (...) El día de la inauguración de la fábrica, entre otros muchos vino un señor de Madrid que era el responsable de haber concedido el crédito a Koipe. Ese señor era Salgado Torres y así es como mi padre volvió a reencontrarse con su antiguo "jefe" (...). Al día siguiente vino a comer a mi casa y desde entonces, reanudaron esa amistad.

En uno de esos viajes a Madrid (entre el verano de 1965 y el de 1966), al Ministerio con estos temas del agua que no sacaban carrera, mi padre le hace una visita a Salgado Torres y le cuenta lo que les está pasando. Él le dice: "Estáis perdidos, tenéis que ir directamente al Ministro (de Obras Públicas)"- que en aquella época era Federico Silva Muñoz (1965-1970)-. "Tenéis que visitarlo porque el Ministerio está desbordado" (...). Empezaba el turismo y el desarrollo turístico. Todos los pueblos de la costa de España iban al Ministerio: agua, agua, agua, agua, y el Ministerio ni daba a basto. Salgado Torres le contó a mi padre: "Mira, el otro día firmamos un empréstito con unos bancos alemanes precisamente para obtener dinero para Obras Hidráulicas, porque están

71 Alemaniako Errepublikaren Federalak, hirurogeita hamarrekoko hamarkadan, garapen bidean zeuden herrialdeentzako laguntzen barruan, laguntza teknikoak eta finantzarioak eman zituen obra hidraulikoak egiteko, siderurgia-instalazioak birmoldatzeko eta ikerketa agronomikoak garatzeko, beste proiektu batzuen artean. Sanz Díaz, 2005, 179-204. or.



*“beno, Silva Muñoz-ekin hitz egin dut eta esan dit ondo dagoela eta hartuko zaituela. Orain, udan, Gobernuak hilabete eman behar du Donostian Francorekin, eta guztiak joango direnez gero, Jardunaldiko Ministeriora deitu beharko diozue, hark zuek hartu eta gaia planteatu diezaizuezen”. Gero, nire aitak alkatearekin hitz egin zuen eta, Silva Muñoz Donostiara etorri zenean, Udaletxetik deitu zioten eta nire aitari bururatu zitzaion Artikutzako finkara gonbidatzea: “hura erakutsiko dizuegu eta han bazkaldu eta gaiari buruz hitz egingo dugu”.*

*Silva Muñoz-ekin hitz egin zuten gai horri buruz eta esan zion: “Primeran iruditzen zaigu, baina komeni da Marinako ministro (Pedro) Nieto Antúnez almirantearekin ere hitz egitea. Francoren konfiantzako gizona da eta proiektuari oniritzia ematen badio, guztia bide onetik joango da, Francok kasu egiten baitio”. Erabaki zuten biak (Silva Muñoz eta Nieto Antúnez) Artikutzara gonbidatzea. (...) Elkarrekin bazkaldu zuten, finka erakutsi zieten, eta ibilaldi bat egin zuten. Horrela, ministroek ikusi zuten Udalak uraren inguruan historikoki egindako lana, nola erosi zuen finka eta dena zein ondo zainduta zuen (...).*

*Eta, azkenean, Silva Muñoz-ek nire aitari esan zion —aitari ez zitzaion inoiz ahaztu ministroak hika hitz egin ziola— “Begira Jose, Donostiako Udalean egin duzuen eta honekin guztiarekin izan duzuen ardua eredu garria da. Espainiako udal guztiak zuek egin duzuenaren erdia egin izan balute, ez nituzke orain Ministerioan ditudan arazoak izango. Presa hori egingo dugu, baina baldintza batekin, konponbide hori ezin da soilik Donostiarako konponbidea izan. Presa horrek eskualde osorako izan behar du, eskualde osoak aurre egin beharko baitio arazo horri, gaur egun jakitun ez izan arren (ordura arte inork ez zuen inoiz horretaz hitz egin). Ministerioak egingo du presa, baina eskualde osorako presa izan beharko du. Mankomunitate bat edo partzuergo bat osatu eta Madrileren joan. Mankomunitatearekin edo partzuergoarekin etorri niregana Madrileren, eta Ministerioak egingo dizue presa”.*

*Nire aitak Udalarari hori jakinarazi zion eta hortxe hasi zen nire aitaren lana. Teknikariekin kontsultatu zuten. Aurkako iritzia eman zuen lehena kontu-hartzailea izan zen: “Ezta pentsatu ere. Gu mankomunitate bat? Urtetan hemen egin dugun ahalegin handiaren ondoren? Maria Kristina erreginaren errege-emakidaren ondoren? Orain lan nekagarri horretan sartuko gara?”. Bere txostena kontrakoa izan zen, Donostiak ondarea galduko baitzuen eta inbertitutako dirua desagertuko baitzen. Hala ere, nire aitak Zuazolarekin hitz egin zuen horretaz eta aurre egin beharreko egoera azaldu zion. Laburbilduz, dirurik gabe ez zegoen egiterik” (Tomas Eizmendi, MR 2).*

*1968ko martxoaren 2an, Jose Salgado Torres hil eta urtebetera, Herri Lan Ministerioaren eta eraginpean zeuden udalerrietako ordezkarien arteko harremanak*

*todos pidiendo dinero<sup>71</sup>. (Estos pueblos de la costa) no han hecho nunca nada por el agua y ahora se les vienen encima todos los hoteles y el Ministerio no da a basto... Tenéis que hablar directamente con el Ministro. No vais a sacar carrera si no, –y añadió– Yo ya te haré una gestión”.*

*Así que Salgado Torres le llamó al Silva Muñoz, y posteriormente llamó a San Sebastián, al Ayuntamiento, y dijo: “bueno ya he hablado con Silva Muñoz y me dice que muy bien, que os va a atender. Como ahora van a ir a San Sebastián porque el Gobierno tiene un mes de veraneo con Franco y van todos, cuando esté ahí le llamáis al Ministerio de Jornada, os recibe y le planteáis el tema”. Luego, mi padre habló con el Alcalde, y en efecto, cuando vino Silva Muñoz le llamaron del Ayuntamiento, y a mi padre se le ocurrió la idea de invitarles a la finca de Artikutza: “les enseñamos aquello y luego montamos allá una comida y hablamos del tema”.*

*Hablaron con Silva Muñoz de ese tema y les dijo: “Nos parece estupendo, pero es conveniente que habléis también con el Almirante (Pedro) Nieto Antúnez, Ministro de Marina. Ese hombre es un hombre de confianza de Franco y si pone buena cara al proyecto, todo irá mucho mejor, porque Franco le escucha”. Decidieron invitarlos a Artikutza a los dos (a Silva Muñoz y Nieto Antúnez). (...) Comieron, les enseñaron la finca, y dieron una vuelta. En ese momento los ministros vieron la labor que había hecho el Ayuntamiento históricamente en relación con el tema del agua, cómo habían comprado la finca y todo el cuidado que se tenía (...).*

*Y, al final, Silva Muñoz le dijo a mi padre, eso no se le olvidó nunca a mi padre, ¡cómo el ministro le había tuteado!, “Mira José, lo que habéis hecho en el Ayuntamiento de San Sebastián, el cuidado que se ha tenido con esto es ejemplar. Si todos los ayuntamientos de España hubieran hecho la mitad de lo que habéis hecho vosotros, yo no tendría los problemas que tengo en el Ministerio. Vamos a hacer esa presa, pero con una condición, esta solución no puede ser sólo para San Sebastián. Esa presa tiene que ser para toda la comarca, porque la comarca se va a enfrentar, aunque ahora no sean conscientes, con ese problema (hasta ese momento, nadie había hablado de esto), El Ministerio hará la presa, pero tiene que ser una presa para toda la comarca. Formáis una Mancomunidad o Consorcio, vais a Madrid. Me venís con*

71 La República Federal Alemana concedió durante la década de los setenta, dentro de sus ayudas a países en vías de desarrollo, varias ayudas de carácter técnico y financiero para la realización de Obras Hidráulicas, remodelación de plantas siderúrgicas y desarrollo de investigaciones agronómicas, entre otros proyectos. Sanz Díaz, 2005, pp. 179-204.

Jose Eizmendi Amutio  
(Mankomunitateko lehen  
presidentea: 1968-1971). Añarbeko  
presara 1971ko urtarrilaren 30ean  
egindako bisita. TOMAS EIZMENDI SEMEAK  
UTZITAKO ARGAZKIA

José Eizmendi Amutio (Primer  
Presidente de la Mancomunidad:  
1968-1971). Visita a la Presa de  
Añarbe el 30 de enero de 1971.

FOTOGRAFÍA CEDIDA POR TOMÁS EIZMENDI, SU HIJO



azkartu zituen pertsonak bilera bat egin zuen Madrillgo Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusian. Bilera horrek berebiziko garrantzia zuen eskualdeko ur-hornidurarako. Bilera horretan udalerrri interesdunetako ordezkariak Sustapen Hidraulikoko zuzendariorde nagusi Juan Domercq Touchard jaunarekin bildu ziren. Donostiako Udalaren izenean bertan zeuden Jose Maria Elosegui alkatea, Jose Eizmendi alkateordea, Emiliano Garmendia kontu-hartzailea eta Jose Maria Uhagon letratua. Pasaiaen ordezkarietan zeuden Andres Aramendi alkatea eta Gerardo Garcia Legasa idazkaria. Hernaniko, Urnietako eta Usurbilgo udalen ordezkarietan Fermin Altuna, Ramon Achaga eta Jose Irasuegui alkateak, hurrenez hurren, bertaratu ziren.

Donostiako Udalak eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak hitzartutako bileraren helburua zen Añarbe ibaiko presa eraikitzeari eta bertako urak erabiltzeari buruz hitz egitea, 1965eko apirilaren 8ko Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Elosegui presaren eraikuntzaren inguruko konpromisoa lortu nahi zuen, eperik laburrenean eraiki zedin. Bere iritziz, Dekretua urtegiari, ura udalerrri bakoitzeko biltegietaraino kanalizatzeari eta Urumea ibaiaren saneamenduari buruzkoa zen. Elosegui Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak jakinarazi zien Mankomunitatea eratzeko tramiteak martxan zeudela, Gobernazio Ministerioak adierazitakoaren arabera, eta, ondoren, ordezkariaren proposamena planteatu zuen: *“Arazoa Añarbeko urak helmugara eramatea denez gero, eta, horretarako, Estatuaren laguntza beharko denez gero, hasiera batean ondo iruditu zaigu Mankomunitatearen eta Herri Lan Ministerioaren arteko partzuergoaren sorrera aztertzea; partzuergo horren behin-behineko oinarri batzuk prestatu dira”*.

Zuzendariorde nagusiak, ordea, Urumea ibaiaren saneamenduaren arazoa ur-horniduraren arazoa bezain garrantzitsua zela uste zuen, eta bat egin zuen goialdean presa bat eraikiz konpon zitekeela aintzat hartzen zuen irizpide teknikoarekin. Pentsatu zen horretarako gunerik egokiena Añarbe ibaia izango zela. Presa eraikitzen ari ziren bitartean, Domercq-en iritziz, Donostiako Udalak ur-emariak parteka zitzakeen inguruko herriekin, arazoa hain larria izan ez zedin eta

*la Mancomunidad o el Consorcio a Madrid y el Ministerio os hace la presa”.*

*“Mi padre contó aquello en el Ayuntamiento y ahí es donde comienza la labor de mi padre. Consultaron con los técnicos. El primero que se opuso fue el interventor: “Ni hablar, ¿nosotros una Mancomunidad después de todo el esfuerzo que hemos hecho aquí durante años?, ¿después de la concesión real de la Reina María Cristina, ¿ahora vamos a meternos en ese rollo?”. Su informe era desfavorable, porque San Sebastián perdía patrimonio, el dinero invertido se iba a diluir. Pero aquello lo trabajó mi padre con Zuazola, explicando la situación a la que se iban a enfrentar. En resumen, sin dinero, no había manera de hacerlo” (Tomás Eizmendi, MR 2).*

El 2 de marzo de 1968, un año después del fallecimiento de José Salgado Torres, la persona que había acelerado los contactos entre el Ministerio de Obras Públicas y los representantes de los municipios afectados se celebró en la Dirección General de Obras Hidráulicas en Madrid, una reunión de vital importancia para el abastecimiento de agua de la comarca. En ella, varios representantes de los municipios interesados se reunieron con el Subdirector General de Fomento Hidráulico, don Juan Domercq Touchard. En nombre del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, estaban el alcalde José María Elósegui, el teniente de alcalde, José Eizmendi, el Interventor, Emiliano Garmendia, y el Letrado, José María Uhagón. En representación de Pasaia, acudieron su alcalde, Andrés Aramendi y el Secretario, Gerardo García Legasa. De Hernani, Urnieta y



Mankomunitatea sortzeko gestioen aurrerapenari buruzko artikulua prentsan (1967-04-23).

Artículo en prensa sobre el avance de las gestiones para crear la Mancomunidad (23-04-1967)

Itxaronaldia eramangarriagoa izan zedin. Añarbeko urtegia eraikitzeko prozesua hastearekin batera, eman zitzaion hasiera Mankomunitatea eratzeko prozesuari. Eskualdeko udalek kudeaketak egin zituzten Añarbe ibaiko uren aprobetxamendua behin-behineko deribazio baten bidez eskuratzeko, baliabide horren premia handia baitzuten eta ahalik eta azkarren lortu nahi baitzuten. Horretarako, Beheko Kanaletik ura hartzea ahalbidetzen zuen atagia edo presa txiki bat eraiki zen. Azpiegitura hori onartutako aurreproiektuan aurreikusten zen, eta hamaika hilabeteko egikaritze-epea zuen —proiektu osoarena berrogeita hamalau hilabetekoa



Prensako artikulua, Donostiako Udalak Mankomunitatearen eraketa onartzeari buruzkoa (1967-08-24).

Artículo en prensa sobre la aprobación de la constitución de la Mancomunidad por el Ayuntamiento de San Sebastián (24-08-1967)

Usurbil acudieron los respectivos alcaldes, Fermín Altuna, Ramón Achaga y José Irasuegui, respectivamente.

El objetivo de la reunión concertada entre el Ayuntamiento donostiarra y la Dirección General de Obras Hidráulicas, era tratar sobre la construcción de la presa del río Añarbe y la utilización de sus aguas, según lo previsto en el Decreto de 8 de abril de 1965. Elósegui quería conseguir un compromiso sobre la construcción de la presa, en el plazo más corto posible, ya que entendía que el Decreto se refería al embalse, a la canalización del agua hasta los depósitos de cada Municipio y al saneamiento del río Urumea. Elósegui informó a los representantes de la Dirección General de Obras Hidráulicas que los trámites para constituir la Mancomunidad estaban en marcha, según lo indicado por el Ministerio de Gobernación, y seguidamente planteó la propuesta de la delegación: *“Como el problema es llevar las aguas del Añarbe a su destino y para ello se necesitará la colaboración del Estado, ha parecido bien en principio estudiar un consorcio entre Mancomunidad y Ministerio de Obras Públicas, para lo que se han redactado unas bases provisionales”*.

«Presq hori egingo dugu. baina baldintza batekin, konponbide hori ezin da soilik Donostiarako konponbidea izan. Presq horrek eskualde osorako izan behar du»

Federico Silva Muñoz, Herri Lanetako ministroa

zen<sup>72</sup>. Atagia horri “Añarbeko presa txiki” deitu zitzaion, presa nagusiaz bereizte aldera. Nolanahi ere, hori moldaketa partzial bat besterik ez zen izan; izatez, kanalarekin, besterik gabe, erregulaziorik ezaren ondoriozko murrizketak zeuden, udazkenean behintzat (hilik kritikoa urria zen).

Bilera horretan, Domercq-ek Mankomunitatea eratzeko tramiteekin jarraitzea animatu zituen ordezkariak, eta presaren espedienteaz ez zela geldituko ziurtatu zien, Ministerioak interes handia baitzuen. Uraren tarifei dagokienez, aditzera eman zuen tarifek berdinak izan behar zutela guztientzat, soberakinekin inbertsioak amortiza zitezkeen eta. Beharrezkoa ez zen arren, ez zegoen eragozpenik Urumearen saneamendurako beharrezkoak ziren ur-emarien gaia estatutuetan sartzeko, ur horiek Estatuarekin bat etorri eta partzuergoaren bidez erabiliko baitziren. Mankomunitatearen eta Ministerioaren arteko partzuergoaren oinarriei dagokienez —Donostiako Udalak alkatearekin batera aurkeztu zituen—, Domercq-ek berriz ere nabarmendu zuen urtegiak eta herrien horniduraz besterik ez zela hitz egiten; Urumea ibaiaren saneamendua alde batera geratzen zen eta, bere iritziz, helburu hori etorkizuneko partzuergoan ere sartu behar zen; kontuan izan behar da Estatuaren hasierako ideia saneamendua izan zela. 1973. urtea urte kritikotzat jotzen zen, urte horretarako obra guztiek abian egon behar zutela jakinik<sup>73</sup>.

«Vamos a hacer esa presa, pero con una condición, esta solución no puede ser sólo para San Sebastián. Esa presa tiene que ser para toda la comarca»

Federico Silva Muñoz, ministro de Obras Públicas

El subdirector general, sin embargo, consideraba tan importante el problema de saneamiento del río Urumea, como el abastecimiento de agua, aceptándose el criterio técnico de que podría solucionarse con una presa en la parte alta. Se pensó que el mejor punto para ello sería el Añarbe. Mientras se construía la presa, Domercq opinaba que el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián podía compartir algunos caudales de agua con sus pueblos vecinos, procurando así que el problema no fuera tan grave y la espera se hiciera más llevadera. Al mismo tiempo en el que se iniciaba el proceso de construcción de la presa de Añarbe se iniciaba el proceso de constitución de la Mancomunidad. Los ayuntamientos de la comarca hicieron gestiones para acceder al aprovechamiento de las aguas del río Añarbe, un recurso que tanto necesitaban y que pretendían obtener lo antes posible, mediante una derivación provisional. Para ello se levantó una ataguía o azud, que permitía la toma del Canal Bajo. Una infraestructura contemplada en el anteproyecto aprobado, cuyo plazo de ejecución era de once meses, frente a los cincuenta y cuatro del proyecto completo<sup>72</sup>. Esa ataguía pasó a ser conocida como “presa pequeña de Añarbe”, para distinguirla de la presa propiamente dicha. De todas maneras, esto no fue más que un arreglo parcial, ya que sólo con el canal, había restricciones, por la falta de regulación, al menos en otoño, siendo el mes más crítico el de octubre.

En la citada reunión, Domercq, animó a los miembros de la delegación a seguir con los trámites de constitución de la Mancomunidad, asegurando que el expediente de la presa no iba a sufrir ninguna paralización,

72 Donostialdeko herrietarako ur-hornidura mankomunatuari buruzko txostena, Pasaiaiko Udaleko idazkariak idatzia (1965ko uztailaren 12a). Añarbeko Uren Mankomunitatearen Artxiboa (AUMA): Sig. C 039.

73 Madrilén, Añarbe ibaiko presaren inguruan egindako bilerari buruzko oharra, 1968ko martxo. Añarbeko Uren Mankomunitatearen Artxiboa (AUMA): Sig. C 039.

72 *Informe sobre abastecimiento mancomunado de aguas a las poblaciones de la comarca de San Sebastián*, redactado por el secretario del Ayuntamiento de Pasaia (12 de julio de 1965). Archivo de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe (AMAGA): Sig. C 039.

Erakunde mankomunatu horien lege-aurrekarietara jotzen badugu, atzera egin behar dugu Estatuak udalei ematen dizkien dirulaguntzei buruzko 1944ko uztailaren 27ko Dekreturaino. Dekretu horren bidez, probintziatiko aldundiei aukera ematen zitzaien proiektuak aurkezteko eta hornidura- eta saneamendu-lanak egiteko, udalerrri askok arlo horretan zituzten zailtasunak ikusita. Urtebete geroago, 1945eko azaroaren 2ko Dekretuak partzuergo tresna sortu zuen, obra horiek egiteko probintziako administrazioak eta udal-erakundeak lankidetzan aritzea ahalbidetuko zuen tresna gisa. Hamarkada bat geroago, 1955eko ekainaren 17ko Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudiak, 37. artikulutik 40ra bitartean, jasotzen du partzuergo tresnaren lehen arau-tratamendua. Ondoren, 1968ko uztailaren 26ko Hornidura eta Saneamendu Plan Nazionalak erabakitasunez bultzatu zuen partzuergo tresna, zerbitzu horiek egiteko bide gisa. Une horretatik aurrera, partzuergoen kopurua biderkatu egin zen, eta Bilbo Handiko Ur Horniduraren Partzuergoa izan zen garrantzitsuenetako bat. Zenbait autoreren iritziz, partzuergoa erakunde egokia da tokiko bizimoduaren oinarri komunitario tradizionalak kudeaketa-tekniken aurrerapen eraginkor eta modernoarekin lotzeko<sup>74</sup>.

Añarbeko Uren Mankomunitatearen estatutuak 1968ko uztailaren 27ko Dekretuaren bidez onartu ondoren (1968ko abuztuaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, BOEn, argitaratua), etorkizunean Donostiako eskualde osoari ur-hornidura ziurtatuko zion esparru juridiko-administratiboa bermatu zen. Prentsak aditzera eman zuen Estatuak ur-hornidura handitzeko obretarako emango zuen dirulaguntzen erregimena zehazten zuen espedienteak garrantzi berezia zuela; izan ere, Ministro Kontseiluak Añarbe ibaiko presaren obrei buruz hartutako erabakiak Donostialde osorako ur-horniduraren etorkizuna ziurtatuko luke<sup>75</sup>. Federico Silva Muñoz Herri Laneko ministroak hiriari eman zion laguntza eskertze aldera, abuztuaren 29ko Donostiako udalbatzak erabaki zuen ministroari Donostiako urrezko domina ematea, *"bere ministerio-kudeaketa eragin-korragatik eta hirian egiten ari diren hobekuntza-lanen, hala nola saihezbidearen eta Añarbeko urtegiko presaren, aitorza gisa"*<sup>76</sup>.

porque el Ministerio estaba muy interesado. En cuanto a las tarifas del agua, señalaba que debían ser iguales para todos, ya que con los excedentes se podrían amortizar las inversiones. Aunque no era necesario, tampoco había inconveniente para que se incorporara a los estatutos el asunto de los caudales necesarios para el saneamiento del Urumea, ya que se utilizarían de acuerdo con el Estado y a través del consorcio. Respecto a las bases del consorcio entre Mancomunidad y Ministerio que había presentado el Ayuntamiento donostiarra de mano su alcalde, Domercq volvía a llamar la atención de que se hablaba únicamente del embalse y del abastecimiento a las poblaciones, olvidando el saneamiento del Urumea, objetivo que debía incluirse en el futuro consorcio, ya que la idea inicial del Estado fue la del saneamiento. En fin, 1973 se consideraba el año crítico en el que debían estar todas las obras en marcha<sup>73</sup>.

Si nos remitimos a los antecedentes legales de estos entes mancomunados, debemos retrotraernos hasta el Decreto de 27 de julio de 1944, sobre subvenciones del Estado a los ayuntamientos, que permitía a las Diputaciones provinciales sustituir a éstos en la presentación de proyectos y en la ejecución de obras de abastecimiento y saneamiento, vistas las dificultades que representaban para muchos municipios. Un año más tarde, el Decreto de 2 de noviembre de 1945 creaba el consorcio como instrumento de cooperación de la administración provincial con las entidades municipales, para realizar aquellas obras. Una década después, el Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales de 17 de junio de 1955 que en sus artículos 37 a 40 conoce su primer tratamiento normativo el consorcio. Posteriormente el Plan Nacional de Abastecimiento y Saneamiento de 26 de julio de 1968 impulsó decididamente la figura del consorcio como instrumento para prestar esos servicios. A partir de ese momento, se multiplicó el número de consorcios, siendo el Consorcio de Abastecimiento de Agua del Gran Bilbao uno de los más importantes. Hay autores que definen el consorcio como el organismo idóneo que une las tradicionales bases comunitarias de la vida local con el eficaz y moderno avance de las técnicas gestoras<sup>74</sup>.

En el caso de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, tras la aprobación de los estatutos por Decreto del 27 de julio de 1968 (publicado en BOE de 17 de

74 Álvarez Fernández, 2004, 88-108. or.

75 Tokiko prentszaz haratago —hala nola *La Voz de España*, 1969.02.22—, eta Espainiarako erabaki garrantzitsuak zirenez gero, herrialde osoko prentsan ere agertzen ziren. *Diario de Burgos*, 1969.02.22

76 *Diario de Burgos*, 1969.08.30

73 *Notas sobre lo tratado en la reunión celebrada en Madrid acerca de la presa del río Añarbe*, marzo 1968. Archivo de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe (AMAGA): Sig. C 039.

74 Álvarez Fernández, 2004, pp. 88-108.

2034/1968 Dekretua, uztailaren 27koa, Mankomunitatea eratzea onartzen duena.


Decreto 2034/1968 del 27 de julio, en el que se aprueba la constitución de la Mancomunidad.

Estatuak Donostialdeko premia gero eta handia- goei emandako laguntza horren bidez, hazkunde demografiko eta industrialaren ondorioei erantzun nahi zitzairen, eta lehen mailako turismo-helmuga garrantzitsu bati eutsi nahi zitzaion. Hori guztia bat zetorren Gobernu Zentralak hedatzen ari ziren metropoli-eremuez zuen ikuspegiarekin. Ildo horretatik, Etxebizitza Ministerioak bere ezaugarriengatik benetako metropoli-eremu ziren lurralde-eremuak zehaztu zituen, horien premiak identifikatzearen eta horietarako zerbitzuak ezartzearen.

Erregimenak eta haren ordezkariak herritarren bizi-kalitatean eragina zuten horrelako obrak eta hobekuntzak elementu legitimatzaile gisa erabiltzen zituzten. II. Errepublikaren aurkako garaipen militarren hogeita hamargarren urteurrena eta diktaduraren hasiera ospatze aldera, Donostiako udaletxeko etxabeetan antolatu zen erakusketan ("Gipuzkoa, 30 Urte Bakean" izenekoa), probintzia osoan egindako eta proiektatutako lanak eta hobekuntzak jaso ziren. Horien artean, eta kokaleku pribilegiatuan, zegoen Donostialdea urez hornitzeko obra hidraulikoen eta instalazioen proiektuei buruzko grafikoak eta argazkiak zituen standa<sup>77</sup>.

Bestalde, erregimenak mota horretako proiektuak erabiltzen zituen Europako politika eta erakundeetara hurbiltzeko; izatez, garai hartan isolamendua atzean geratzen ari zen, eta politika ekonomiko berriaren emaitzak erakustea interesatzen zitzaion, barruan zein kanpoan.

Donostialdeak, administrazio bateratu baten bidez ur-hornidura ziurtatu nahi zuen garai horretan, uraren kudeaketa nazioarteko intereseko gaia zen<sup>78</sup>. 1968ko maiatzaren 6an idatzi zuen Europako Kontseiluak Estrasburgon Uraren Europako Gutuna. Dokumentu horretan, 12 artikulutan banatuta, aditzera ematen ziren uraren kudeaketa egokiaren oinarri izan behar zuten printzipioak. Printzipio-adierazpen garrantzitsu horrek erabat aldatu zuen Mendebaldeko European



agosto de 1968), finalmente, se garantizaba el marco jurídico-administrativo para asegurar en un futuro el abastecimiento de aguas a toda la comarca donostiarra. La prensa se hizo eco de la especial importancia que revestía el expediente por el que se determinaba el régimen de subvención del Estado para las obras de ampliación del abastecimiento de aguas, pues el acuerdo del Consejo de Ministros sobre las obras de la presa del río Añarbe asegurarían el futuro del abastecimiento de aguas a toda la comarca de Donostia/San Sebastián<sup>75</sup>. En agradecimiento al apoyo que la ciudad recibió de manos del Ministro de Obras Públicas, Federico Silva Muñoz, la ciudad decidió en sesión plenaria de 29 de agosto conceder al ministro la medalla de oro de Donostia/San Sebastián "por su eficaz gestión ministerial y como prueba de reconocimiento por las obras de mejora que se realizan en la ciudad, tales como la

77 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1969.09.10)

78 Montesinos Llinares, Martín, 2018. 43. or.

75 Más allá de la prensa local, como la mencionada de *La Voz de España*, 22.2.1969; al ser decisiones importantes a nivel español, aparecían también reflejadas en la prensa de todo el país. *Diario de Burgos*, 22.2.1969.

baliabide hidrikoen gaineko ikuskera eta baliabide horien erabilera. Horren garrantziaz jabetuta, Mankomunitate eratu berriak pentsatu zuen prentsan kanpaina bat egitea, Uraren Europako Gutuna eskualdeko biztanleen artean ahalik eta gehien zabal zedin. Mankomunitateko lehendakariak iragarri zuen, halaber, Gutunaren garrantzia dela eta, *“Batzar honek aurrerantzean egingo duen bilkura bakoitzean, Gutunean jasotako hamabi puntuetako bat irakurri eta aztergai izango da, munduan uraren arazorako funtsezko dokumentua den heinean”*<sup>79</sup>. Hauek dira Gutuna osatzen duten hamabi artikulua:

*carretera variante y la presa del embalse de Añarbe, para el suministro de agua de la comarca”*<sup>76</sup>.

Este apoyo del Estado a las crecientes necesidades de la comarca de Donostia/San Sebastián, pretendía responder a las consecuencias del crecimiento demográfico e industrial, así como sostener a un importante destino turístico de primer nivel, todo lo cual se encuadraba perfectamente dentro de la visión que el Gobierno central tenía de las áreas metropolitanas en expansión. En ese sentido, el Ministerio de Vivienda definió las diversas zonas del territorio que por sus características constituían verdaderas áreas metropolitanas,


## URAREN EUROPAKO GUTUNA



1. Urik gabe ezinezkoa da bizitza. Ondasun oso baliotsua da, ezinbestekoa gizakiaren jardura guztietarako.
2. Ur gezako baliabideak ez dira agortezinak. Derrigorrezkoa da ur geza zaintzea, kontrolatzea eta, ahal den heinean, areagotzea.
3. Uraren kalitatea aldatzea kaltegarria da uraren kalitatearen mende dauden gizakien eta izaki bizidun guztien bizitzarako.
4. Uraren kalitatea aurreikusitako erabileretara egokitutako arauen arabera zaindu behar da, eta osasun-eskakizunak bete behar ditu bereziki.
5. Erabili ondoren ura naturara bueltatzen denean ez luke arriskuan jarri beharko ur horren ondoko erabilera publikoa edo pribatua.
6. Landare-geruza egokiari eustea, batez ere basoei, funtsezkoa da baliabide hidrikoen kontserbaziorako.
7. Baliabide hidrikoak inbentariatu behar dira.
8. Uraren administrazio egokirako behar-beharrezkoa izango da administrazio eskudunek bidezko plana ezartzea.
9. Ura babesteak ahalegin handia eskatzen du, hala ikerkuntza zientifikoan nola espezialisten prestakuntzan eta jendeari eman behar zaion informazioan.
10. Ura guztion ondarea da, eta guztiok aintzatetsi behar dugu haren balioa. Norberak kontu handiz erabili behar du, eta ez alferrik galdu.
11. Baliabide hidraulikoen administrazioa arro naturalen esparruaren barruan aztertu beharko litzateke, eta ez administrazioen eta politiken arloko mugetan.
12. Urak ez du mugarik. Nazioarteko lankidetzara behar duen guztion baliabidea da.

79 Lehen bilkura horretan, gutunaren lehen puntua irakurri zen. Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta, 1969.06.27. Hurrengo bilkuretan gainerako puntuak irakurri zituzten, bilkura bakoitzeko bat, puntu horiei buruzko gogoeta egiteko.

76 *Diario de Burgos*, 30.8.1969.



“Gipuzkoa, 30 urte bakean”  
erakusketa Donostian (1969-08-31).  
KUTXATEKA / PACO MARÍ

Exposición “Guipúzcoa, 30 años de paz” en San Sebastián (31/08/1969).  
KUTXATEKA / PACO MARÍ

al objeto de identificar las necesidades y establecimiento de sus servicios.

Este tipo de obras y mejoras, que repercutían en la calidad de vida de los ciudadanos, también eran utilizadas como elemento legitimador por parte del régimen y sus representantes. En la exposición montada en los bajos de la casa consistorial del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián para celebrar el treinta aniversario de la victoria militar del bando sublevado contra

la II República y del inicio de la dictadura, denominada “Guipúzcoa, 30 Años de Paz”, se recogieron trabajos y mejoras realizados y proyectados en toda la provincia. Entre ellos, en una situación privilegiada, se encontraba un stand con gráficos y fotografías dedicado a los proyectos de obras hidráulicas e instalaciones para abastecimiento de agua a la comarca donostiarra<sup>77</sup>.

Por otro lado, este tipo de proyectos eran también la fórmula empleada por el régimen para acercarse a la política e instituciones europeas, en una etapa en la que se estaba dejando atrás el aislacionismo e interesaba mostrar los frutos de la nueva política económica tanto en el interior como en el exterior.

En este sentido, al mismo tiempo que la comarca de Donostialdea buscaba asegurarse el abastecimiento de agua mediante una administración conjunta, la gestión del agua se convertía en asunto de interés internacional<sup>78</sup>. El 6 de mayo de 1968 fue redactada en Estrasburgo la Carta Europea del Agua por el Consejo de Europa. Este documento enunciaba, distribuidos en 12 artículos, los principios que debían fundamentar una correcta gestión del agua. Esta importante

1960ko urriaren 21ean egindako  
bileran eratu zen ofizialki  
Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udal  
Mankomunitatea, eta Jose Eizmendi  
Amutio izan zen lehen presidentea

El 21 de octubre de 1960 se celebró la primera reunión en la que oficialmente quedaba constituida la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe, siendo su primer presidente José Eizmendi Amutio

77 Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 10.9.1969.

78 Montesinos Linares, Martín, 2018, p. 43.



## LEHEN URRATSAK ETA OBREN FINANTZAKETA

1968ko urriaren 21ean egindako bileran eratu zen ofizialki Añarbe Ibaiko Urtegiko Uren Udal Mankomunitatea, eta Jose Eizmendi Amutio Donostiako Udaleko zinegotzi-ordezkaria izan zen lehen presidentea. 1968ko azaroan egin zituen lehen urratsak Mankomunitateak, eta, horretarako, Donostiako Udalaren administrazio-zerbitzuak hasi ziren aldi baterako erabiltzen; gainera, Donostiako Udaltzak bere plantillako funtzionario batzuk Mankomunitatearen esku jartzea erabaki zuen.

Mankomunitatearen helbide soziala Donostiako Udaletxeko bulego batean ezarri zen, eta erakundearen zigilu ofiziala ere egin zen. Mankomunitateko kide ziren 8 udal horietako bakoitzak 5 pezeta jarriko zituen biztanleko. Kopuru hori kalkulatzeko, oinarri hartu zen zen Mankomunitatea eratzeke garaian udalerrri bakoitzak emandako errolda ofiziala, eta, aurrerantz, ordainketa hori udalerrri bakoitzeko

deklaración de principios cambió de forma radical la concepción y la utilización de los recursos hídricos en Europa Occidental. Consciente de su importancia, la recién constituida Mancomunidad se planteó llevar a cabo una campaña en prensa para dar la mayor difusión posible a la Carta Europea del Agua entre los habitantes de la comarca. El Presidente de la Mancomunidad anunció que, dada su importancia *“en cada una de las sesiones que celebre en adelante esta Junta se dará lectura y se comentará uno de los doce puntos que aquella contiene, por tratarse de un documento fundamental para el problema del agua en el mundo”*<sup>79</sup>. Los doce artículos que completaban la Carta eran los siguientes:

### CARTA EUROPEA DEL AGUA



1. Sin agua no hay vida posible. Es un bien preciado, indispensable a toda actividad humana.
2. Los recursos en agua dulce no son inagotables. Es indispensable preservarlos, controlarlos y, si es posible acrecentarlos.
3. Alterar la calidad del agua es perjudicar a la vida del hombre y de los otros seres vivos que de ella dependen.
4. La calidad del agua debe ser preservada de acuerdo con normas adaptadas a los diversos usos previstos, y satisfacer, especialmente, las exigencias sanitarias.
5. Cuando las aguas, después de utilizadas, se reintegran a la Naturaleza, no deberán comprometer el uso ulterior, público o privado, que de ésta se haga.
6. El mantenimiento de la cobertura vegetal adecuada, preferentemente forestal, es esencial para la conservación de los recursos hídricos.
7. Los recursos hídricos deben inventariarse.
8. Para una adecuada administración del agua es preciso que las autoridades competentes establezcan el correspondiente plan.
9. La protección de las aguas implica un importante esfuerzo, tanto en la investigación científica, como en la preparación de especialistas y en la información del público.
10. El agua es un patrimonio común cuyo valor debe ser reconocido por todos. Cada uno tiene el deber de utilizarla con cuidado y no desperdiciarla.
11. La administración de los recursos hidráulicos debiera encuadrarse más bien en el marco de las cuencas naturales que en el de las fronteras administrativas y políticas.
12. El agua no tiene fronteras. Es un recurso común que necesita de la cooperación internacional.

79 En esta primera sesión, se leyó el primero de los puntos de la carta. Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 27.06.1969. En las siguientes sesiones se irían leyendo los restantes puntos, uno por sesión para reflexionar sobre cada uno de ellos.

udal-aurrekontu arruntetan jaso beharko litzateke.

Erabaki horiek eta beste batzuk hartu aurretik, eta aurreko bilkurako akta onartu ondoren, Eizmendi presidenteak Mankomunitateko Batzarraren helburuei eta funtzionatzeko moduari buruzko hitzaldia irakurri zuen. Hiru puntutan azaldu zuen une horretan Mankomunitatean zeuden zortzi udalerriek zer iritzi zuten erakunde berri horrek izan behar zuenaz. Erakunde berri horretan, udalek *“erabaki dute beren herrietarako ur-hornidurako zerbitzurik onena elkarrekin kudeatzeko elkartzea, eta helburu hori da, eta ez beste bat, gure auzotarrek beren udalei agindu dietena”*.

Lehenik eta behin, Eizmendik nabarmendu zuen Mankomunitateko kideak ez zirela zinegotziak, udalerrien ordezkariak baizik; izatez, agindu zitzaion lana *“gai zehatz eta argi baterako lan-batzorde huts baten gisakoa da: Añarbeko Urtegia gauzatzeko ahalegin bete-betea egitea eta bertako urak gure auzotarren txorrotetara baldintzarik onetan iristea”*.

Bigarren, Mankomunitateak, zortzi udalerrien ize-nean eta ordezkaritza, Estatuarengandik lortu behar zituen ur-emakida, finantzaketa eta obrak egikaritzea. Eizmendik ohartarazi zuen erabakia Estatuaren eta udalen esku zegoela eta ez batzarkideen esku: *“Ez dugu hona etorri behar gure auzotarrentzako onura noberekoia lortzera, besteengan pentsatu gabe; aitzitik, eskualde osoarako ur-zerbitzurik onena lortzera etorri behar dugu, eskualde osoaren ordezkariak garelako sentituz. Ura modu ekitatiboan banatuko da, eta beti kontuan hartuko ditugu ura behar duten familiak eta industriak”*.

Hirugarren, Eizmendik gogorarazi zuen, Mankomunitatearen estatutuen arabera, Batzarrak bitartekoak zituela Mankomunitateko udalek edo, hala badagokio, auzitegiek zuzen zitzaten gai garrantzitsuetan gerta litezkeen gehiegikeriak edo bidegabekeriak.

Amaitzeko, adostasuna bilatzearen eta erabakiak aho batez hartzearen alde egin zuen, eta irizpide kontrajarririk agertuz gero, hitza eman zuen batzarkideen batasuna indartuko zuela; *“gaiak argitzeko informazio-bide guztiak agortuko ditut, eta batzuen eta besteen ulermena bilatuko dut, komenigarrienera iristeko eta kontzientzian saiatzeko, betiere botoak nagusitzen ez badira, baizik eta arrazoi eta justizia —horiek behar bezala azalduta eta ulertuta—”*.



**Mankomunitatearen lehenengo zigilua. Zirkuluaren barruan dagoen oktogonoak Mankomunitatea osatzen duten zortzi udalak irudikatzen ditu.**

1º sello de la Mancomunidad. El octógono que está dentro del círculo simboliza los ocho ayuntamientos miembros de la Mancomunidad.

## PRIMEROS PASOS Y FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS


El 21 de octubre de 1968 se celebró la primera reunión en la que oficialmente quedaba constituida la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe, su primer presidente fue José Eizmendi Amutio, Concejal Delegado del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián. En noviembre de 1968, la Mancomunidad echaba a andar utilizando con carácter temporal, los servicios administrativos municipales de Donostia/San Sebastián, cuya Corporación aprobó poner a su disposición algunos funcionarios de su plantilla.

El domicilio social de la Mancomunidad se estableció en un despacho de la Casa Consistorial y se confeccionó el sello oficial de la entidad. Cada uno de los 8 ayuntamientos miembros aportaría 5 pesetas por habitante, cantidad que se calcularía sobre la base del censo oficial aportado por cada uno de los municipios a la hora de constituir la Mancomunidad y que, en adelante, debería recogerse en los presupuestos ordinarios municipales de cada uno de los municipios.

Antes de tomar estas y otras decisiones, aprobada el acta fundacional de la sesión anterior, el Presidente Eizmendi leyó un discurso sobre los fines y el modo de funcionar de la Junta de la Mancomunidad. En tres puntos, desgranaba lo que, en ese momento, consideraban los ocho municipios mancomunados que debía ser esta nueva institución en la que *“han decidido unirse para gestionar en común el mejor servicio de abastecimiento de agua a sus respectivas poblaciones, y este y no otro es el objetivo que se nos ha encomendado por nuestros vecindarios a través de sus Ayuntamientos”*.

En primer lugar, Eizmendi ponía el énfasis en que los corporativos no eran concejales, sino representantes de sus municipios, pues la labor que se les había encomendado era *“como una mera comisión de trabajo para un asunto específico y claro: procurar por todos los medios que sea realidad el Embalse del Añarbe y hacer que sus aguas lleguen a los grifos de nuestros vecinos en las mejores condiciones”*.

En segundo lugar, la Mancomunidad debía obtener del Estado, en nombre y en representación de los ocho municipios, las concesiones de agua, la financiación y



Jose Zuazolak Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzari zuzendutako idatzia.

Escrito de José Zuazola dirigido a la Dirección de Obras Hidráulicas.

Halaber, Gerardo Garcia Lesaga idazkariari eta Emiliano Garmendia Lecuona kontu-hartzaileari eskatu zitzairen Mankomunitateko barne-arabidearen proiektua eta langileen araudiaren proiektua idaztea. Era berean, erabaki zen Estatutuen 5. artikulua aplikatzea, gerente baten kontrataziorako oinarriak ezar zitezenez zen berehalako zerbait izan—.

Batzordeak baimena ematen zien presidenteari eta idazkariari Herri Lan Ministerioaren aurrean Mankomunitatea ordezkari zezaten, irekita baitzegoen aztertze-ko ea komeni zen Mankomunitatearen eta Estatuaren artean partzuergo bat formalizatzea, betiere aplikatu beharreko legeriaren arabera eta Mankomunitateko udalek erakunde mankomunatua sortu aurretik hartutako erabakien arabera.

Abenduaren 27an, Mankomunitateko presidentea, idazkaria, presidenteordea (Juan Mendizabal Arreche) eta kontu-hartzailea Herri Lan Ministerioaren eta Ur Komisariaren ordezkariekin bildu ziren —ordezkari horien artean zeuden Domercq zuzendariorde nagusia, Komisariako ingeniari-burua, Espainiako Gobernuak Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoan duen ordezkaria eta beste ingeniari batzuk—. Mankomunitateko ordezkarien asmoa zen Añarbe ibaiko presaren obrak kudeatzea eta lehenbailehen hastea. Dena dela, hori baino lehen, azaroaren 9an, larunbata, arratsaldez, ki-deek ibaiaren arroa bisitatu zuten, eta, horretarako, presaren proiektua idatzi zuen ingeniaria, Jose Zuazola, gonbidatu zuten, etorkizuneko urtegia non kokatuko zen azal zezan<sup>80</sup>. Bilera hartan, Mankomunitatearen

80 Akta horrengatik dakigu lehen bilkura horretan ez zela Hernaniko ordezkari Pablo Hita Yanci egon. Bere kargua hartzeko garaian, Hitak

la ejecución de las obras. Eizmendi, advertía que eran el Estado y los ayuntamientos las instituciones que debían decidir, y no los junteros: *“No debemos venir aquí con ánimo exclusivo de sacar partido egoísta para nuestro vecindario sin pensar en los demás, sino en conseguir con elevadas miras un buen servicio de aguas para toda la comarca sintiéndonos representantes de toda ella en conjunto; la distribución de las aguas ya se hará en forma equitativa y siempre pensando en las familias e industrias que la necesitan”*.

En tercer lugar, Eizmendi recordaba que, según los estatutos de la Mancomunidad, la Junta tenía medios para hacer que los ayuntamientos mancomunados o los tribunales en su caso corrigieran las posibles extralimitaciones o injusticias que en asuntos de importancia pudieran producirse.

Para finalizar, abogaba por la búsqueda del consenso y la toma de acuerdos por unanimidad y en el caso de que apareciesen criterios contrapuestos, se comprometía a reforzar la unión de los junteros y a *“agotar todos los medios de información para esclarecer los asuntos, buscando la comprensión de unos y otros, para llegar a lo más conveniente y procurar en conciencia, siempre que no imperen los votos sino la razón y la justicia, debidamente explicadas y comprendidas”*.

Asimismo, se encargó, tanto al secretario, Gerardo García Lesaga, como al interventor, Emiliano Garmendia Lecuona, la confección de los proyectos de reglamentos de régimen interior y de personal de la Mancomunidad. Se decidió también aplicar el artículo 5º de los Estatutos, para establecer las bases para la contratación de un gerente, algo que no iba a ser inmediato.

La Junta autorizaba al Presidente y al Secretario para que ante el Ministerio de Obras Públicas pudieran representar a la Mancomunidad, que estaba abierta a estudiar la conveniencia de formalizar un consorcio entre Mancomunidad y Estado, según la legislación aplicable y los acuerdos adoptados al respecto por los ayuntamientos mancomunados antes de que se creara la institución mancomunada.

El 27 de diciembre, el Presidente y el Secretario de la Mancomunidad, junto al Vicepresidente (Juan Mendizabal Arreche) e Interventor se reunieron con una representación del Ministerio de Obras Públicas y de la Comisaría de Aguas, integrada por el Subdirector General, Señor Domercq, por el Ingeniero Jefe de la Comisaría, por el Delegado del Gobierno en la Confederación Hidrográfica del Norte de España y por otros Ingenieros de la Confederación. Los representantes de la Mancomunidad pretendían gestionar y obtener la pronta iniciación de las obras de la presa del río Añarbe. Antes de eso, los corporativos girarían una visita a la cuenca del río, el sábado 9 de noviembre por la tarde, para lo cual querían invitar al Ingeniero autor del proyecto de

eta Konfederazioaren arteko partzuergoaren proiektua eta Añarbeko urtegia eraikitzeke obrak eta Mankomunitateko udalerrien hornidura- eta saneamendu-obra osagarriak finantzatzeko formula ekonomikoak aztertu ziren.

Zenbait formula aztertu ziren, baina Mankomunitatearen ordezkariaren arabera, Herri Lan Ministerioak 1965eko apirilaren 8ko 1065 Dekretuan ezarri zen formula indargabetu nahi zuen. Dekretu horretan ezartzen zen Ministerioak Añarbeko presa eraikitzeke zenbatekoaren % 50 itzuli beharrik gabeko dirulaguntza gisa emango zuela eta beste % 50a hogeitertan itzultzeke interesik ez zuen aurrerakin gisa. Hain zuzen ere, Ministerioak presaren obrak eta hornidura- eta saneamendu-obra osagarriak lotu nahi zituen Hornidura eta Saneamendu Plan Nazionalean ezarritako finantzaketaz bestelako finantzaketa batekin. Horrela, zenbateko osoari Mankomunitatearentzat hain onuragarria ez zen beste sistema ekonomiko bat aplikatu nahi zion.

Bilera horretan bertan, Ministerioko ordezkariak Ur Hornidurarako eta Saneamendurako Partzuergoaren Estatutuen Proiektuaren eredu bat aurkeztu zuten, Konfederazio Hidrografikoak eta Udalek azter zezaten. Proiektu-eredua aztertzen ari ziren bitartean, Mankomunitateko udalerrietako ordezkariak erabaki zuten Gobernazio Ministerioaren txosten baten zain egotea, Partzuergoa (ondoren Mankomunitatea) eratzeke edozein tramitazio hasi aurretik.

Mankomunitateak bide luzea egin behar zuen hasiera batean agindu zitzaizkion xedeetarako tresna baliagarri bihurtu aurretik. Hasteko, langile propiorik ez zuenez gero, beste erakunde batzuetako teknikariak edo askotariko profesionalak baliatu behar izan zituen. Batzarkideek onartu zuten Mankomunitatearen Estatutuak eta Ordenantzak aztertzen eta idazten parte hartu zuten teknikariei ordainsari profesionalekin konpentsatzea (1968ko urriaren bukaera arte txostenak idatzi zituzten, dokumentazioa prestatu zuten, Mankomunitatea eratu aurreko bilera eta kudeaketetara bertaratu ziren); konpentsazio horietarako 125.000 pezeta jarri zituzten. 1969ko urte ekonomikoari begira, haborokin gisa 198.000 pezeta esleitu zitzaizkien

la presa, José Zuazola, para que explicara a los representantes municipales los lugares en los que se emplazaría el futuro embalse<sup>80</sup>. En la reunión se trató sobre el proyecto de consorcio entre Mancomunidad y Confederación y de diversas fórmulas económicas para financiar las obras de construcción de la Presa del Añarbe y las complementarias de abastecimiento y saneamiento de los municipios mancomunados.

Se barajaron varias fórmulas, pero según la delegación de la Mancomunidad, el Ministerio de Obras Públicas pretendía desvirtuar la fórmula establecida en el Decreto 1065 de 8 de abril de 1965, que concedió para la construcción de la presa del Añarbe el 50% de subvención a fondo perdido y el otro 50% de anticipo sin interés reintegrable en veinte anualidades. En efecto, el Ministerio pretendía unir las obras de la presa con las obras complementarias de abastecimiento y saneamiento, con una financiación diferente establecida en el Plan Nacional de abastecimiento y saneamiento, para aplicar a la totalidad del importe otro sistema económico menos beneficioso para la Mancomunidad.

En la misma reunión, los representantes del Ministerio hicieron entrega, para su estudio por los miembros de la Junta, de un modelo de Proyecto de Estatutos del Consorcio para el Abastecimiento de Agua y Saneamiento entre Confederación Hidrográfica y Ayuntamientos. Los representantes de los municipios mancomunados decidieron esperar, mientras estudiaban el modelo de Proyecto, a un informe del Ministerio de la Gobernación antes de iniciar cualquier tramitación para constituir el Consorcio (posteriormente Mancomunidad).

La Mancomunidad tenía un largo recorrido por delante antes de convertirse en una herramienta útil para los fines que inicialmente se le habían encomendado. Por de pronto, a falta de personal propio, se tuvo que echar mano de técnicos de otras instituciones o profesionales diversos. Los junteros aprobaron compensar los honorarios profesionales devengados a los técnicos que intervinieron en el estudio y redacción de los Estatutos y Ordenanzas de la Mancomunidad (redactando informes, preparando documentación, asistiendo a reuniones y otras gestiones

kredentzialak aurkeztu zizkion presidentzia-mahaiari eta indarrean zegoen legezko formulari jarraituz zin egin zuen kargua. Batzarraren bigarren bilera horretan, bilerak hilean behin egiteko maiztasuna finkatu zen; zehazki, hil bakoitzeko lehen asteazkenean, arratsaldeko zazpitan. Horrekin zabaldu egin zen Mankomunitatearen lehen bileran hartutako erabakia. Aktak Gipuzkoako Gobernadore Zibilaria, Mankomunitateko udalei eta Batzarreko kide ziren udal-ordezkariak bidali behar zitzaizkien. Era berean, erabaki zen herritarrek jakinaren gainean jartzea, eta, horretarako, tokiko prentsari laburpenak bidaltzea. Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1968.11.06).

80 Por esta acta sabemos que en la primera reunión estuvo ausente el representante de Hernani, Pablo Hita Yanci. Para tomar posesión de su cargo, Hita entregó sus credenciales a la mesa presidencial, y prestó juramento ante un crucifijo con la fórmula legal vigente. En esta segunda reunión de la Junta se estableció la periodicidad mensual de las reuniones, siendo éstas los primeros miércoles de cada mes, a las siete de la tarde. Con esto se ampliaba el acuerdo tomado en la primera reunión de la Mancomunidad. Las actas deberían ser remitidas al Gobernador Civil de Gipuzkoa, a los ayuntamientos mancomunados y a los representantes municipales miembros de la Junta. De la misma manera, se decidió mantener informada a la población mediante el envío de extractos a la prensa local. Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 6.11.1968.



Añarbeko presa eraikiko zen lursaila (1969ko maiatza).

PAISAJES ESPAÑOLES

Terreno sobre el que se construiría la presa de Añarbe (Mayo de 1969). PAISAJES ESPAÑOLES

idazkariari eta kontu-hartzaileari, gehi Mankomunitatearen lehen bi hilabetei, azaroari eta abenduari, zegozkien zenbatekoak<sup>81</sup>.

Mankomunitatearen lehen aurrekontua oso xumea zen, lehen urratsak egiten hasi zen erakunde batentzat espero zitekeen bezalaxe; edonola ere, protagonistek, agian, ez zuten hauteman apaltasun osoz eraikitzen ari ziren erakundea etorkizunean zer izango zen. 1969ko urtarrilaren 8an, Batzarrak 1.186.382 pezetako aurrekontu bateratua onartu zuen sarreretan eta gastuetan, eta urte bereko maiatzean onartu zuen aurrekontu hori Ogasuneko lurralde ordezkariak<sup>82</sup>.

Ministroen Kontseiluak, 1969ko otsailaren 21ean, Donostiako eskualdea urez hornitzeko obren finantza-ketari edo araubide ekonomikoari buruzko irizpena egin zuen eta Herri Lan Ministerioak egun horretako ebazpen bidez jaso zuen irizpen hori. Irizpen horren arabera, guztira zenbatetsitako 773.000.000 pezetako zenbatekotik Estatuak, azkenean, % 25 jarriko zuen dirulaguntza gisa. Gainerako % 75a Mankomunitateak jarri beharko zuen, baita obrek aldi baterako nahiz behin betiko okupatu beharko dituzten lursail guztiak

previas a la constitución de la Mancomunidad hasta finales de octubre de 1968), asignando para ello 125.000 pesetas. De cara al año económico de 1969, se asignó la cantidad de 198.000 pesetas en forma de gratificación para el secretario y el interventor, más las cantidades correspondientes a los dos primeros meses de vida de la Mancomunidad, noviembre y diciembre<sup>81</sup>.

El primer presupuesto de la Mancomunidad era sumamente modesto, como cabía esperar para una institución que empezaba a dar sus primeros pasos, sin que los protagonistas llegaran a vislumbrar, tal vez, lo fundamental que sería en el futuro la entidad que estaban construyendo tan modestamente. El 8 de enero de 1969 la Junta aprobó un presupuesto nivelado en ingresos y gastos de 1.186.382 pesetas, aprobado finalmente por el delegado provincial de Hacienda en mayo del mismo año<sup>82</sup>.

Mediante resolución de 21 de febrero de 1969, el Ministerio de Obras Públicas recogía lo aprobado esa misma fecha en el dictamen del Consejo de Ministros que trataba sobre la financiación o régimen económico de las obras para el abastecimiento de agua a la comarca donostiarra. De la cuantía total estimada en 773.000.000 pesetas, finalmente, el 25% serían aportación del Estado mediante subvención. El 75% restante lo debería aportar la Mancomunidad, así como todo el terreno que fuera necesario ocupar por las obras, tanto

81 Probintziako prentsan albiste labur bat agertu zen. Ikusi: *La Voz de España*, 1969.01.10. Hitz egindako guztia ezagutzeko, ikusi: Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1969.01.08).

82 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1969.08.13).

81 Una breve noticia apareció en la prensa provincial, ver: *La Voz de España*, 10.1.1969. Para conocer todo lo tratado ver: Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 8.1.1969.

82 Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 13.8.1969.

ere, desjabetze espedienteetan ezarritako zenbatekoak ordainduz.

Martxoaren 21ean, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarri zen Herri Lan Ministerioak Añarbe ibaiko presaren obrak egiteko deitutako enkantea. Lizitazioko behin betiko aurrekontua 434.288.712 pezetakoa zen eta obrak egikaritzeko epea 1972ko abenduaren 31 artekoa. Hamabi proposamen aurkeztu ziren, eta behin-behinean OCISA enpresari esleitu zitzaion 270.000.000 pezetatan, hau da, lizitazioaren gaineko % 37,83ko beherapenarekin.

Apirilaren 29an Mankomunitateak onura publikoko mendi batzuk okupatzeko baimen-eskaera aurkeztu zuen Gipuzkoako Baso Barrutian. Mendi hauek ziren: Errenteriako Udalaren jabetzako Añarbe mendia, eta Oiartzungo Udalaren jabetzako Zaria eta Pisokieta mendiak. Jose Zuazola ingeniariaren txostenaren arabera, eta urtegiari pilatu beharreko uren gehieneko maila kontuan izanik, lursailak 171 kotaraino okupatu behar ziren, hau da, Errenteriako udalerrian 102.575 hektarea mendi okupatu behar ziren, gehi Añarbeko finka osoa (une horretan jada ez zuen biztanlerik). Oiartzunen, bestalde, 33,85 hektarea mendi okupatu behar ziren, gehi Petriene (1,57 ha), Erdikoetxea (3,89 ha), Urraire (3,95 ha) eta Pikorrenea (2,04 ha) finkak. Lursail horiei Goizuetako (Nafarroa) 109,30 hektarea mendi gehitu behar zitzaizkien (herri horretako Alkartasuna elkartearen jabetzakoak). Gainera, Aranoko (Nafarroa) beste 2,5 hektarea (zabortegea) okupatu beharko ziren<sup>83</sup>.

Desjabetu beharreko lursailen balorazioari dagokionez, Mankomunitatearen Batzarrak, 1969ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen Ernesto Alberich eta Jose Luis Echaniz mendi-ingeniariak Errenteriako udal-mugapean presak hartuko zituen lursailetarako 1968ko abenduan proposatutako konpentsazioa aplikatzea, hau da, 2,50 pezeta metro karratuko<sup>84</sup>. Bestalde, donostiarrek Añarbe-Txoritokieta kanalaren jabetza ematen zioten Mankomunitateari, haren balioaren ordain ekonomikoaren bidez eta Ministro Kontseiluak Mankomunitatearen estatutuetan

temporal como definitivamente, abonando las cantidades establecidas en los expedientes de expropiación.

El 21 de marzo el Boletín Oficial del Estado anunciaba la subasta convocada por el Ministerio de Obras Públicas para la ejecución de las obras de la Presa sobre el río Añarbe, con un presupuesto definitivo de licitación de 434.288.712 pesetas y un plazo de ejecución hasta el 31 de diciembre de 1972. Se presentaron doce propuestas, adjudicándose provisionalmente a la empresa OCISA por la cantidad de 270.000.000 pesetas, lo que representaba una rebaja del 37,83% sobre la licitación.

El 29 de abril la Mancomunidad presentó la solicitud para obtener la autorización para ocupar varios montes de utilidad pública ante el Distrito Forestal de Guipúzcoa. Los montes eran Añarbe, propiedad del Ayuntamiento de Errenteria, y Zaria y Pisokieta, propios de Oiartzun. Según el informe del ingeniero José Zuazola y según el nivel máximo de aguas a embalsar, se debían ocupar las tierras hasta la cota 171, o lo que es lo mismo, en el término municipal de Errenteria deberían ocuparse 102.575 hectáreas de monte más la totalidad de la finca, en ese momento ya deshabitada, de Añarbe. En Oiartzun, por su parte, deberían ocuparse 33,85 hectáreas de monte más las fincas de Petriene (1,57 ha), Erdikoetxea (3,89 ha), Urraire (3,95 ha) y Pikorrenea (2,04 ha). A estos terrenos, habría que sumar 109,30 hectáreas de monte en Goizueta, propiedad de la Sociedad Alkartasuna de esa localidad navarra. En términos de la localidad navarra de Arano, serían necesarias otras 2,5 hectáreas de escombreras<sup>83</sup>.

Sobre la valoración de terrenos a expropiar, en la sesión de la Junta de la Mancomunidad celebrada el 10 de septiembre de 1969 se decidió aplicar la compensación propuesta en diciembre de 1968 por los ingenieros de montes Ernesto Alberich y José Luis Echaniz para los terrenos que iba a ocupar la presa en el término municipal de Errenteria, que ellos propusieron tuviera una valoración de 2,50 pesetas por metro cuadrado<sup>84</sup>. Por su parte, los donostiarres entregaban a la

83 Bilkura horretan, 1969ko aurrekontuen kargurako 169.192,45 pezetako gastuak onartu ziren, eta Mankomunitatearen Estatutuen eta Ordenantzen azterketarena zen partidarik handiena, 132.475 pezetakoa. Gastu horiez gain, 1968ko azaroari eta abenduari dagozkion beste 90.000 pezeta ere ordaintzea erabaki zen, baita 1969ko urtarrilari, otsailari, martxoari eta apirilari dagozkienak ere. Añarbeko Ur Mankomunitateko Batzarraren akta, (1969-05-14). Ebazpenaren eraginpean dauden Mankomunitateko udalerririk konpromisoa hartu zuten obrarako behar ziren lursailak okupatzeko eta emateko. Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1969.07.09).

84 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1969.09.10).

baino. Beste presa batzuk, berriz, euste-horman sartutako banaketa-zutabe batekin eraiki ziren, eta, horrela, ura nahi zen lekutik hartu eta nahi zen altueran hustu zitekeen. Uherraren beste arrazoi bat zen banaketa-sarerako ur-irteera erregulatzen zuten balbulak hondatuta zeudela. Arazo hori konpontzeko lanak 1984ko urriaren 29an hasi ziren. Horren ondorioz, Errenteriako Papelera Española SArI zerbitzu egiten zion kanalaren emaritik ezarri behar izan zen Añarbeko ur-hornidura, ura Txoritokietako ponpatze-estaziotik igaro eta Mankomunitatearen protokoloen arabera kloratu ondoren<sup>181</sup>. Lanak 44 egunez egin ziren, azaroan eta abenduan<sup>182</sup>.

1985. urtean lehorre bat izan zen Gipuzkoan, eta Mankomunitateko Gerentziak egindako irailari zegoen bosgarren txostenak 1984ko ekainetik abuztura bitartean egindako analisisen emaitzen berri eman zuen. Txosten horretan jasotzen zenez, urte osoan ez zen arazorik izan uraren uhertasunarekin, baina 84aren amaiera aldean gertatutakoaren antzera egoera okertuko zela aurreikusi zen. Datu kezagarriak jasotzen zituen txostenak, hala nola: uretan zegoen manganesoak 17 aldiz gaintzen zuen kopuru onargarria, muga litroko 0,05 miligramotan ezarrita baitzegoen; 1984ko maiatzaren 30ean, berriz, 0,12 mg/L-ko maila zegoen, eta azaroaren 22an maximora iritsi zen (0,80 mg/L). Urtegiaren irteeran Donostiako Udal Laborategiak egiten zituen analisiak etenda geratu ziren 1984ko abendutik aurrera. Laborategiko arduradun politikoak, Pedro Ruiz Balerdi (EE) zinegotziak, adierazi zuen analisiak laborategiko bertako txorrotara mugatzeko agindua eman zuela, presako analisiak ez baitziren udalaren eskumenekoak, Mankomunitatearen eskumenekoak baizik, eta, dirudinez, asteroko analisisen kostua handia zen dirukutxa munizipalaren kontura mantentzeko<sup>183</sup>.

1986an, Ramon Labayen (EAJ) eta Felix Sotoren (HB) arteko polemikaren ondoren, 1983tik Donostiako udal-laborategiak aldizka egiten zituen analisisetan nikela agertu zela-eta, Gipuzkoako hiriburuko Uren arduradunak, Luzuriaga jaunak, laginak bidali zituen Osakidetza. Han saiakuntza bat egin zen, grafito-labeiko xurgapen atomikoaren bidez, eta emaitza negatiboa

protocolos de la Mancomunidad<sup>181</sup>. Los trabajos se desarrollaron durante 44 días, durante los meses de noviembre y diciembre<sup>182</sup>.

El año 1985 Gipuzkoa padeció una sequía, y el informe número cinco correspondiente a septiembre confeccionado por la Gerencia de la Mancomunidad, daba cuenta de los resultados ofrecidos por los análisis realizados entre junio y agosto de 1984. Dicho informe recogía que durante todo el año no había habido problemas con la turbiedad del agua, pero que se preveía un empeoramiento de la situación parecida a la de finales del año 84. El informe recogía datos preocupantes, como que el manganeso presente en las aguas superaba 17 veces la cantidad tolerable, ya que el límite estaba establecido en 0,05 miligramos por litro, cuando el 30 de mayo de 1984 daba niveles de 0,12 mg/l, alcanzando el máximo el 22 de noviembre con 0,80 mg/l. Los análisis que efectuaba a la salida del embalse el Laboratorio Municipal de Donostia/San Sebastián quedaron suspendidos a partir de diciembre de 1984. El responsable político del laboratorio, el concejal Pedro Ruiz Balerdi (EE), indicó que había ordenado limitar los análisis al grifo del propio laboratorio, ya que consideraba que los análisis a pie de presa no eran competencia municipal, sino de la Mancomunidad y, al parecer, el costo de los análisis semanales era elevado para sostenerlo a costa de las arcas municipales<sup>183</sup>.

En 1986, tras la polémica desatada entre Ramón Labayen (PNV) y Félix Soto (HB) por la aparición de níquel en los análisis que desde 1983 realizaba periódicamente el laboratorio municipal de Donostia/San Sebastián, el responsable de Aguas de la capital guipuzcoana, el Sr. Luzuriaga, remitió muestras a Osakidetza, donde se realizó un ensayo con absorción atómica en horno de grafito, dando resultado negativo en níquel<sup>184</sup>. Otros análisis, encargados al Laboratorio Municipal de Pamplona y a la empresa Inasmet, dieron también resultados negativos<sup>185</sup>. Sea como fuere, Labayen anunció que las obras de la depuradora de Petritegi arrancarían ese mismo año, finalizando las obras en 1988. Sin embargo, el asunto de la financiación estaba

181 *Deia*, 1984.10.19.

182 Obrez arduratutako Cubiertas y MZOV SA enpresak 6.761.495 pezetako faktura aurkeztu zuen, eta Mankomunitateko gerentea ez zegoen faktura horrekin ados. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, faktura 2.175.617 pezetara murriztu zen, enpresak hainbat gastu gaizki zenbatu baitzituen: *Egin*, 1985.07.21.

183 *El Diario Vasco*, 1985.03.30.

181 *Deia*, 19.10.1984.

182 La empresa encargada de las obras, Cubiertas y MZOV, S.A., presentó una factura de 6.761.495 pesetas ante la que el Gerente de la Mancomunidad mostró su disconformidad. Tras realizar las comprobaciones oportunas, la factura se redujo a 2.175.617 pesetas, pues la empresa había computado los mal varios gastos: *Egin*, 21.7.1985.

183 *El Diario Vasco*, 30.3.1985.

184 *El Diario Vasco*, 9.1.1986.

185 *Egin*, 13.1.1986.

izan zen nikelean<sup>184</sup>. Iruñeko Udal Laborategiari eta Inasmet enpresari enkargatutako beste analisi batzuek ere emaitza negatiboak eman zituzten<sup>185</sup>. Edonola ere, Labayenek iragarri zuen Petritegiko araztegiko obrak urte horretan bertan hasiko zirela, eta 1988an amaitu. Hala ere, finantzaketaren auzia oraindik konpondu gabe zegoen, eta obren aurrekontua 1.500 milioi pezeta ingurukoa zen<sup>186</sup>.

1986ko otsailaren 12an, Donostiako ordezkari bat —Ramon Labayen eta Enrique Arana, biak EAJ-koak, eta Gregorio Ordoñez, Alianza Popularrekoa, Udaleko aholkulari juridiko Antonio Mateosekin, Pasaia, Errenteria eta Hernaniko ordezkariak gainera— Herri Lanetako ministroarekin bildu zen araztegiko obren finantzaketaren gaia aztertzeko<sup>187</sup>. 1987ko urtarrilaren 28an, udaletxean, Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentek 750 milioi pezetako abala sinatu zuen Udal Aurrezki Kutxarekin, Petritegin uren araztegia eraikitzeko. Kopuru hori obraren kostuaren erdiari zegokion —esan bezala, kostua 1.500 milioi pezeta ingurukoa zela kalkulatu zen—, eta hura % 50ean ordaindu behar zen Herri Lan Ministerioarekin. Mankomunitateari zegokion zatitik, Donostiak % 59 ordaindu behar zuen. Behin dokumentua sinatuta, Labayenek hau adierazi zuen: *“Dagoeneko prestatu ditugu Astigarragako lurrak, bertan eraikiko baita instalazioa, eta jadanik formalizatu dugu gure partaidetza ekonomikoa. Une horretatik aurrera, MOPUK hasi behar du alde teknikoa, eta, alde horretatik, litekeena da otsailerako lanak hasi ahal izatea”*.

1987ko azaroan, Donostiako alkate berri eta Añarbeko Mankomunitateko presidente Eusko Alkartasunako Xabier Albisturrek prentsaurrekoa eman zuen araztegiko obrak abenduan hasiko zirela iragartzeko —azkenean, horiek 1.609 milioi pezetako kostua zuten—. Enpresa adjudikazioduna, Ministroen Kontseiluak behin betiko adjudikazioa egiteko tramitearen zain, Degremont y Cubiertas eta MZOV enpresek osatutako ABEE bat zen. Dirulaguntza lortzeko, Ministerioak baldintza hau jarri zuen: Donostiako Udal Aurrezki Kutxak Mankomunitateari emandako 800 milioiko kreditua, Mankomunitateari legokiokeen % 50aren kontzeptupean, udal guztiek bermatuta egotea. Araztegia desjabetutako 60.000 metro karratuen erdian eraikiko litzateke, ordura arte Petritegiko zabortegia eta haren inguru

aún sin resolver, y el presupuesto de las obras rondaba los 1.500 millones de pesetas<sup>186</sup>.

El 12 de febrero de 1986, una delegación donostiarra compuesta por Ramón Labayen y Enrique Arana, ambos del PNV, así como Gregorio Ordoñez, de Alianza Popular, junto al asesor jurídico del Ayuntamiento, Antonio Mateos, en compañía de representantes de Pasaia, Errenteria y Hernani, se reunió con el Ministro de Obras Públicas para tratar el asunto de la financiación de las obras de la depuradora<sup>187</sup>. El 28 de enero de 1987, en la Casa Consistorial, el Presidente de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe firmó el aval de 750 millones de pesetas con la Caja de Ahorros Municipal para la construcción de la planta depuradora de aguas en Petritegi. Esa cantidad correspondía a la mitad del coste de la obra que, como se ha dicho, se calculaba en unos 1.500 millones de pesetas y debían ser sufragados al 50% con el Ministerio de Obras Públicas. De la parte correspondiente a la Mancomunidad, Donostia/San Sebastián debía abonar el 59%. Una vez firmado el documento, Labayen declaró: *“Ya hemos preparado los terrenos de Astigarraga donde se levantará la planta, y ya hemos formalizado nuestra participación económica. A partir de este momento es el MOPU quien debe iniciar la parte técnica, y en este sentido es posible que para el mes de febrero puedan comenzar los trabajos”*.

En noviembre de 1987, Xabier Albistur (de Eusko Alkartasuna), nuevo alcalde de Donostia/San Sebastián y Presidente de la Mancomunidad del Añarbe daba una rueda de prensa anunciando el comienzo de las obras de la depuradora en diciembre, cuyo coste ascendía finalmente a 1.609 millones de pesetas. La empresa adjudicataria, a la espera del trámite de adjudicación definitiva por el Consejo de Ministros, era una UTE formada por Degremont y Cubiertas y MZOV. Desde el Ministerio, para la obtención de la subvención, pusieron como condición que el crédito de 800 millones concedido por la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián a la Mancomunidad en concepto del 50% que le correspondiera, estuviera avalado por todos los Ayuntamientos. La depuradora se levantaría en la mitad de los 60.000 metros cuadrados expropiados, en los terrenos en los que hasta entonces estaba el vertedero de Petritegi y su entorno, concretamente hasta el caserío Usategieta. La otra mitad de los terrenos quedaría libre como zona verde. Para expropiar los terrenos

184 *El Diario Vasco*, 1986.01.09.

185 *Egin*, 1986.01.13.

186 *El Diario Vasco*, 1986.01.11.

187 *El Diario Vasco*, 1986.02.11.

186 *El Diario Vasco*, 11.1.1986.

187 *El Diario Vasco*, 11.2.1986



Petritegiko EUTEko obrak. KUTXATEKA / PELLO LÓPEZ

Obras de la ETAP Petritegi. KUTXATEKA / PELLO LÓPEZ



zeuden lursailetan, zehazki Usategieta baserriraino. Beste erdia libre geratuko litzateke berdegune gisa. Lursailak desjabetzeko 40 milioi pezeta erabili ziren. 1989ko udarako funtzionamenduan jartzea aurreikusi zen.

Xabier Albisturen hitzetan —1987ko azaroaren 8ko Deia, Egin eta El Diario Vasco egunkarietan jasotakoak—: *“kontuan izan behar da Añarbeko presa 1977an eraiki zela, eta ordutik hona zenbait obra egin direla, hala nola hiru adar nagusietakoak, 1.500 milioi pezetako kostua izan dutenak, baina behin betiko emaitza, hau da, Donostiako herritar guztientzat ura baldintza egokietan izatea, ez da errealitate izango hemendik 20 hilabetera arte”*. Kalkulatu zen instalazio horiek segundoko 2.200 litroko produkzio-ahalmena izango zutela araztegiaren bigarren fasea funtzionamenduan jartzen zenean, baina ez zen beharrezkoa izan fase hori eraikitzea.

Araztegiak eguneko 24 orduetako arreta izan beharko lukeenez, langile-gastuak eta bestelako gastuak (energia, erreaktiboak, ozonoa, etab.) eragingo litzateke, eta gastu horiek ez ziren ordura arte kalkulatu. Instalazioak, teoriarik irailatik abendura bitartean urtero detektatzen ziren uraren uhertasunaren eta gehiegizko burdina eta manganesoaren arazoak konponduko zituen.

Elementu horiek ozono bidezko tratamendu baten bidez ezabatuko lirateke. Ozonizazio-instalazioen bidez, tratatutako uretan orduko 6 kilo ozono injektatuko lirateke hiru ganberetako bakoitzean, eta segundoko 1.650 litro araztera iritsiko lirateke. Ozonoa uretan injektatzeak burdina eta manganesoa ezabatzen ditu eta, ondorioz, ura neutro bihurtzen da. Instalazio berria Mankomunitatearen azpiegituran sartzeak

se emplearon 40 millones de pesetas. Se preveía que se pusiera en funcionamiento para el verano de 1989.

En palabras de Xabier Albistur, recogidas en el Deia, Egin y El Diario Vasco del 8 de noviembre de 1987: *“hay que tener en cuenta que la presa del Añarbe fue construida en 1977 y desde entonces se han realizado obras, como las de los tres ramales principales de traída, que han costado 1.500 millones de pesetas, pero el resultado definitivo, es decir, el agua en debidas condiciones para todos los vecinos de Donostia no será una realidad hasta dentro de 20 meses”*. Se calculaba que dichas instalaciones tendrían una capacidad productiva total de 2.200 litros por segundo, cuando se pusiera en funcionamiento la segunda fase de la depuradora, que no ha sido necesaria construir.

La depuradora tendría que estar atendida las 24 horas diarias, por lo que acarrearía gastos de personal y de otro tipo como energía, reactivos, ozono, etc. que no se habían calculado hasta el momento. La instalación, en teoría, resolvería los problemas turbidez y exceso de hierro y manganeso del agua que se detectaban todos los años entre septiembre y diciembre.

Estos elementos se eliminarían mediante un tratamiento con ozono. Por medio de las instalaciones de ozonización se inyectarían en el agua tratada 6 kilos de ozono a la hora en cada una de las tres cámaras, llegando a depurar 1.650 litros por segundo. La inyección de ozono en el agua elimina el hierro y el manganeso, de forma que sea neutra. La incorporación de la nueva planta a la infraestructura de la Mancomunidad supondría un aumento notable de las tarifas de suministro de agua, los precios se incrementarían sustancialmente al haberse producido una mejora en el servicio. Las



Petritegiko EUTEko obrak (1988ko ekaina). PAISAJES ESPAÑOLES

Obras de la ETAP Petritegi (Junio de 1988). PAISAJES ESPAÑOLES

ur-horniduraren tarifak nabarmen igotzea ekarriko luke, eta prezioak asko igoko lirateke, zerbitzua hobetzearen ondorioz. Hornidura-kanalizazioak egiteko eta instalazioa eraikitzeke inbertsioak 3.000 milioitik gorakoak ziren<sup>188</sup>. Azkenik, obrak 1988ko urtarrilaren 18an hasi ziren. Aurrekontuaren % 56 obra zibilera zuzenduta zegoen, eta % 44 araztegia aurreikusitako tratamenduetarako behar zen ekipo elektromekanikora<sup>189</sup>. Araztegia eraikitzeke inbertsioa zela eta, 1990ean uraren prezioa % 60 igoko zela aurreikusi zen<sup>190</sup>.

Bien bitartean, bi udal berri sortu ziren Donostialdean, eta Añarbeko Uren Mankomunitatean sartzeko eskatu zuten: Lasarte-Oria (Hernani, Urnieta eta Andoaini zegokion) eta Astigarraga (independentzia lortu arte, Donostiako jurisdikzioaren barruan zegoen). Azken horrek ur-horniduran zuen herritarren artean gehien hedatutako aldarrikapenetako bat. Urak ekartzea izan zen Donostiako Udalak Astigarragan egin zuen obra bakanetako bat, herritarrek salatzen zuten. 1973ko otsailaren 8an inauguratu zen Santiagomendirako ur-ekarria. Ekitaldi ofizialen buru Donostiako alkatea izan bazen ere, obraren benetako bultzatzaileak izan ziren bertako bizilagunak eta orduko

inversiones por las canalizaciones de suministro y la construcción de la planta superaban los 3.000 millones<sup>188</sup>. Finalmente, las obras arrancaron el 18 de enero de 1988, con un 56% del presupuesto destinado a la obra civil, y un 44% para el equipo electromecánico que se necesitaba para los tratamientos previstos en la depuradora<sup>189</sup>. Debido a la inversión que suponía la construcción de la depuradora, se preveía que el precio del agua aumentaría un 60% en 1990<sup>190</sup>.

Mientras tanto, dos nuevos Ayuntamientos surgían en la comarca de Donostialdea, y solicitaban su ingreso en la Mancomunidad de Aguas del Añarbe: Lasarte-Oria, que había pertenecido a Hernani, Urnieta y Andoain; y Astigarraga, localidad integrada hasta su independencia en la jurisdicción de Donostia/San Sebastián. Esta última tenía en el abastecimiento de agua una de las reivindicaciones más populares. La traída de aguas, fue una de las pocas obras que el Ayuntamiento donostiarra había hecho en Astigarraga, según denunciaban los vecinos. El 8 de febrero de 1973 se inauguró la traída de aguas a Santiagomendi y aunque los actos oficiales los presidió el alcalde donostiarra los verdaderos impulsores de la obra fueron los vecinos de la zona y

188 *El Diario Vasco*, 1987.11.06an, ohar labur batean jaso zuen agerraldia. *Deian*, 1987.11.08an, *El Diario Vasco*, 1987.11.08an, eta, batez ere, *Eginen*, 1987.11.08an, jorratu zen.

189 *El Diario Vasco*, 1988.01.17.

190 *El Diario Vasco*, 1988.01.19.

188 *El Diario Vasco*, 6.11.1987 recogía la comparecencia en una breve nota. Ésta era ampliamente tratada en el *Deia*, 8.11.1987, *El Diario Vasco*, 8.11.1987, y, sobre todo, por *Egin*, 8.11.1987.

189 *El Diario Vasco*, 17.1.1988

190 *El Diario Vasco*, 19.1.1988.

auzo-alkate Rafael Liceaga (1971 eta 1978 bitartean auzo-alkate izandakoa).

1984ko uztailean, Garapen Komunitariorako Ikerketa Aplikatuko Sozietateak (SIADECO)<sup>191</sup>, txosten zehatz baten bidez, Astigarraga Donostiatik bereiztearen aldekoen aldarrikapenak bermatu zituen. 1984ko abenduaren 30ean egindako herri-galdeketa, % 59,36ko parte-hartzeaz, Donostiatik banandutako udal propioa sortzearen aldeko % 91,68 boto atera ziren. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1987ko apirilaren 26an izendatutako Kudeaketa Batzordeak udal berria gobernatzeko hartu zuen lehen neurrietako bat, urte bereko hurrengo udal-hauteskundeak egin arte, izan zen ur-ekarria berritzea eta Santiagomendiko biltegia eraikitzeko obrari ekitea. Obra horretan, Astigarragak 75 milioi pezetatik gorako inbertsioa egin zuen<sup>192</sup>.

Petritegin lurra mugitzen hasi bezain laster, Astigarragako alkateak araztegiako obrak geldiarazteko mehatxua egin zuen, araztegiaren zati bat zabortegiaren gainean eraiki behar zelako. Astigarragako alkate hautatu berriak, Antton Arkak (HB), abian jartzea hainbeste kostatu zen lanak eragoztearekin mehatxua egin zuen, zabortegiaren gaia lehendabizi konpondu ezean eta beharrezko lizentzia ez izateagatik. Astigarragan egindako osoko bilkuran, urtarrilaren 28an, erabaki zen *“Udalaren kezka adieraztea”* obrak lizentziarik gabe egingo zirelako. Akordioak honako hau gaineratzen zuen: *“berriz ere adierazten da komeni dela Añarbeko Mankomunitatearen Batzarraren bileretan Astigarragako udalerraren ordezkariak bertaratu dadin baimentzea, batzar horretako kide gisa Astigarraga onartzea formalizatzen den bitartean, lehen Lasarteko udalerrarekin lehen egin bezala”*<sup>193</sup>. Astigarragaren onarpena nahiko atzeratu zen. Azkenik, Mankomunitatearen Batzarrak, 1989ko irailaren 12ko bilkuran, Astigarragako Udala eskubide osoz integratzea onartu zuen<sup>194</sup>.

el entonces alcalde del barrio, Rafael Liceaga, que fue alcalde pedáneo entre 1971 y 1978.

En julio de 1984, la Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario (SIADECO)<sup>191</sup>, mediante un informe detallado venía a avalar las reivindicaciones de los partidarios de separar a Astigarraga de Donostia/San Sebastián. La consulta popular celebrada el 30 de diciembre de 1984, con una participación del 59,36%, arrojó un 91,68% de votos favorables a la creación de un Ayuntamiento propio desligado de Donostia/San Sebastián. Una de las primeras medidas que tomó la Comisión Gestora designada por las Juntas Generales de Gipuzkoa el 26 de abril de 1987, para gobernar el nuevo Ayuntamiento hasta que se celebrasen las próximas elecciones municipales de ese mismo año, fue la renovación de la traída de aguas y la obra de construcción del depósito de Santiagomendi, en el que Astigarraga invirtió más de 75 millones de pesetas<sup>192</sup>.

Nada más empezar a remover las tierras en Petritegi, el alcalde de Astigarraga amenazó con parar las obras de la depuradora, debido a que había un problema con el vertedero sobre el que se tenía que construir parte de la depuradora. El nuevo alcalde electo de Astigarraga, Antton Arka (HB), amagaba con impedir los trabajos que tanto había costado poner en marcha, en caso de no solucionar primero el tema del vertedero y debido a carecer de la licencia necesaria. En sesión plenaria celebrada en Astigarraga, el 28 enero se acordó *“expresar la inquietud del Ayuntamiento”* por el hecho de que las obras se desarrollasen sin licencia. El acuerdo añadía: *“se reitera la conveniencia de que se permita la asistencia de la representación del municipio de Astigarraga en las reuniones de la Junta de la Mancomunidad del Añarbe, en tanto se formaliza su admisión como miembro de la misma, al igual que se ha hecho anteriormente con el municipio de Lasarte”*<sup>193</sup>. La admisión de Astigarraga se demoró bastante. Finalmente la Junta de la Mancomunidad en sesión del 12 de septiembre

191 Garapen Komunitariorako Ikerketa Aplikatuko Sozietatea, SIADECO, irabazi asmorik gabeko kooperatiba bat da, Donostian 1967an sortua, “talde sustatzailea gidatzen zuen zerbitzu-espirtuarekin”, eta, sorrerako printzipioen arabera, gizarte-garapenean lagundu nahi zuten, herritarren oinarritzko interesak ordezkatzeko zituzten proiektuak lehenetsita, eta ikerketa aplikatuan objektibotasuna bilatzen eta bermatzen duen talde tekniko-zientifiko independente batean oinarrituta, erakundearen beraren arabera. Ikusi: <http://www.siadeco.eus/es/identidad/> (2019/02/07an kontsultatu da azken aldiz).

192 Astigarraga, 1990, 60-113. or.

193 *El Diario Vasco*, 1988.02.02.

194 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1989.09.12).

191 La Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario, SIADECO, es una cooperativa sin ánimo de lucro creada en Donostia-San Sebastián en 1967, con “un espíritu de servicio que guiaba al grupo promotor” y, según sus principios fundacionales, pretendían colaborar al desarrollo social, priorizando los proyectos que representaran intereses básicos fundamentales de la ciudadanía, apoyándose en un equipo técnico-científico independiente que busca y garantiza la objetividad en su investigación aplicada, según la propia organización. Ver: <http://www.siadeco.eus/es/identidad/> (última vez consultado 07/02/2019).

192 Astigarraga, 1990, pp. 60-113.

193 *El Diario Vasco*, 2.2.1988.



Petritegiko Edateko Uren Araztegiaren obrak (1989ko iraila). PAISAJES ESPAÑOLES

Obras de la ETAP Petritegi (Septiembre de 1989). PAISAJES ESPAÑOLES

Astigarragako Udala kezkatuta zegoen Petritegiko zabortegiarekin, bertan eraiki baitzuten araztegia<sup>195</sup>. Astigarragaren eta Mankomunitatearen arteko liskarguneak zabortegia zigilatzea, gainezkabidea eraikitzea eta lixibiatuen kanala ziren. Jarduera- eta obra-lizentzian arazo horiek konpontzea ezartzen zuen baldintzat, baina Astigarragak ez zuen instalazioa eraikitzearen aurka egin; aitzitik, araztegiaren kokapena ontzat hartu zuen, eta bigarren fase batean zabaldu ahal izateko prest zegoen<sup>196</sup>. Zabortegia Petritegin kokatzea, Astigarraga oraindik hiriburuko auzo bat izanik, aurreko legegintzalditik jasotako arazo bat izan zen, Donostiak zaborrarekin zer egin ez zekien garai batekoa<sup>197</sup>.

de 1989 aprobó la integración de pleno derecho del Ayuntamiento de Astigarraga<sup>194</sup>.

El Ayuntamiento de Astigarraga había mostrado su preocupación por el vertedero de Petritegi, donde se construyó la depuradora<sup>195</sup>. Los puntos de discordia entre Astigarraga y la Mancomunidad eran el sellado del vertedero, la construcción del aliviadero y el canal de lixiviados. La licencia de actividad y obras ponía como condición que se solucionasen dichos problemas, pero Astigarraga no se oponía a la construcción de la planta, al contrario, asumía la ubicación de la depuradora y estaba abierta a que se pudiese extender en una segunda fase<sup>196</sup>. La ubicación del vertedero en Petritegi, siendo aún Astigarraga un barrio de la capital fue un problema heredado de la legislatura anterior, de

195 *Egin*, 1989/11/11, 10. or.

196 Instalazioak segundoko 1.650 litro ur trata zitzakeen, baina laugarren kanal bat eraikitzea aurreikusten zen, ahalmena segundoko 2.200 litroraino handitzeko, baina azkenean ez da beharrezkoa izan hura eraikitzea. *Deia*, 1989/11/11, 13. or.

197 Xabier Albistur, MR 3

194 Acta de la Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 12.9.1989.

195 *Egin*, 11/11/1989, pág. 10.

196 La planta podía tratar 1.650 litros de agua por segundo, pero se preveía construir un cuarto canal que incrementaría la capacidad hasta los 2.200 litros por segundo y que finalmente no ha sido necesaria construir. *Deia*, 11/11/1989, pág.13.



Petritegiko Edateko Uren Araztegiaren inaugurazioa. 1989ko azaroaren 10a.

Inauguración de la ETAP de Petritegi. 10 de noviembre de 1989.



1989ko azaroaren 10ean, Xabier Albistur Donostia-ko alkate eta Añarbeko Mankomunitateko presidentea, Mankomunitateko kide diren udalerrietako alkateek, Imanol Murua Gipuzkoako ahaldu nagusiak eta Pedro Piñeira Espainiako Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoko presidentea modu sinbolikoan inauguratu zuten Petritegiko araztegia, ur araztuarekin topa eginez.

Aldez aurretik, zerbitzua abian jartzeko ekitaldi nagusia Piñeira jaunak, obraren zati handi bat bere ardurapean izan zuen erakundearen ordezkari gisa emandako hitzaldiarekin hasi zen<sup>198</sup>. Protokolo-ekitaldian izan ziren ere, besteak beste, Julen Goikoetxea Herri Lan eta Garraioetako diputatua, Jose Maria Alkizu Udal Harremanetarako diputatua eta Jose Ramon Goñi Tirapu probintziako gobernadore zibila<sup>199</sup>. Horren ondoren, bisita bat egin zuten instalazioetara Felipe Roman Konfederazioko ingeniari eta obra-buruaren eskutik. Horrek, plano handi baten laguntzaz, araztegiaren funtzionamenduaren berri eman zien agintariei.

Araztegiak jadanik bi aste zeramatzan funtzionatzen probaldian, eta azaroaren 7tik aurrera errendimendu betean. Hurrengo egunean, Osakidetzak ziurtatu zuen Añarbeko ura egokia zela kontsumariko. Osakidetzak edateko urtzat jo zituen Añarbeko urak, araztegiari esker, baina ez Artikutzako sarekoak eta Donostialdeko beste iturri batzuetakoak. Eskualdean hornitutako uren edangarritasunaren arazoak hor

una época en la que Donostia no sabía qué hacer con la basura<sup>197</sup>.

El 10 de noviembre de 1989, el Alcalde de Donostia/San Sebastián y a su vez Presidente de la Mancomunidad del Añarbe, Xabier Albistur, junto a los Alcaldes de los municipios miembros de la Mancomunidad, el Diputado General de Gipuzkoa, Imanol Murua, y el Presidente de la Confederación Hidrográfica del Norte de España, Pedro Piñeira, inauguraban de forma simbólica la puesta en marcha de la planta depuradora de Petritegi brindando con agua depurada.

Previamente, el acto solemne de la puesta en marcha del servicio arrancó con el discurso del Sr. Piñeira, como representante de la institución a cuyo cargo corrió gran parte de la obra<sup>198</sup>. El acto protocolario, al que también asistieron, entre otros, Julen Goikoetxea, Diputado de Obras Públicas y Transportes, José María Alkizu, Diputado de Relaciones Municipales y José Ramón Goñi Tirapu, Gobernador Civil de la provincia<sup>199</sup>, dio paso a una visita a las instalaciones de la mano del Jefe de obras, Felipe Román, Ingeniero de la Confederación, quien con ayuda de un gran plano informó a las autoridades del funcionamiento de la depuradora.

La depuradora llevaba en funcionamiento ya desde hacía dos semanas en período de pruebas y a pleno rendimiento desde el día 7 de noviembre. Al día siguiente

198 *Egin*, 1989/11/11, 10. or.

199 *Deia*, 1989/11/11, 13. or.

197 Xabier Albistur, MR 3

198 *Egin*, 11/11/1989, pág. 10.

199 *Deia*, 11/11/1989, pág.13.



Petritegiko Edateko Uren Araztegiaren obrak (1990eko iraila). PAISAJES ESPAÑOLES

Obras de la ETAP Petritegi (Septiembre de 1990). PAISAJES ESPAÑOLES

jarraitzen zuten. Etxe askok oraindik ere ura irakiten eta bi liziba tanta botatzen jarraitu beharko zuten. Azken batean, ur-hornidura homogeneoa izatetik urrun zegoen oraindik, eta hamar udalerrietako biztanleen artean nahasmena zegoen. Izan ere, esaterako, Urnieta, Lasarte-Oria, Lezo, Pasaia, Errenteria, Oiartzun eta Usurbileko eremu batzuetan ur-hornidura araztu gabeko urekin egiten zen. Ur horiek Artikutzatik zetozen —oraingoz, klorazioaren ohiko tratamendua baino ez zuten jasotzen, hala nola Donostiako goi-eremuetan edo Errenteriako, Pasaia eta Lezoko eremu batzuetan—, edota iturburu propioez hornitzen zirelako ez ziren arazten —hala nola Lasarten eta Usurbilen—<sup>200</sup>. Azkenean fabrika kostatu zen 1.800 milioiak erdi bana

Osakidetza certificaba que el agua de Añarbe era apta para el consumo. Osakidetza calificó de potables las aguas del Añarbe, gracias a la depuradora, no así la de la red de Artikutza y otras fuentes de Donostialdea. El problema de potabilidad de las aguas abastecidas en la comarca siguió estando presente. Muchos hogares deberían seguir todavía hirviendo el agua y echando dos gotas de lejía. Al fin y al cabo, el abastecimiento de aguas todavía estaba lejos de ser homogéneo y entre los habitantes de los diez municipios existía confusión, ya que municipios como Urnieta, Lasarte-Oria, Lezo, Pasaia, Errenteria, Oiartzun y Usurbil tenían zonas en las que el abastecimiento se hacía con aguas no depuradas, bien procedentes de Artikutza, que por el momento sólo recibía el habitual tratamiento de la cloración, como era el caso de las zonas altas de Donostia/San Sebastián, algunas de Errenteria, Pasaia y Lezo, o bien porque se abastecía de manantiales propios como Lasarte y Usurbil<sup>200</sup>. Los 1.800 millones que

200 Donostiako auzo eta eremu hauek % 100ean araztutako ura jasotzen zuten: Loiola, Martutene, 27. poligonoa, Ondarreta, Benta-Berri, Antigua, Zapatarri, Pakea, Igara, Parte Zaharra, Amara Berria, Gros, Jaia Alai, Ategorrieta eta Herrera. Araztu gabeko ura, beraz, kontsumorako ez-egokia jasotzen zuten auzune hauek: Molinao, Buenavista, Egia, Altza-Larratxo, Trintxerpe, Errekalde, Añorga Txiki, Zabalegi, Etume, Igeldo, Kanpina, Jolas-parkea, Mirakontxa, San Roke, Seminarioa, Gurutze, Bidebieta II, Etxadi, Patronatua, Poliklinika, Egoitza, Aiete eta Tenisa. *Egin*, 1989/11/11, 10. or.

200 Los barrios y zonas de Donostia que recibían agua depurada al 100% eran entonces Loiola, Martutene, Polígono 27, Ondarreta, Benta-Berri,

ordaindu zituzten Mankomunitateak eta MOPUK, Konfederazio Hidrografikoaren bidez<sup>201</sup>.

Azaroaren bukaera aldean amaitu zen Lasarte-Oriarako uraren eroanbidea<sup>202</sup>, eta araztegia jadanik prest zegoen 300.000 gipuzkoar inguru edateko urez hornitzeko<sup>203</sup>. Artikutzako urtegiko eta Goiko Kanaleko instalazio zaharrek 1992an utzi zioten Donostialdea urez hornitzeari. Araztegia eta ura kontrolatzeko laborategiak abian jartzeak berekin ekarri zuen kalitate handiko ura iristea, bere ziklo osoan zehar kontrol zorrozpean jarritako ura. Petritegiko Edateko Uren Araztegi instalazioetan bertan, instalazioetara sartzen zen uraren gaineko kontrolak egiten hasi ziren egunero. Gainera, urak azken erabiltzaileengana iritsi arte jarraitzen dituen fase eta tratamendu guztiak gainbegiratzeko ziren.

Petritegiko EUA Edateko Uren Araztegia zerbitzuan jartzeak hazkunde handia ekarri zuen EUAren eta hornidura-azpiegituren kudeaketan eta ustiapenean. Hori guztia aurreikusita, 1988ko azaroan Mankomunitateak organigrama berria onartu zuen, tratamendu-instalazioa abian jartzean sortuko ziren beharretara egokitzeko. Petritegiko EUA zerbitzuan jarri zenean, langile talde handi bat kontratatu zen, azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko zerbitzuak ematen zituen enpresa baten bidez. Azken alderdi horiek langileei buruzko atalean aztertuko ditugu.

costó finalmente la planta fueron abonados a medias entre la Mancomunidad y el MOPU a través de la Confederación Hidrográfica<sup>201</sup>.

La conducción del agua hasta Lasarte-Oria se concluyó a finales de noviembre<sup>202</sup>, y la depuradora estaba ya preparada para abastecer de agua potable a cerca de 300.000 guipuzcoanos<sup>203</sup>. Las antiguas instalaciones del embalse de Artikutza y el Canal Alto dejaron de suministrar agua a Donostialdea en 1992. La puesta en marcha de la depuradora y de los laboratorios de control de agua supuso la llegada de un agua de gran calidad y sometida a un estricto control a lo largo de todo su ciclo. En las mismas instalaciones de la ETAP de Petritegi se empezaron a realizar controles diarios sobre el agua que entraba en las instalaciones. Además de supervisar todas las fases y tratamientos que sigue el agua hasta llegar a los usuarios finales.

La entrada en servicio de la Estación de tratamiento de aguas potables (ETAP) de Petritegi, supuso un incremento importante en la gestión y explotación tanto de la ETAP como de las infraestructuras de abastecimiento. En previsión de todo ello, en noviembre de 1988 la Mancomunidad aprobó el nuevo organigrama para ajustarse a las necesidades que surgirían con la puesta en marcha de la planta de tratamiento. La entrada en servicio de la ETAP de Petritegi supuso la contratación un amplio grupo de trabajadores a través de una empresa de prestación de servicios para la explotación y mantenimiento de las infraestructuras, aspectos estos últimos que analizaremos en el apartado referente al personal.

201 *Deia*, 1989/11/11, 13. or.

202 *Egin*, 1989/11/11, 10. or.

203 *El Diario Vasco*, 1989/11/11, 16. or.

Antiguo, Zapatari, Pakea, Igara, Parte Vieja, Amara Nuevo, Gros, Jaia Alai, Ategorrieta y Herrera. Las barriadas que recibían agua no depurada, por lo tanto no apta para el consumo eran Molinao, Buenavista, Egiá, Altza-Larratxo, Trintxerpe, Rekalde, Añorga Txiki, Zabalegi, Etume, Igeldo, Camping, Parque de atracciones, Miraconcha, San Roque, Seminario, Gurutze, Bidebieta II, Etxadi, Patronato, Policlínica, Residencia, Aiete y Tenis. *Egin*, 11/11/1989, pág. 10.

201 *Deia*, 11/11/1989, pág.13.


202 *Egin*, 11/11/1989, pág. 10.

203 *El Diario Vasco*, 11/11/1989, pág.16.

1989 no ha sido un año fácil para la Mancomunidad de Aguas del Añarbe. Los municipios que la integran, así como las más de 300.000 personas a las que abastece de agua la Mancomunidad, han experimentado la inquietud de la escasez de este elemento que, en periodos de carencia, ha cobrado todo su valor. La larga sequía, el alarmante descenso en el nivel de agua embalsada y la necesidad de racionalizar la distribución y el consumo de agua supusieron para la Mancomunidad un duro reto que se superó con agilidad, profesionalidad y eficacia, expresando mejor que cualquier memoria la actividad de este organismo.

Pero 1989 fue también el año en el que la esperada Planta de Tratamiento comenzó a suministrar con absoluta normalidad agua depurada y tratada, el agua de calidad que esperaban y necesitaban los usuarios de la Mancomunidad. Junto a estos dos hitos, 1989 ha conocido los trabajos preparatorios de los próximos pasos que dará la Mancomunidad en su empeño por mejorar el suministro de agua a esa amplia comunidad de usuarios. En los próximos meses se completará la red de distribución, llegando a los municipios mancomunados que hasta ahora no han recibido el agua suministrada por la Mancomunidad, como Usurbil, Lasarte o Urnieta. Este paso supondrá la consolidación real de la Mancomunidad, que, por otra parte, contará con un importante instrumento para aprovechar, en las mejores condiciones, todas las aportaciones de agua que pueda captar la Mancomunidad, a través de las directrices que pueda establecer el estudio sobre la Ampliación de Recursos Hidráulicos de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, recientemente encargado.

La Mancomunidad de Aguas del Añarbe afronta pues, una vez afianzada en sus funciones básicas y asentada en su marco geográfico de servicio, una nueva etapa de desarrollo y de mejora de sus prestaciones, en la que tendrán una importancia capital las labores relacionadas con el saneamiento, completando así su quehacer en el complejo y decisivo ciclo del suministro y tratamiento del agua.



Xabier Albistur Marin  
Presidente de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe

1989ko memoria (1990ean idatzia). Presidentek memorian egindako sarrera.

Memoria de 1989 (redactada en 1990)  
Introducción que hace el Presidente en la Memoria





Aparrak Urumean, Santa Katalina zubiaren parean (1960). KUTXATEKA / ARTURO DELGADO

Espumas en el Urumea a la altura del puente de Santa Catalina (1960). KUTXATEKA / ARTURO DELGADO

## SANEAMENDU ESKEMA OROKORAREN SORRERA

Lehen frankismoaren azken urteetan, 1960ko hamarkadaren hasieran, Urumea ibaiaren itxurak eta usainak, Amara, Martutene edo Loiola auzoetako estolderiak zituen gabeziekin batera (neurri handi batean industrializazioari eta populazioaren hazkundeari lotuta), kezka handia sortzen zieten donostiarrei eta agintariei. 1960an, Urumea ibaiaren Saneamendu Plan Orokorra onartu zen. Plan horretan, Ulia mendiaren kostaldeko adarretan kolektore bat eraikitzea planteatu zen, etxeke, udalerriko eta industriako ur zikinak biltzeko eta itsasora isurtzeko. Urtebete geroago, 1961ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuten Urumea ibaia Hernanin eta Astigarragan kanalizatzeko azterketa osatua enkargatzea.

1960ko hamarkadan, kiratsari aurre egiteko hainbat bide aztertu ziren, hala nola industriak noizbehinka etetea edo Urumea kloro bidez desodorizatzea, hamarkadaren amaieran Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Komunitatea (CUCRU) abian jarri zen arte. Probintziaren gainerakoan, 1961ean Kutsadura Kontrolatzeko Plana jarri zen abian, Oria eta Urumeako arroak eta Deba, Urola eta Bidasoa ibaietakoak babesteko. Ur beltzen isurketek arazketa eskatzen zuten,

## EL NACIMIENTO DEL ESQUEMA GENERAL DE SANEAMIENTO

Durante los últimos años del primer franquismo, en los albores de la década de 1960, el aspecto y el olor del río Urumea, junto con las carencias que presentaba el alcantarillado de los barrios de Amara, Martutene o Loiola, ligado en gran parte a la industrialización y al crecimiento poblacional, preocupaba notablemente a los donostiarres y a las autoridades. En 1960, se aprobó el Plan General de Saneamiento del río Urumea, donde se planteaba construir un colector en las estribaciones costeras del monte Ulía, para recoger las aguas sucias de origen doméstico, municipal e industrial, y verterlas al mar. Un año más tarde, en 1961 la Diputación de Gipuzkoa, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y la Dirección General de Obras Hidráulicas decidieron encargar el estudio completo de canalización del río Urumea en Hernani y Astigarraga.

En la década de 1960 se estudiaron diferentes vías para combatir el hedor, como la interrupción ocasional de las industrias, o la desodorización por cloro del Urumea, hasta que finalmente a finales de la década se puso en marcha la Comunidad de Usuarios del Colector del Río Urumea (CUCRU). En el resto de la provincia, en 1961 se puso en marcha el Plan de Control de la

«Turismoarentzat zorigaitz bat zen, batez ere ibaiaren usain txarrareng. Artikulu bat agertu zen aldizkari frantsesen batean: ‘Saint-Sébastien sur la merde’. Egia esan, usainak ez zen ‘merde’aren ondorio, paper-fabrikaren ondorio baizik: ez zettorren izenburu horrek iradokitzen zuen horretatik»

Nemesio Echaniz

«Para el turismo era una faena, sobre todo lo mal que olía el río. Apareció un artículo en alguna revista francesa: ‘Saint-Sébastien sur la merde’. La verdad es que el olor no se debía a la ‘merde’, sino a la Papelera, no a lo que ese título sugería»

Nemesio Echániz

ibaien agorraldiko emaria ez baitzen nahikoa egoera konpentsatzeko, Bidasoaren kasuan izan ezik. Industria-isurketek larriki poluitu zituzten zenbait ibai, larritasun-hurrenkera honetan: Oria ibaia (kutsatuen) eta, haren atzetik, Deba, Oiartzun, Urumea, Urola eta Bidasoa. Pasaia badia ere narriatuta zegoen. Ordurako, araztegiez eta itsasora egindako isurketen erregulazioaz hitz egiten zen, baita hondakin-urak kloroarekin eta usain txarrak ezabatuko zituzten beste agente antiseptiko batzuekin tratatzeko aukeraz ere<sup>204</sup>.

Saneamenduak Donostiako hiriarri sortzen zizkion arazoak hain ziren handiak, ezen ur-gabeziak egoera okertu besterik ez baitzuen egiten uda betean. Ibaiak zerion kiratsa arazo bat zen Donostia bezalako hiri turistikoko eta mugatik gertuko batean.

“Turismoarentzat zorigaitz bat zen, batez ere ibaiaren usain txarrarena. Artikulu bat agertu zen aldizkari frantsesen batean: ‘Saint-Sébastien sur la merde’. Egia esan, usaina ez zen ‘merde’aren ondorio, paper-fabrikaren



José Manuel Elozegi Donostiako alkatea Ibaetako kolektorearen obrak bisitatzeko (1964). KUTXATEKA / PACO MARÍ

El alcalde de San Sebastián José Manuel Elósegui visitando las obras del colector de Ibaeta (1964). KUTXATEKA / PACO MARÍ

Contaminación para proteger las cuencas del Oria y del Urumea, y las de los ríos Deba, Urola y Bidasoa. Los vertidos de aguas negras exigían depuración, pues el caudal de estiaje de los ríos no bastaba para compensar la situación, salvo en el caso del Bidasoa. Los vertidos industriales habían polucionado gravemente y por este orden varios ríos: el río Oria era el más contaminado, seguido por el Deba, Oiartzun, Urumea, Urola y Bidasoa. La Bahía de Pasaia era también un entorno deteriorado. Ya entonces se hablaba de depuradoras y de la regulación de los vertidos al mar, así como de la posibilidad de tratar las aguas residuales con cloro y otros agentes antisépticos que eliminaran los malos olores<sup>204</sup>.

Los problemas que el saneamiento planteaba a la ciudad de Donostia/San Sebastián eran de tal calado que, la falta de agua no hacía más que empeorar la situación en pleno verano. El hedor que desprendía el río era un problema en una ciudad turística y cercana a la frontera como Donostia.

“Para el turismo era una faena, sobre todo lo mal que olía el río. Apareció un artículo en alguna revista francesa: ‘Saint-Sébastien sur la merde’. La verdad es que el olor no se debía a la ‘merde’, sino a la Papelera, no a lo que ese título sugería.” (E 1. Nemesio Echániz)

204 Hortaz, 1964an onartu zen Probintziako Ibaiak eta Eskualdeko Banaketak Arazteko Planaren lehen azterketa, Probintziako Bide eta Obren Zerbitzuak aurkeztua. Arrieta Alberdi, Barandiaran Contreras, 2003, 157-165. or.

204 En 1964 se aprobaba, pues, el primer estudio del Plan de Regulación de los Ríos de la Provincia y Distribuciones Comarcales presentado por el Servicio de Vías y Obras Provinciales. Arrieta Alberdi, Barandiaran Contreras, 2003, pp. 157-165.

*ondorio baikik; ez zetorren izenburu horrek iradokitzen zuen horretatik*". (E 1. Nemesio Echaniz)

Urumea ibaiko industria-kolektorea eraikitzea lehenetsuak planteatu zen ibai-ibilbide horretara egiten ziren mota guztietako isurketen ondorioz; bereziki, Hernani eta Astigarragako udalerrietan, Donostiatik ibaian gora, ibilguaren haren ibilguan zehar kokatutako industrietan jatorria zuten isurketen ondorioz. Isurketa horiek zirela-eta, Urumea usain txarreko ibai zen, apar sarri eta ugarikoa, hondakin-urak isurtzen zituzten industria-prozesu ugarien ondorioz. Egoera horrek oihartzun sozial eta politiko nabarmena izan zuen, azken hori uda-garaian hirian izaten zen Estatuko agintari gorenaren presentziari lotuta. Ondorioz, Gobernuaren aginduz, batez ere paper-orea fabrikatzeko prozesu batzuk aldi baterako eten ere egin ziren, eta horrek pentsa daitezkeen ondorio ekonomikoak eta kudeaketakoak izan zituen<sup>205</sup>. Udan Donostia Estatu-ko hiriburu politikoa izateak erraztu ahal izan zuen arazoari aurre egiteko planteatutako zenbait proiektu onartzea. Madril, gainerakoan, urrun zegoen toki- eta probintzia-administrazioetatik, eta Estatuaren burokrasia ohituta zegoen antzeko arazoak zituzten ordezkariak hartzera<sup>206</sup>.

Jakina, deskribatutako egoerak agintariak eta, oro har, gizarte osoa kezkatzen zituen. 1959an, Gipuzkoako Probintzia Diputazioak, Donostiako Udaleko Zerbitzu Teknikoekin lankidetzan, Urumeak zuen kutsadura-arazoaren atariko lehen azterketak egin zituen. Aurrerago, Jaurlaritzaren Lehendakariaren 1960ko uztailaren 6ko Aginduaren bidez, Batzorde tekniko-administratibo bat eratu zen, "Urumea ibaia kutsatzen duten hondakin-urak ezabatzeko edo arazteko behin betiko proiektua"ren idazketa bultzatzeko, egoera horri amaiera ematearren. Batzordea eratu eta hiru hilabeteko epea ezarri zen behin betiko proiektua idazteko. gastuak Donostiako Udalaren eta Diputazioaren kontura izango ziren. Obren finantzaketari dagokionez, Aginduak eskatzen zuen bidezko finantzaketa-plana egitea eta egoki irizitako estatu-laguntzen araubidea finkatzea. Hori guztia Gobernu zentralak balioetsi eta onartu behar zuen.

1961eko apirilean, Alfredo Vizcarrondo, Jose Zuzola eta Jose Maria Gabarain bideetako ingeniariak Urumeako kolektorearen eraikuntzari buruz idatzitako aurreproiektua onartu zen, 56 milioi pezetako aurrekontuarekin. Geroago, 1962ko ekainaren 4ko Ministro

La construcción del Colector Industrial del Río Urumea se planteó como una necesidad de primer orden como consecuencia de los vertidos de todo tipo que se realizaban a dicho curso fluvial y en particular de los que tenían su origen en las industrias ubicadas a lo largo de su cauce, en los términos municipales de Hernani y Astigarraga, aguas arriba de Donostia/San Sebastián. Dichos vertidos llegaron a caracterizar al Urumea como un río maloliente y con frecuente y abundante presencia de espumas, fruto de los numerosos procesos industriales que vertían en él sus aguas residuales. Esa situación alcanzó notable repercusión social y política, vinculada esta última a la presencia en la ciudad de las más altas autoridades del Estado en la temporada estival, lo que llegó a suponer la interrupción temporal, por orden gubernativa, de algunos procesos de fabricación fundamentalmente de pasta de papel, con las consecuencias económicas y de gestión que cabe imaginar<sup>205</sup>. El hecho de que Donostia/San Sebastián, fuese de alguna manera la capital política del Estado durante el verano pudo facilitar que se aprobasen algunos de los distintos proyectos planteados para hacer frente al problema. Madrid, por lo demás, se encontraba lejos de las administraciones locales y provinciales, y la burocracia estatal estaba acostumbrada recibir distintas delegaciones con problemas similares<sup>206</sup>.

La situación descrita lógicamente preocupaba a las autoridades y, en general, a toda la sociedad. En 1959 la Diputación Provincial de Gipuzkoa, en colaboración con los Servicios Técnicos del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, acometió los primeros estudios preliminares del problema de contaminación que padecía el Urumea. Más adelante, se procedió a la creación, por Orden de la Presidencia del Gobierno de 6 de julio de 1960, de una Comisión técnico-administrativa con el fin de impulsar la redacción de un "Proyecto definitivo de eliminación o depuración de las aguas residuales que polucionan el Río Urumea" que viniera a poner fin a tal estado de cosas. Se estableció un plazo de tres meses a partir de la constitución de la comisión, para la redacción del proyecto definitivo; los gastos habrían de correr a cargo del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián y de la Diputación. En cuanto a la financiación de las obras, la Orden se remitía al oportuno plan de financiación y a la fijación del régimen de auxilios estatales que se consideraran

205 Añarbeko Urak, 2016, 2. or.

206 E 1. Nemesio Echaniz.

205 Aguas del Añarbe, 2016, p. 2.

206 E 1. Nemesio Echániz.



Nicolas Lasarte  
Donostiako alkateak,  
Manuel Valencia  
gobernadore  
zibilak eta Antonio  
Epelde Diputazioko  
presidenteak parte  
hartu zuten bilera  
batean (1963).

KUTXATEKA / PACO MARÍ

Celebración de  
una reunión  
con asistencia  
de autoridades  
como el alcalde  
de San Sebastián  
Nicolás Lasarte, el  
gobernador civil  
Manuel Valencia y  
el presidente de la  
Diputación Antonio  
Epelde (1963).

KUTXATEKA / PACO MARÍ

Aginduaren bidez, teknikoki onartu ziren, jendaurreko informazioaren ondorioetarako, “Urumea ibaiaren saneamendurako Plan Orokorra” eta “Planaren lehen etapako obren aurreproiektua”. Bestalde, 1962ko irailaren 20ko 2447/62 Dekretuak (BOE, 239 zk., 62.10.5ekoa, 14.050. or.) “Urumea ibaiaren saneamendu-planaren lehen etapako obren proiektua” behin betiko idazteko agindu zion batzorde teknikoari, eta obren % 50 Estatuaren kontura eta gainerako % 50a erabiltzaileen kontura finantzatzea ezarri zuen. Nolanahi ere, % 50 hori Estatuak aurreratuko zuen, eta erabiltzaileek, erabiltzaile-komunitate gisa eratuta, zenbateko hori itzuli beharko zuten 20 urteko epean. 1962ko urrian Vizcarrondok, Zuazolak eta Gabarainek Urumeako kolektoreko obren proiektua idatzi zuten. Proiektuak 99.739.336,32 pezetako egikaritze-aurrekontua zuen, eta 36 hilabeteko epea. Espainiako Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak arduratu behar zuen obrak lehiaketa mugatu bidez lizitzatzeko oinarriak idazteaz.


1963ko ekainaren 12an, Donostiako udaletxean eratu zen, Nicolas Lasarte Arana alkatea buru zela, Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Komunitatea (aurrerantzean, CUCRU). Donostiako Udalak, orduko Gipuzkoako Probintzia Diputazioak (Antonio Epelde Huetok ordezkaturata) eta hamabi industria-erabiltzailek osatzen zuten komunitatea. Azken horiek (bakoi-tzaren ordezkariarekin) honako hauek izan ziren:

- Policloro SA (Jesus Lumbreras Masia)
- Electroquímica de Hernani SA (Agustin Ubarrechena Arbel)
- Papelera Biyak-Bat SA (Ricardo Gomez Garcia)
- Papelera Guipuzcoana de Zicuñaga SA (Jaime Echevarria Abona)

adecuados; todo ello a estimar y aprobar por el Gobierno central.

Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Komunitatearekin (CUCRU) negoziazio-prozesu konplexu baten ondoren, Urumeako egungo kolektorea saneamendu- eta arazketa-gailu orokorrean integratu zen. Kolektore horrek, goiko tartearen bidez, aurrerantzean Loiolako HUAra eramango zituen bildutako hondakin-urak, eta horren beheko parteak —lurreko hustubide gisa eratuta— efluenta araztua itsasora isurtzea ahalbidetuko zuen, Monpaseko urpeko hustubidearen bidez, Donostiako kostaldean.

Hasiera batean, Loiolako HUA 1997an eraikitzen hasten saiatu baziren ere, azkenean 2000ko udazkenean hasi ziren, eta 2005eko uztailan amaitutzat jo zituen Konfederazio Hidrografikoak. Servicios y Procesos Ambientales, Construcciones Olabarri eta Fomento de Construcciones y Contratas enpresen aldi baterako elkarte arduratu zen eraikuntzaz, 25,5 milioi euroren truke. Instalazio pilotuan egindako proben ondoren, 4.500 l/s-ko ahalmeneko araztegi bat diseinatu zen, 6.000 l/s-ra zabaltzeko eta Karga Handiko Tratamendu Biologikoa (KHTB) ezartzeko aukerarekin.

Arazketa aurretratamendu baten bidez egiten da. Arbastatzeko, harea kentzeko eta koipegabatzeko prozesuak barne hartzen ditu, eta, ondoren, uretan dauden materia organikoa ezabatzen duen tratamendu biologiko batekin jarraitzen da, dekantazio-prozesu batekin amaitzeko. Instalazioak 318.000 bat biztanleren hondakin-urak tratatzen ditu, hiri-uren pareko industria-urekin batera. Horien batura 500.000 biztanle ingururen baliokidea da. Urtero, 40 milioi m<sup>3</sup> hondakin-ur arazten ditu, eta 4.000 tona lohi inguru sortzen ditu. Lohi horiek nekazaritza-lanetarako ongarri gisa erabiltzen dira lehortu ondoren<sup>222</sup>.

Lurreko hustubidea —Mankomunitatearekin sinatutako hitzarmenaren bidez Estatuak bere gain hartutako obra— 2009ko apirilaren 27an jarri zen zerbitzuan, Loiolako araztegia eta Monpaseko urpeko hustubidea lotuta<sup>223</sup>. Horretarako, Urumeako kolektorearen zati handi bat aprobetxatzea erabaki zen, tarte eraikiberria 1.376 metrokoa baita. Hodiak 2,40 metroko kanpo-diametroa eta bi metroko barne-diametroa du, eta 6.000 l/s-ko ahalmena<sup>224</sup>.

Loiolako Hondakin Uren Araztegiaren garrantzia duten azpiegituretan ohikoa den bezala, haren kokapena eta eraikuntza polemikoa izan zen, batez ere horrelako instalazio batek sor ditzakeen usainengatik. Hasieratik

depuración, del actual colector del Urumea que, mediante su tramo superior aportaría a la EDAR de Loiola, en lo sucesivo, las aguas residuales que recogía, y cuyo tramo inferior permite, constituido en emisario terrestre, el vertido del efluente depurado al mar a través de Emisario submarino de Mompás, en la costa donostiarra.

A pesar de que, en un principio, se trató de iniciar la construcción de la EDAR de Loiola en 1997, finalmente comenzaron en otoño de 2000, dándose por terminadas en julio de 2005 por la Confederación Hidrográfica. La construcción corrió a cargo de la Unión Temporal de Empresas Servicios y Procesos Ambientales, Construcciones Olabarri y Fomento de Construcciones y Contratas, por 25,5 millones de euros. Tras las pruebas realizadas en la planta piloto se diseñó una depuradora con capacidad para 4.500 l/s, con posibilidad de ser ampliada a 6.000 l/s y Tratamiento Biológico de Alta Carga (T.B.A.C.).

La depuración se realiza mediante un pretratamiento que comprende procesos de desbaste, desarenado y desengrasado para continuar posteriormente con un tratamiento biológico que elimina la materia orgánica presente en el agua para terminar con un proceso de decantación. La planta trata las aguas residuales de unos 318.000 habitantes, junto con las aguas industriales asimilables a urbanas cuya suma equivale a alrededor de 500.000 habitantes. Cada año depura unos 40 millones de m<sup>3</sup> de aguas residuales, generando en torno a 4.000 toneladas de lodos que son empleados tras su secado como abono en labores agrícolas<sup>222</sup>.

El Emisario terrestre, obra asumida por el Estado mediante convenio suscrito con la Mancomunidad, entró en servicio el 27 de abril de 2009, uniendo la Estación Depuradora de Loiola con el Emisario Submarino de Monpas<sup>223</sup>. Para ello se optó por aprovechar una gran parte del Colector del Urumea, el tramo de nueva construcción es de 1.376 metros. La tubería de 2,40 metros de diámetro exterior y dos metros de diámetro interior tiene una capacidad de 6.000 l/s<sup>224</sup>.

Como suele ser habitual en infraestructuras de la importancia de la EDAR de Loiola, su ubicación y construcción no fue ajena a la polémica, principalmente debido a los olores que una planta de estas características puede generar. Desde el principio se intentó limitar o eliminar el problema de los olores,

222 Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, 2013.

223 Añarbeko Urak, 1999.

224 Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, 2013.

222 Confederación Hidrográfica del Cantábrico, 2013.

223 Aguas del Añarbe, 1999.

224 Confederación Hidrográfica del Cantábrico, 2013.

saiatu ziren usainen arazoa mugatzen edo ezabatzen, bai diseinu-etapan, bai hura funtzionamenduan jarri ondoren. Ahaleginak ahalegin, urte-sasoi jakin batzuetan usainak sortzen ziren, batez ere udan. Usain horiek eragozpenak eragiten zizkieten Txomin eta Loiolako bizilagunei<sup>225</sup>. Bizilagunen kexa logikoen aurrean, 2010ean araztegiaren zati handi bat estaltzea erabaki zen. Ingurumen Ministerioak Uraren Zuzendaritza Nagusiaren bidez finantzatutako lanek 3.850.000 euroko kostua izan zuten, eta, haiei esker, usainen arazoak konpondu egin ziren hein handi batean<sup>226</sup>.

Usurbil eta Lasarte-Oriako udalerrietako hondakin-urak biltzea helburu hartuta, Añarbeko Uren Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, udalerrien saneamenduko hodi biltzailearen proiektu orokorra idatzi zuen, eta Konfederazioko teknikariek eta Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Ingurueneko Ministerioak onartu zuten. Aurrekoen obren obra osagarriak ahalbidetu zuen batera 24.000 biztanletik gora zituzten bi udalerrietako hondakin-urak bildu eta Urumeako kolektorean gehitzea, Loiolako Hondakin Uren Araztegiara eramateko, bertan arazteko eta itsasora isurtzeko. Lanak 2009ko azaroan adjudikatu zitzaizkion Dragados eta Moyua ABEEari, eta, 6 urteko lanen eta 25,72 milioi euroren ondoren, lanak 2015eko amaiera aldean amaitu ziren. 2016ko martxoan Oria Behereko kolektorea funtzionamenduan jarri zenean, Oriara inolako kontrolik gabe egindako isurketei amaiera eman zitzairen, baita Añarbeko Mankomunitatearen saneamendu-sistemak egiteke zuen azken azpiegitura handiari ere<sup>227</sup>.

Mende berriaren lehen hogeitau urte hauetan, Añarbeko Saneamenduaren Eskema Orokorra osatzen duten azpiegituren zati handi bat eraiki da, eta horren kostua 300 milioi eurotik gorakoa izan da. Loiolako araztegiak, 100 kilometro baino gehiagoko saneamendusarearekin eta 40 ponpatze-estazio baino gehiagorekin batera, nabarmen hobetu du ibaietako eta kostaldeko uren kalitatea, eta eragin positiboa izan du eskualdeko biztanleen bizi-kalitatean. Gainera, nabarmen murriztu du ingurumenaren gaineko azterna<sup>228</sup>.

tanto durante la etapa de diseño como tras su puesta en funcionamiento. Pese a los esfuerzos, se producían olores en determinadas épocas del año, especialmente en verano, que causaban molestias a los vecinos de Txomin y Loiola<sup>225</sup>. Ante las lógicas quejas de los vecinos, finalmente se optó por cubrir gran parte de la depuradora en 2010. Los trabajos financiados por el Ministerio de Medio Ambiente, a través de la Dirección General del Agua tuvieron un coste de 3.850.000 euros, con lo que los problemas de olores fueron resueltos en gran parte<sup>226</sup>.

Con el objetivo de recoger las aguas residuales de los municipios de Usurbil y Lasarte-Oria fue redactado el proyecto general del interceptor de saneamiento de los municipios por la Mancomunidad de Aguas del Añarbe en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa que fue aprobado por los técnicos de la Confederación y el Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino. La obra complementaria a las anteriores permitió la recogida de las aguas residuales de los dos municipios y de sus más de 24.000 habitantes e incorporarlas al colector del Urumea para transportarlas a la EDAR de Loiola, depurarlas y verterlas al mar. Los trabajos fueron adjudicados en noviembre de 2009 a la UTE Dragados y Moyua, tras 6 años de trabajos y 25,72 millones de euros los trabajos se finalizaron a finales del 2015. Con la entrada en funcionamiento del colector del bajo Oria en marzo de 2016 se puso fin a los vertidos sin ningún tipo de control al Oria y a la última gran infraestructura pendiente del sistema de saneamiento de la Mancomunidad del Añarbe<sup>227</sup>.

En estos primeros veinte años del nuevo siglo se han construido una gran parte de las infraestructuras que conforman el Esquema General de Saneamiento del Añarbe, cuyo coste ha superado los 300 millones de euros de inversión. La depuradora de Loiola junto con la red de saneamiento de más de 100 kilómetros y las más de 40 estaciones de bombeo han supuesto una mejora notable en la calidad de las aguas de los ríos y entorno costero afectado, repercutiendo positivamente en la calidad de vida de los habitantes de la comarca y reduciendo considerablemente la huella sobre el medio ambiente<sup>228</sup>.

225 E 4. Odon Elorza.

226 *El Diario Vasco*, 2010.08.11.

227 *El Diario Vasco*, 2016.03.10.

228 Añarbeko Urak, 2017.

225 E 4. Odón Elorza.

226 *El Diario Vasco*, 11.8.2010.

227 *El Diario Vasco*, 10.03.2016.

228 Aguas del Añarbe, 2017.



Zubietako ponpaketa estazioa, Usurbilgo eta Lasarteko hondakin urak biltzen dituena.  
Estación de bombeo de Zubieta que recoge las aguas residuales de Usurbil y Lasarte-Oria.

Mende berriaren lehen hogei urte  
hauetan. Añarbeko Saneamendua  
Eskema Orokorra osatzen duten  
azpiegituren zati handi bat eraiki da,  
eta horren kostua 300 milioi eurotik  
gorakoa izan da

En estos primeros veinte años del nuevo  
siglo se han construido una gran parte  
de las infraestructuras que conforman  
el Esquema General de Saneamiento del  
Añarbe, cuyo coste ha superado los 300  
millones de euros de inversión



5

# **MANKOMUNITATEA KUDEATZEKO SOZIJETATE PUBLIKOA**

**LA SOCIEDAD PÚBLICA  
DE GESTIÓN DE LA  
MANCOMUNIDAD**

**1997-2022**



## AGUAS DEL AÑARBE- AÑARBEKO URAK SAREN HELBURUAK ETA EGITURA

**M**endearen azken hamarkadaren erdialdean, Mankomunitateak eraldaketa-prozesu bati ekin zion, funtzionamendu profesionalagoko erakundea izateko. Gipuzkoa osoaren erdira hurbiltzen zen populazio batentzako behar-beharrezko baliabide baten kudeaketak planteatzen zituen erronken arabera izan behar zuen. 1996ko urtarrilean hasi zen jardunean AUSA Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietate publikoa. Horren akzioak Mankomunitateari dagozkio oso-osorik. Presaren kudeatzeko eta udalerrri mankomunitatei uren goi-hornidura emateko sozietate instrumentala sortzeari esker, Mankomunitatea enpresa publiko garrantzitsua bihurtu zen. Aurrerantzean, Mankomunitatearen Batzarraren protagonismoa lausotuz joan zen, neurri batean, organo txikiago baten alde: **Administrazio Kontseilua. Administrazio Kontseiluak hartu zuen kudeaketaren gidaritza, eta Batzordea urtean bi edo hiru aldiz biltzen zen aurrekontua onartzeko, likidazioa egiteko eta erakunde publikoekin hitzarmenak sinatzeko**<sup>229</sup>.

Etap berria sinbolikoki islatzen da egoitza sozialaren kokapen berrian. 1991ko apirilean, Donostian, Errotaburu pasealekuko bulegoen 1 zenbakiko 6.

## OBJETIVOS Y ESTRUCTURA DE AGUAS DEL AÑARBE- AÑARBEKO URAK, S.A.

**A** mediados de la última década de siglo la Mancomunidad comenzó un proceso de transformación, para convertirse en una entidad con un funcionamiento más profesional y acorde a los retos planteados por la gestión de un recurso de primera necesidad para una población que se aproximaba a la mitad del total de Gipuzkoa. En enero de 1996 comenzó su actividad la sociedad pública Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak S.A. (AGASA), cuyas acciones pertenecen íntegramente a la Mancomunidad. La creación de la sociedad instrumental para la gestión de la presa y el abastecimiento de agua en alta a los municipios mancomunados convirtieron a la Mancomunidad en una empresa pública importante. En adelante, el protagonismo de la Junta de la Mancomunidad se fue diluyendo en parte a favor de un órgano más reducido, el Consejo de Administración. El Consejo de Administración toma las riendas de la gestión y la Junta pasa a reunirse dos o tres veces al año: aprobación de presupuesto, liquidación y convenios con organismos públicos<sup>229</sup>.

La nueva etapa se refleja simbólicamente en la nueva ubicación de la sede social. En abril de 1991 se adquirió la 6ª planta de las oficinas del paseo de Errotaburu, 1, en Donostia/San Sebastián, un edificio moderno y práctico adquirido por un importe de 979.108 €, donde se ubica hoy en día la actual sede de Aguas del Añarbe. En octubre de 1994 se adquirió la 2ª planta de las oficinas del paseo de Errotaburu, 1, por un importe de 1.771.925 €. Pero, no sería hasta enero de 1997 cuando la sede de la Mancomunidad se ubique en las nuevas instalaciones. El traslado de las dependencias de la Mancomunidad y de AGASA a Errotaburu, simbólicamente

229 Francisca Fernández eta Xabier Albistur, MR 3.

229 Francisca Fernández y Xabier Albistur, MR 3.



Egungo bulegoak, Errotaburu pasealekuko 1 zenbakiko 2. eta 6. solairuetan. Donostia.

Actuales oficinas en el Paseo de Errotaburu nº 1 - 2º y 6ª plantas. San Sebastián.

solairua eskuratu zen. Eraikin moderno eta praktikoa 979.108 €-an erosi zen, eta gaur egun Añarbeko Uren egoitza dago bertan. 1994ko urrian, Errotaburu pasealekuko bulegoen 1 zenbakiko 2. solairua eskuratu zen, 1.771.925 €-ko zenbatekoaz. Baina, 1997ko urtarilerara arte ez zen Mankomunitatearen egoitza instalazio berrietan kokatu. Mankomunitateko eta AUSAko bulegoak Errotaburura lekualdatzea, sinbolikoki, Mankomunitateko presidentetza berriak eman nahi zuen espíritu berriaren adierazgarri zen.

Bigarren kargu-hartzean (1995eko irailean), Odon Elorza Gonzalez presidentetza Añarbeko Mankomunitateari etorkizun hurbilean sortutako erronkei buruzko programa aurkeztu zuen, baita "Aldaketarako proposamena Uren Elkartearen presidentetzan" izeneko dokumentua ere. Dokumentu horretan xehatu egiten zen Mankomunitatearen egiturak 1968 ezkerre egin ohi zuen bezala Presidentetzaren eta Batzarraren bitartez

representaban el nuevo espíritu que pretendía dar la nueva presidencia de la Mancomunidad.

En su segunda toma de posesión (septiembre de 1995), el Presidente, Odón Elorza González, presentó su programa sobre los retos planteados en el inmediato futuro a la Mancomunidad del Añarbe y el documento titulado "Propuesta de cambio en la Presidencia de la Sociedad de Aguas", en el que se desgranaba la puesta en marcha de la sociedad instrumental para la gestión del día a día de los asuntos a los que la estructura de la Mancomunidad ya no podía responder a través de su Presidencia y la Junta como venía haciéndolo desde el año 1968<sup>230</sup>.

A este respecto, exponía Elorza que la Mancomunidad del Añarbe y en consecuencia, AGASA se iba a tener que enfrentar a nuevos e inminentes retos, tales como la próxima gestión completa del ciclo integral del agua, la gestión y supervisión de importantes

230 Acta de la Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 20.9.1995.



## Mankomunitatearen Batzarraren protagonismoa lausotuz joan zen. neurri batean, organo txikiago baten alde: Administrazio Kontseilua

erantzun ezin zien gaien egunerokoen kudeaketa egiteko sozietate instrumentala abian jartzeko prozesua<sup>230</sup>.

Horri dagokionez, Elorzak azaldu zuen Añarbe-ko Mankomunitateak eta, ondorioz, AUSAk aurre egin beharko ziela erronka berri eta berehalakoei, hala nola: aurki, ziklo integrala osorik kudeatzea; saneamenduaren arloan Estatuak egindako inbertsio garrantzitsuak kudeatu eta gainbegiratzea (Mompaseko urpeko hustubidea eta Loiolako Hondakin Uren Araztegia eraikitzea); sozietateak egin beharreko inbertsio garrantzitsuak, Estatuako inbertsioekin bat etorritik eta horien osagarri gisa (horrek zekarren guztiarekin, plangintzari, kudeaketari, finantzaketa bilatzeari, harreman tekniko eta instituzionaleko lanari, etab. zego-kienez); dagoeneko egindako azpiegiturak funtzionamenduan jartzea; isurketen erregelamendua prestatu eta onartzeko prozesua; tarifak homogeneizatzeko eta behe-hornidurako abonatuak kudeatzeko beharrezko prozesua, etab.

Azken urteetan, Mankomunitateko gaien kudeaketak erakutsi zuen, azken batean, Donostiako Udalak nola edo hala ordezkatu zuela erakunde mankomunituaren berezko egiturarik eza. Baina Mankomunitatearen dimentsioek, azpiegiturak eta ardurek erantzun egokia eskatzen zuten. Mankomunitateak aurre egin behar izan zien erronkek eta erakundeak eskuratutako edo eraikitako azpiegitura handiak finantzatzeko eskakizunek atzeratu egin zuten orduan aurre egin beharreko erabaki bat hartzea. Mankomunitateko presidentea aldi berean Donostiako alkatea zen, eta argi zegoen ez zuela behar besteko denborarik hain zeregin konplexua betetzeko. Ezinbestekoa zen Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietatearen bidez kudeaketa-egitura moderno eta eraginkor bat sortzea. Horrek eskatuko zuen sozietatearen buru bere lanari dedikazio osoa eskainiko zion pertsona bat egotea —zuzendaritzako goi-karguak sendotzeko, zehazki sozietatearen Administrazio Kontseiluko Presidentetzan—. Gainera,

inversiones estatales en materia de saneamiento (construcción del Emisario submarino de Mompás y la EDAR de Loiola), las importantes inversiones a realizar por la sociedad en consonancia y con carácter complementario de las inversiones estatales (con lo que ello suponía de planificación, gestión, búsqueda de financiación, labor de relación técnica e institucional, x...), la entrada en funcionamiento de infraestructuras ya realizadas, el proceso de elaboración y aprobación de un Reglamento de vertidos, el necesario proceso de homogeneización tarifaria y de gestión de abonados en baja, etc.

La gestión de los asuntos de la Mancomunidad durante los últimos años había demostrado que, en definitiva, el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián había suplido, mal que bien, la falta de una estructura propia de la entidad mancomunada. Pero las dimensiones de la Mancomunidad, sus infraestructuras y sus responsabilidades exigían una respuesta adecuada. Los retos que tuvo que afrontar la Mancomunidad y las exigencias de financiación de las grandes infraestructuras adquiridas o construidas por la entidad, habían retrasado la adopción de una decisión que ahora se afrontaba. El Presidente de la Mancomunidad, que era a su vez Alcalde de Donostia/San Sebastián, era evidente que carecía del tiempo necesario para desempeñar tan compleja labor. Era imprescindible crear a través de la sociedad Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. una estructura de gestión moderna y eficaz, lo que requeriría que al frente de la misma y reforzando su cúpula directiva, concretamente en la Presidencia de su Consejo de Administración, estuviera una persona con total dedicación a su trabajo y con dilatada experiencia en materia hidráulica y medioambiental.

La Junta llevaba un tiempo preocupada por dar una adecuada respuesta a tres necesidades, cuya resolución no podía seguir demorándose por más tiempo y que exigían una transformación del esquema de gestión anterior:

En primer lugar, era necesario intensificar y mejorar la relación institucional entre la Mancomunidad, los Ayuntamientos mancomunados y las restantes instituciones con competencias y responsabilidades en materia hidráulica (Diputación Foral, Gobierno Vasco, Administración Central, Unión Europea).

En segundo lugar, la Mancomunidad tenía ante sí un gran reto: responder adecuadamente a los requerimientos de gestión derivados de la construcción y puesta en servicio del Esquema General de Saneamiento y todas sus infraestructuras anejas (colectores, estaciones de bombeo, EDAR, emisarios terrestre y submarino), fueran éstas construidas íntegramente por el Añarbe, o en colaboración con otras Administraciones o entidades, o recibidas de otros agentes inversores,

230 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1995.09.20).

pertsona horrek esperientzia zabala izan behar zuen arlo hidraulikoan eta ingurumenekoan.

Batzordeak denbora zeraman kezkatuta aurreko kudeaketa-eskema aldatzea eskatzen zuten hiru beharri erantzun egokia emateaz, eta horiek ebaztea ezin zen gehiago luzatu:

Lehenik eta behin, beharrezkoa zen Mankomunitatearen, udal mankomunitatuen eta arlo hidraulikoan eskumenak eta erantzukizunak dituzten gainerako erakundeen arteko harreman instituzionala areagotzea eta hobetzea. Erakunde horiek ziren Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Administrazio Zentrala eta Europar Batasuna.

Bigarrenik, Mankomunitateak erronka handi bat zuen aurrean: behar bezala erantzutea Saneamendu Eskema Orokorra eta hari erantsitako azpiegitura guztiak (kolektoreak, ponpatze-estazioak, Hondakin Uren Araztegia, lehorreko eta urpeko hustubideak) eraikitzearen eta zerbitzuan jartzearen ondoriozko kudeaketa-eskakizunei, haiek Añarbek osorik eraikiak izan, beste administrazio edo erakunde batzuekin lankidetzan eraikiak izan, nahiz beste eragile inbertitzaile batzuegandik jasotakoak izan —Añarberen ondoriozko ekarpenarekin: lurzorua kudeaketa, baimenak, irizpide eta definizio teknikoak, etab.—.

Hirugarrenik, ziklo hidrauliko osoaren ustiapena eta mantentze-lanak kudeaketa-erakunde bakar batean (AUSA) integratzea, honako hauen transferentziaren, ustiapenaren eta kudeaketaren bidez: goi-saneamenduko udal-instalazioak, goi-ustiapenean hornitzeko geratzen diren instalazioak, Urumea Ibaiko Kolektorearen Erabiltzaileen Komunitatea (CUCRU) eta goi-ustiapen munizipala, abonatuaren kudeaketa barne.

El protagonismo de la Junta de la Mancomunidad se fue diluyendo, en parte, a favor de un órgano más reducido: el Consejo de Administración

con la consiguiente aportación del Añarbe, gestión de suelo, autorizaciones, criterios y definiciones técnicas, etc.

En tercer lugar, alcanzar la integración en un solo ente de gestión -AGASA- de la explotación y mantenimiento de la totalidad del ciclo hidráulico, mediante la transferencia, asunción de la explotación y gestión de las instalaciones municipales de saneamiento en alta, las pendientes de abastecimiento en alta, la Comunidad de Usuarios del Colector del Río Urumea (CUCRU), y la explotación municipal en baja, incluyendo la gestión de abonados.

La Junta de la Mancomunidad seguía constituyéndose a partir de las elecciones municipales y forales. En 1995, tras su última remodelación quedó constituida por 17 miembros, y presidida por el alcalde de Donostia/San Sebastián, Odón Elorza González, y su vicepresidente, José Ignacio Liceaga Sagarzazu, junto a los representantes de los diez Ayuntamientos miembros. La pluralidad guipuzcoana quedó reflejada en esta primera Junta, en la que la gestión se derivaría hacia AGASA, contando con miembros de los grupos políticos PSE-PSOE (6 junteros), EA (4 junteros), PNV (3 junteros), HB (3 junteros) y PP (1 juntero).



Odón Elorza eta Enrique Noain (2003).

Odón Elorza y Enrique Noain (2003).

Mankomunitatearen Batzarrak udal- eta foru-hauteskundeetatik aurrera eratzen jarraitu zuen. 1995ean, azken birmoldaketaren ondoren, 17 kidek osatu zuten, Odon Elorza Gonzalez Donostiako alkatea eta Jose Ignacio Liceaga Sagarzazu presidenteordea buru zirela, hamar udal kideetako ordezkariekin batera. Gipuzkoako aniztasuna lehen batzar horretan islatu zen. Kudeaketa AUSAra bideratu zen, talde politiko hauetako kideak bilduta zeuden: PSE-PSOE (6 batzarkide), EA (4 batzarkide), EAJ (3 batzarkide), HB (3 batzarkide) eta PP (1 batzarkide).

Mankomunitateak Administrazio Kontseilua aukeratu zuen. Estatutuetakoa aurreikuspenen arabera, bederatzi kidez osatuta zegoen, Mankomunitateko presidentea buru zela. Lehenengo kideak hauek izan ziren<sup>231</sup>:

- **Presidentea:** Odon Elorza Gonzalez
- **1. presidenteordea:** Martin Elizasu Orbegozo
- **2. presidenteordea:** Juan Ignacio Gurruchaga Iztueta
- **Kideak:** Ramon Uribe Zabalo  
Miguel Angel Buen Lacambra  
Ana Urchueguia Asensio  
Jose Ignacio Liceaga Sagarzazu  
Xabier Irigorri Gamio

Odon Elorzak 4 urtez Mankomunitatean izandako esperientzia zuen abiapuntu. Denbora hori nahikoa zuen ur-banaketaren kudeaketan eta saneamenduaren soluzioan sakoneko aldaketak egitea zein premiazkoa zen jakiteko:

*Beraz, udal guztiek, eta alderdi politiko guztiek, Herri Batasunatik PPra, EAJtik, EAtik eta abarretatik pasatuz, ikuspegi bikain hori izan zuten, eta, egia esan, ni "Añarbeko Mankomunitateko" presidente izan nintzen hogeitun urteetan zehar ez zen inolako zailtasunik egon, inolako tentsiorik.* (E 4 Odon Elorza)

Laurtekoaren lehen etapan, gainera, Juan Santos Lopez Anton Mankomunitateko idazkariaren ordezkapena izan zen, erretiroa hartu baitzuen, eta Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga Donostiako Udaleko idazkari berriak ordezkatu zuen. Era berean, Fernando Marco Hualde Mankomunitateko kontu-hartzailea ordezkatu zuen Julian Ortiz Arruabarrena Donostiako Udaleko kontu-hartzaileak. 1996ko azaroaren 18an, AUSAren presidentetza aldatzeko asmoz, dimisioagatik baja eman zuen kontseilari-postuan Bixen Itxaso Gonzalez Pasaiaiko alkateak —Mankomunitatearen Batzarkide

La Mancomunidad eligió el Consejo de Administración, compuesto, de acuerdo con las previsiones estatutarias, de nueve miembros, presididos por el Presidente de la Mancomunidad. Sus primeros integrantes fueron<sup>231</sup>:

- **Presidente:** Odón Elorza González
- **Vicepresidente 1º:** Martín Elizasu Orbegozo
- **Vicepresidente 2º:** Juan Ignacio Gurruchaga Iztueta
- **Vocales:** Ramón Uribe Zabalo  
Miguel Angel Buen Lacambra  
Ana Urchueguía Asensio  
José Ignacio Liceaga Sagarzazu  
Xabier Irigorri Gamio

Odón Elorza partía de su experiencia durante 4 años al frente de la Mancomunidad, tiempo suficiente para saber lo urgente que era introducir cambios de calado en la gestión de la distribución de aguas y la solución del saneamiento:

*Así que, todos los ayuntamientos componentes, y todos los partidos políticos, desde Herri Batasuna hasta el PP, pasando por PNV, EA, etc., tuvieron esa excelente visión y la verdad es que a lo largo de los veinte años que estuve yo como presidente de "Añarbe Mancomunidad", no hubo ninguna dificultad, ninguna tensión."* (E 4 Odón Elorza)

En la primera etapa del cuatrienio se produce además el relevo, por jubilación, del Secretario de la Mancomunidad, Juan Santos López Antón, que es sustituido por el nuevo Secretario del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, así como el del Interventor de la Mancomunidad, Fernando Marco Hualde, que es sustituido por Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor, así mismo, del Ayuntamiento donostiarra. El 18 de noviembre de 1996, y con objeto de efectuar el cambio de presidencia de AGASA se produce la baja por dimisión de su puesto de consejero del alcalde de Pasaia, Bixen Itxaso González que continúa como juntero de la Mancomunidad, y el nombramiento como consejero de Enrique Noain Cendoya<sup>232</sup>.

En la sesión de la Junta de la Mancomunidad del 18 de noviembre de 1996, se produjo el nombramiento como consejero de Enrique Noain Cendoya<sup>233</sup>. En el Consejo de Administración celebrado el 18 de diciembre de

231 Añarbeko Urak, 1999. 2-3. or.

231 Aguas del Añarbe, 1999, pp. 2-3.

232 Aguas del Añarbe, 1999, p. 3.

233 Acta de la Junta de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 18.11.1996.

## Mankomunitatearen Batzarrak 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Enrique Noain Cendoya izenatu zuten kontseilari

gisa jarraitu zuen—, eta Enrique Noain Cendoya izen-  
datu zuten kontseilari<sup>232</sup>.

Mankomunitatearen Batzarrak 1996ko azaroaren  
18an egindako bilkuran, Enrique Noain Cendoya izen-  
datu zuten kontseilari<sup>233</sup>. Administrazio Kontseiluak  
1996ko abenduaren 18an egindako bilkuran, azken hori  
AUSAko lehendakari izendatu zuten Odon Elorzaren  
ordez<sup>234</sup>. Hala, Elorzak uko egin zion enpresako Admi-  
nistrazio Kontseiluko presidente-karguari, eta Manko-  
munitateko presidentetzari eutsi zion. Kargu horretan,  
har proposatuta, Enrique Noain Cendoya sailburuak or-  
dezkatu zuen. Aldaketa horretatik aurrera, titularraren  
profila dedikazio eskusiboko eta kudeaketaren berez-  
ko zereginen arduratutako profesional batena izango  
litzateke.

*“Pertsonalki ezagutzen nuen, harekin zuzenean lan  
egin nuelako, nik alkate gisa eta hark Borrell ministroa-  
ren taldeko zuzendaritzako kide gisa. Aldundian egon  
zen lehenago, gero Borrellekin, Konfederazio Hidrogra-  
fikoan. Profil tekniko aparta zuela iruditzen zitzaidan,  
eta denborak baieztatu egin zuen, hogeita bat urte egon  
baitzen. Nire ustez, Añarbeko Mankomunitate honen in-  
bertsio handiek eta azterketa-erabaki handiek gizon hau  
izan dute ardatz (E 4. Odon Elorza).*

Enrique Noain, Irungo arkitektoa, Madrilen hezi  
zen, erabateko irakinaldi politikoan, eta bertan be-  
reganatu zuen bere bizitza profesionalean askotariko  
pertsona eta erakundeekin konektatzeko aukera eman-  
go zion profil aldi berean politiko eta teknikoaren kon-  
binazio hori. Irungo Udaleko PSOEko zinegotzi inde-  
pendente gisa, Hirigintza arloa hartu zuen bere gain  
1987an, frankismotik jasotako Plan Orokorra berritze-  
ko. Plan horrek Irun 300.000 biztanleko hiri bihurtzea  
aurreikusten zuen, desarrollismoaren garai betean  
planteatuta. Haren agintepean aduana-eremua birmol-  
datzeari ekin zitzaion, egungo Zaisa eremu ekonomikoa

## En la sesión de la Junta de la Mancomunidad del 18 de noviembre de 1996, se produjo el nombramiento como consejero de Enrique Noain Cendoya

1996 se nombra a este último Presidente de AGASA, en  
sustitución de Odon Elorza<sup>234</sup>. Elorza renunciaba así a  
su cargo de Presidente del Consejo de Administración  
de la empresa, manteniendo la Presidencia de la Man-  
comunidad, y siendo sustituido como propuso en tal  
cargo por el Consejero Enrique Noain Cendoya. A partir  
de ese cambio, el perfil del titular sería el de un pro-  
fesional con dedicación exclusiva y encargado de las  
tareas propias de la gestión.

*“Le conocía personalmente, por haber trabajado  
con él directamente, yo como Alcalde y él como miem-  
bro directivo del equipo del ministro Borrell. Estuvo en  
la Diputación antes, luego con Borrell, la Confederación  
Hidrográfica, y me parecía que era un hombre de perfil  
técnico excepcional, y el tiempo lo confirmó por su estan-  
cia de veintidós años. Creo que ha sido un hombre sobre  
el que han pivotado las grandes inversiones, las grandes  
decisiones de estudio de esta Mancomunidad de Añarbe”  
(E 4. Odon Elorza)*

Enrique Noain, arquitecto irunés, formado en Ma-  
drid en plena efervescencia política y donde adquirió  
esa combinación de perfil a la vez político y técnico  
que le permitiría en su vida profesional conectar con  
personas e instituciones diversas. Como concejal inde-  
pendiente del PSOE en el Ayuntamiento de Irún, asumió  
el área de Urbanismo en 1987, con objeto de renovar  
el Plan General heredado del franquismo que contem-  
plaba la conversión de Irún en una ciudad de 300.000  
habitantes, planteado en plena época del Desarrollis-  
mo. Bajo su mandato se acometió la reconversión de  
la zona aduanera para su conversión en la actual área  
económica de Zaisa. En esa época, el Departamento  
de Vivienda del Gobierno Vasco, dirigido por el socia-  
lista José Miguel Martín, lo contrató como asesor. La  
Consejería de Vivienda le encomendó la creación de la  
Sociedad Pública de Vivienda, VISESA. A partir de las  
elecciones locales y forales de 1991, además de repetir  
como concejal delegado de Urbanismo en Irún, el Dipu-  
tado socialista Guillermo Echenique lo llamó para que  
ocupase como diputado la cartera de nueva creación de

232 Añarbeko Urak, 1999, 3. or.

233 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1996.11.18).

234 Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietatearen Administrazio  
Kontseiluaren akta (1996).

234 Acta del Consejo de Administración de la sociedad Aguas del Añarbe-  
Añarbeko Urak, S.A. (1996)

bihurtzeko. Garai hartan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, Jose Miguel Martin sozialistak zuzenduta, aholkulari gisa kontratatu zuen. Etxebizitza Sailak VISESA etxebizitza-sozietate publikoa sortzeko ardura eman zion. 1991ko udal- eta foru-hauteskundeetatik aurrera, Irungo Hirigintzako zinegotzi ordezkari gisa errepikatzeaz gain, Guillermo Echenique diputatu sozialistak deitu zion Obra Hidraulikoetako eta Ingurumeneko sail eratu berria diputatu gisa bete zezan. Garai hartan, abian zegoen Saneamendu Estazioen Plan Integrala.

Ondoren, Josep Borrell Herri Lan, Garraio eta Ingurumeneko ministroaren taldean sartu zen<sup>235</sup>. Tajoko Konfederazio Hidrografikoa zuzentzera igaro zen, eta beste erakunde garrantzitsu bateko (Canal de Isabel II erakundeko) kontseilari izendatu zuten, non ministerioak ordezkari zuten. 1996ko hauteskunde orokorretan PSOEk huts egin eta Alderdi Popularra Gobernura iritsi ondoren, Isabel Tocino Ingurumeneko ministro berriak Enrique Noain kargugabetzea erabaki zuen (erabakia 1996ko uztailaren 6ko BOEn argitaratu zen)<sup>236</sup>.

Egoera baliatuz, Odon Elorzak, Mankomunitateak aurre egin beharreko erronka handiengatik kezkatuta, AUSAko zuzendaritza eskaini zion. Estatuaren finantzaketa lortu zen, saneamenduaren arazoari aurre egiteko Europak emandako laguntza handiarekin, araztegiarekin eta urpeko hustubidearekin. Mankomunitateko udalerrriak ordezkatzeko zituzten politikariak inork baino hobeto zekiten zer-nolako erronka zuten aurrean, batzarkide eta, batez ere, udal-ordezkari gisa<sup>237</sup>.

*“Orduan, kudeaketa asko egin behar izan ziren, bulego-ordu asko, itzarote-ordu asko Madrilgo ministerioetan, Donostiak eta, oro har, Mankomunitateak behar zituzten jarduketak handien finantzaketa lortzeko. Hala ere, jarduketak zati handi bat (bereziki, araztegia) Donostian egin zen. Madrilerako bidaia-egun asko eta asko izan ziren, ziklo integraleko inbertsio, biltegi eta eroanbideen zerrenda horri eta Hondakin Uren Araztegiari dagozkien jarduketak finantzaketa lortzeko.*

*Lehenengoa Uliako urpeko hustubidea egikaritzea izan zen. Askok interesatzen zitzaigun hori bizkortzea, Zurriola hondartzako uren kalitate-maila bermatzeko, hori ere jarduketa berri bat izan baitzen. Estatuaren funtsak eskuratu ahal izan ziren. Hori ere, neurri handi batean, Europatik zetozen. Europako funtsak ziren.*

Obras Hidráulicas y Medio Ambiente. En aquel entonces, estaba en marcha el Plan Integral de Estaciones de Saneamiento.

Posteriormente entró a formar parte del equipo del Ministro de Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente Josep Borrell<sup>235</sup>. Pasó a dirigir la Confederación Hidrográfica del Tajo, y fue nombrado consejero de otro organismo importante, el Canal de Isabel II, en el que el ministerio tenía representación. Tras la derrota electoral del PSOE en las elecciones generales de 1996 y la llegada al Gobierno del Partido Popular, la nueva Ministra de Medio Ambiente Isabel Tocino, decidió el cese de Enrique Noain, que se publicó en el BOE del 6 de julio de 1996<sup>236</sup>.

Odón Elorza, preocupado por los grandes retos que debía afrontar la Mancomunidad, aprovechó para ofrecerle la dirección de AGASA. Se había conseguido la financiación del Estado, con una importante ayuda europea para acometer el problema del saneamiento, con la depuradora y el emisario submarino. Los políticos que representaban a los municipios de la Mancomunidad sabían mejor que nadie cuál era el reto que tenían en frente, como junteros y, sobre todo, representantes municipales que eran<sup>237</sup>.

*“Entonces hubo una necesidad de hacer muchas gestiones, muchas horas de despacho, de espera en los ministerios concernidos en Madrid, y para conseguir la financiación de las grandes actuaciones que necesitaba la ciudad de San Sebastián, y la Mancomunidad en conjunto, aunque donde se radicaron buena parte de las actuaciones, especialmente la estación depuradora, era en Donosti. Hubo días y días de viajes a Madrid para conseguir la financiación de distintas actuaciones correspondientes a ese listado de inversiones del ciclo integral, depósitos, conducciones, la EDAR.*

*La primera fue la ejecución del emisario submarino de Uliá, que nos interesaba mucho agilizar para garantizar el nivel de calidad de las aguas de la Playa de la Zurriola, que había sido una actuación también reciente. Se pudo contar con fondos del Gobierno del Estado, que en buena parte venían de Europa. Eran fondos europeos. Gestiones con la Confederación, gestiones con Hacienda, gestiones con el Ministerio de Fomento y Medio Ambiente.” (E 4. Odón Elorza)*

En este período de consolidación, la Mancomunidad tuvo que afrontar una serie de conflictos existentes

235 E 3. Enrique Noain.

236 Vid. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1996.07.06.

237 E 3.

235 E 3. Enrique Noain.

236 Vid. Boletín Oficial del Estado, 6.7.1996.

237 E 3.

*Konfederazioarekiko kudeaketak, Ogasunarekiko kudeaketak, Sustapen eta Ingurumen Ministerioarekiko kudeaketak*". (E 4 Odon Elorza)

Sendotze-aldi horretan, Mankomunitateak zenbait gatazkari aurre egin behar izan ziren presidentetza exekutibo berria etorri zenean. Gatazka horiek, kasu batzuetan, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-errekurtsoak jartzean gauzatu ziren, bai Mankomunitateak berak jarritakoak, bai, maizago, haren aurka jarritakoak. Erakundearen jarrera, oro har, negoziazioak hastea izan da, errekurtsuak eteten eta, ondoren, haietan atzera eginarazten saiatzeko: Astigarragak jarritako auzia Petritegiko Edateko Uren Araztegia eraikitzeke lizentzia ez ordaintzeagatik; Defentsa Ministerioak jarritako auzia Donostiako Plan Orokorren aurka, Hondakin Uren Araztegia okupatzen ari zelako "defentsa nazionala" (jabari publiko ukiezina) deritzonari eragiten zioten lursail batzuk; edo Mankomunitateak Hernaniko Udalaren aurka jarritako auzia, Añarberi ordaindu behar zitzaizkion ur-tarifak ez ordaintzeagatik edo ordainketan atzeratzeagatik. Bestalde, udalerrri batzuek OHZ kobratzen zioten Mankomunitateari; beste batzuek, ordea, ez.

Elkarrizketari ekiteko eta gatazka negoziatioaren bidez konpontzen saiatzeko politika horrek emaitza onak izan zituen honako hauetan: Defentsa Ministerioak Mankomunitatearen aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Santa Katalina eta Herre-rako kolektoreen proiektuak onartzeari dagokionez; Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzen duen Foru Arauaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Loiolako Hondakin Uren Araztegia ezartzeari dagokionez; Pasaiako Portuko Agintaritzak Mankomunitatearen aurka jarritako beste administrazioarekiko auzi-errekurtso bat, Herrera-HUA kolektorearen proiektua onartzeari dagokionez; Mankomunitatearen kasazio-errekurtso bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Astigarragan Petritegiko Hondakin Uren Araztegia eraikitzeagatik tasak ordaintzeari buruz emandako epaiaren aurka, Mankomunitateak atzera egiteagatik; Añarbeko hornidura-sisteman enplegatutako Pridesa enpresako langile kontratatuek beren antzintasuna aitortzeko planteatutako langatazkaren aurreabisua gainditzea, negoziatio bidez gainditua; eta, azkenik, Hernaniko Udalarekin negoziatioa Mankomunitatearen erabakiaren aurka hark aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (berandutze-interesen kobrantza baliogabetzekoa, uraren hiru hilean behingo tarifak Mankomunitateari ordaintzeko atzerapenagatik ezarritakoa).

Mankomunitatean aspalditik zegoen beste gatazka txiki batek zerikusia zuen erakunde mankomunitateak Mankomunitateari eskatzen dizkioten OHZren eta

al advenimiento de la nueva Presidencia ejecutiva, que, en algunos casos, se habían concretado en la interposición de recursos jurisdiccionales de carácter contencioso-administrativo, bien interpuestos por la propia Mancomunidad, o, más frecuentemente, interpuestos contra ella. La postura de la entidad generalmente ha sido la de entablar negociaciones, para intentar la suspensión, y posteriormente, el desistimiento de los recursos: el pleito que tenía interpuesto Astigarraga por el impago de la licencia para construir la ETAP de Petritegi; el pleito del Ministerio de Defensa contra el Plan General de Donostia/San Sebastián porque la EDAR estaba ocupando unos terrenos que afectaban a la llamada "defensa nacional", un dominio público inviolable; o el pleito de la Mancomunidad contra el Ayuntamiento de Hernani, por impago o retrasos en el pago de las tarifas de agua que debían abonarse a Añarbe. Por otro lado, algunos municipios cobraban el IBI a la Mancomunidad, mientras otros no lo hacían.

Esa política de entablar conversaciones e intentar resolver el conflicto mediante la negociación dio resultados satisfactorios en el recurso contencioso-administrativo del Ministerio de Defensa contra la Mancomunidad en relación con la aprobación de los proyectos de colectores de Santa Catalina y Herrera; en el recurso contencioso-administrativo contra la Norma Foral aprobatoria del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia/San Sebastián, en relación con la implantación de la EDAR de Loiola; otro recurso contencioso-administrativo de la Autoridad Portuaria de Pasajes contra la Mancomunidad, en relación con la aprobación del proyecto de colector Herrera- EDAR; un recurso de casación de la Mancomunidad contra sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en relación con el abono de tasas por la construcción de la ETAP de Petritegi en Astigarraga, por desistimiento de la Mancomunidad; superación del preaviso de conflicto laboral planteado por los trabajadores contratados de la empresa Pridesa empleados en el sistema de abastecimiento del Añarbe para el reconocimiento de su antigüedad, superado mediante negociación; y, finalmente, negociación con el Ayuntamiento de Hernani el recurso contencioso-administrativo planteado por éste contra el acuerdo de la Mancomunidad anulando el cobro de intereses de demora por el retraso en el abono a la misma de las tarifas trimestrales de agua.

Otro de los conflictos latentes de carácter menor en la Mancomunidad desde hacía tiempo, era el del devengo del I.B.I. y otras tasas e impuestos locales exigidos a la Mancomunidad por las instituciones mancomunadas. A partir de 1995 se puso de manifiesto el problema derivado del cobro del I.B.I. a la Mancomunidad por los Ayuntamientos miembros, en relación con los terrenos ocupados por las infraestructuras

tokiko beste tasa eta zerga batzuen sortzapenarekin. 1995etik aurrera, agerian jarri zen kide ziren udalek Mankomunitateari OHZ kobratzearen ondoriozko arazoa, hornidura- eta saneamendu-azpiegitura hidraulikoek okupatutako lursailekin lotutakoa. Mankomunitateak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan errekurtsioak jartzen zituen kide ziren udal batzuetatik iristen zitzazkion kobrantza-espeditenteen aurka, baina gaiak eztabaida zabala sortu zuen, bai Mankomunitatearen Batzarrean, bai Administrazio Kontseiluan, bai gaia aztertzeke berariaz sortutako lantaldean. Gehiengoaren iritzia gatazka hori formularen baten bidez gainditzearen aldekoa zen. Formularen horren bitartez, galarazi behar zen Mankomunitateari igortzea eta kobratzea bai OHZ, bai tokiko beste tasa eta zerga batzuk, berez uren arloko udal-eskumena bera ordezkatzuz Mankomunitateak egiten zituen jarduera batzuegatik. Horretarako, zegokion foru-araua aldatzea eskatu zen, Mankomunitatea zerga-karga horietatik salbuesteko, eta Mankomunitatearen beraren estatutuak aldatzea planteatu zen, Mankomunitateko udal kideek kobrantza horiei uko egin diezaieten<sup>238</sup>.

Erakundeak aurrean zituen erronkei ekiteko, Mankomunitateko plantilla indartu behar zen, une horretan hamabi enplegatu propioekin funtzionatzen baitzuen (presaren kudeatzailea, arduraduna eta zaindaria; Administrazio Arloan lau pertsona; Hornidura Arloan bi; eta Kalitate Kontrolaren Arloan beste hiru). Azken etapa horretan Añarbeko Mankomunitatearen inbertsio nagusiak saneamenduaren arloan egiten ari baziren ere (Saneamendu Eskema Orokorra eraikitzea), hornidurari dagokionez ere hainbat inbertsio-ekintza jarri ziren abian. Ekintza horiek bideratuta zeuden udalerrri mankomunatuetakoko goi-hornidurako sistemak amaitzera (hala nola IV. hornidura-adarra), edo zeuden azpiegiturak arrazionalizatzen, eta Añarbeko kalitatezko uraren bidezko hornidura zabaltzera oraindik kalitate txikiagoko hornidura-iturrietatik ura jasotzen zuten biztanle-guneetara.

hidráulicas de abastecimiento y saneamiento. Si bien la Mancomunidad venía recurriendo ante la jurisdicción contencioso-administrativa los expedientes cobratorios que le llegaban desde algunos de los Ayuntamientos miembros, la cuestión generó un amplio debate, tanto en la Junta de la Mancomunidad como en el Consejo de Administración y en el grupo de trabajo creado específicamente para tratar el tema. La opinión mayoritaria era partidaria de la superación de este conflicto mediante una fórmula que impidiera el giro y el cobro, tanto del I.B.I., como de otras tasas e impuestos locales a la Mancomunidad por el desempeño de unas actividades que, en realidad, llevaba a cabo en sustitución de la propia competencia municipal en materia de aguas. Para ello se solicitó la reforma de la correspondiente Norma Foral que eximiera a la Mancomunidad de esas cargas tributarias, y se planteó una reforma de los estatutos de la propia Mancomunidad por la que los Ayuntamientos miembros renunciasen a esos cobros<sup>238</sup>.

Para afrontar los retos a los que se debía enfrentar la entidad, debía reforzarse la plantilla de la Mancomunidad, que en ese momento funcionaba con doce empleados propios (Gerente, Encargado y guarda de la Presa, cuatro personas en el Área Administrativa, dos en el Área de Abastecimiento, y otras tres en el Área de Control de Calidad). Si bien las inversiones principales de la Mancomunidad del Añarbe venían efectuándose en esta última etapa en materia de saneamiento (construcción del Esquema General de Saneamiento), también en materia de abastecimiento se pusieron en marcha diferentes acciones inversoras dirigidas a la terminación de los sistemas de abastecimiento en alta de los municipios mancomunados, como por ejemplo el Ramal IV de abastecimiento, o la racionalización de las infraestructuras existentes, y a la extensión del suministro con agua de calidad del Añarbe a aquellos núcleos de población aún surtidos con fuentes de suministro de inferior calidad.

238 Añarbeko Urak, 1999. 6. or.

238 Aguas del Añarbe, 1999, p. 6.



Loiolako araztegiko Laborategia eta ondoan Petritegiko EUTEko birmineralizatzeko eraikina (2001).

Laboratorio de la EDAR de Loiola y a la derecha, Edificio de remineralización de la ETAP Petritegi (2001).



## HORNIDURA, SANEAMENDU ETA ARAZKETAKO SISTEMA INDARTZEA ETA UR-ESKARIAREN BEHERAKADA

Hondakin-uren laborategia ere sortu zen. Hasiera batean, Petritegiko Edateko Uren Araztegi muntatu zen —lehendik zegoen edateko urena osatzeko—. Hura funtzionamenduan jartzeko behar ziren altzariak, ekipa analitikoak, ekipa informatikoak, material osagarria eta suntsikorak jarri ziren, eta lur orotako ibilgailu bat erosi zen laginketa-lanetan erabiltzeko. Jarduerari lehenbailehen ekiteko, bi analistak eta lagin-hartzaile batek osatu zuten taldea behin-behinean. Edateko uren laborategiari dagokionez, haren jardura perfektionatzen eta hobetzen jarraitzeko, EN 45000 kalitate-araua ezarri zen. Horrek eskatzen zuen laborategiaren jardun-protokolo guztiak kodetzea eta normalizatzea, eta aurrerantzean ahalbidetuko zuen laborategia uren analisirako zentro ofizial gisa akreditatzea. Gainera, 7 milioi pezeta inbertitu ziren laborategiko analitika-eta dokumentazio-lanak neurri batean automatizatzen zituen programa informatiko bat garatzeko. Bertako langileak perfektionatzen eta birziklatzen ere inbertitu zen.

Horniduraren arloan, Petritegiko Edateko Uren Araztegi hobetzeko inbertitu zen. Edateko Uren Araztegi urak birmineralizatzeko sistema oso bat ezartzean zetzan eragiketa hori, sistema horri kalitate gorena emanda. Orobat, hodi metalikoen korrosioa saihesten zen. 230 milioi pezetako lizitazio-aurrekontua zuen.

## EL FORTALECIMIENTO DEL SISTEMA DE ABASTECIMIENTO, SANEAMIENTO Y DEPURACIÓN Y EL DESCENSO DE LA DEMANDA DE AGUA

También, se creó el Laboratorio de aguas residuales, que inicialmente se montó en la ETAP de Petritegi, para complementar al ya existente de aguas potables. Se dotó del mobiliario, equipos analíticos, equipos informáticos, material auxiliar y fungibles necesarios para su funcionamiento; y se adquirió un vehículo todoterreno para su utilización en las labores de muestreo. Para iniciar cuanto antes su actividad, quedó provisionalmente compuesto por dos analistas y un muestreador. Respecto al laboratorio de aguas potables y continuando con el perfeccionamiento y mejora de su actividad, se procedió a implantar la norma de calidad EN 45000, lo que implicaba la codificación y normalización de todos los protocolos de actuación del laboratorio, y permitiría en adelante la acreditación del laboratorio como centro oficial de análisis de aguas. Además, se invirtieron 7 millones de pesetas para desarrollar un programa informático que automatizaba en parte las labores de analítica y documentación del laboratorio. Invirtiendo también en el perfeccionamiento y reciclaje del personal del mismo.



Lastaolako gaur egungo zentral hidroelektrikoa eta Beheko Kanalaren alternatibaren etorkizuneko ponpaketa-estazioa.

Actual Central hidroeléctrica de Lastaola y futura estación de bombeo de la Alternativa al Canal Bajo.



Era berean, ezin dugu aipatu gabe utzi Pasaia-ko badia - Abrin II sistemaren inguruneko hornidura (Errenteria). Obra hori bideratuta zegoen Abrin I sistema zaharra partzialki berritzeri eta hura osatu eta zabaltzera, hau da, zenbait biltegi eta ponpatze-estazio handitzera, zegozkien bulkadekin. Obrak 588 milioi pezetako aurrekontua zuen. Halaber, Pasaia-ko badiaren inguruneko horniduran hobekuntzak egin ziren, Pasaia-ko udalerriko (Donibane, Antxo, San Pedro) sektoreen hornidura osatu eta hobetzera bideratutako inbertsio baten bidez, hura Añarbeko kalitatezko urez hornituta. Gainera, beste adar eta EUPE edateko uren ponpatze-estazio bat eraiki ziren, Oiartzungo biltegi nagusia Añarbeko kalitatezko urez hornitzeko. Donostiako eta Astigarragako landa-eremuek esparru horien hornidura hobetu zuten, Oriabenta eta Putzuetako biltegiak (Donostia) birmoldatuta, Putzuetako biltegitik sare berri bat ezarrita eta bi biltegiak hobetu eta sendotuta.

Beheko Kanala funtsezko arteria da Petritegiko (Astigarraga) Añarbeko Edateko Uren Araztegiraino ur gordina eramateko. Hori dela eta, haren kontserbazio-eta mantentze-egoera eta haren alternatiba bat aurkitzeko aukera izan dira AUSAren kezkarik handiena, horniduraren bermeari eta segurtasunari dagokienez. Horri dagokionez, Administrazio Kontseiluaren 1996ko abenduaren 18ko bileran, ezpondak sendotzeko lehen ekintza bat egikaritzea onartu zen. Obrak 1997ko martxoaren 21ean adjudikatu ziren, eta urte bereko urriaren 2an likidatu ziren, 35,4 milioi pezetako zenbatekoaz. Ildo beretik, aurretiaz Beheko Kanalaren egoerari eta ezaugarriei buruzko azterketa eginik, Kontseiluak 1999ko martxoaren 26an adjudikatu zuen *Beheko Kanalerako alternatibei buruzko behin betiko*


En materia de abastecimiento, se invirtió en la mejora de la ETAP de Petritegi. Operación que consistía en la implantación en la ETAP de un completo sistema de remineralización de las aguas, dotándola de la más alta calidad, a la vez que se evitaba la posible corrosión de las tuberías metálicas. Con un presupuesto de licitación de 230 millones de pesetas.

Tampoco podemos dejar de mencionar el abastecimiento en el entorno de la Bahía de Pasaia-Sistema Abrín II (Errenteria), obra destinada a renovar parcialmente y a completar y extender el antiguo Sistema Abrín I, consistente en la ampliación de distintos depósitos y estaciones de bombeo, con sus correspondientes impulsiones, con un presupuesto de 588 millones de pesetas. También se realizaron mejoras en el abastecimiento del entorno de la Bahía de Pasaia, con una inversión que estaba destinada a completar y mejorar el abastecimiento de los diferentes sectores del municipio pasaitarra (Donibane, Antxo, San Pedro), dotándolo en su integridad de agua de calidad del Añarbe. Además, se procedió a la construcción de un nuevo ramal y EBAP (Estación de bombeo de agua potable), para dotar de agua de calidad Añarbe al depósito central de Oiartzun. Las zonas rurales de Donostia/San Sebastián y Astigarraga vieron mejorar el abastecimiento de esos ámbitos, con la remodelación de los depósitos de Oriabenta y Putzueteta (Donostia/San Sebastián), mediante el tendido de una nueva red a partir del depósito de Putzueteta, así como la mejora y consolidación de los dos depósitos.

En la medida en que el Canal Bajo constituye la arteria fundamental para la aducción de agua bruta hasta la ETAP del Añarbe en Petritegi (Astigarraga), su

## Kontsumoaren bilakaera (1994-2022)

### Evolución del consumo de agua (1994-2022)



*azterketa*, eroanbide horretarako ordeko irtenbide bat izatea ahalbidetuko zuena. Alternatiba zen Urumean EUPE edateko uren ponpatze-estazio bat eta Petritegiko Edateko Uren Araztegitirainoko eroanbide berri bat eraikitzea (oraindik egikaritu gabe dagoen berebiziko garrantzizko proiektua).

Uraren kontsumoari dagokionez, ur-eskariak behe-  
ra egin du etengabe azken hamarkadetan. Petritegiko Edateko Uren Araztegitik hamar udal kideetara zerbitzatutako ur-bolumenak aldatu egin dira historikoki, udalerrri batzuen eta besteen sisteman sartu izanaren, banaketa-azpiegitura bera eraikitzearen eta abarren arabera. Zerbitzu-bolumena maximoa izan zen 1994ko ekitaldian: 42,18 milioi m<sup>3</sup>. Orduetik, kontsumoak murriztu egin dira, hainbat faktore direla eta:

- Biztanleriaren hazkundearen geldialdia, eta are zenbait udalerritan izandako beherakada txikia.
- Añarbek eta kide diren zenbait udalek lortutako galeren murrizketa handia, neurri hauei esker: egindako inbertsioak (biltegiak birgaitzea, hodiak berritzea, etab.), ihesak detektatzeko kanpainak, azpiegituren ustiapen hobea, iturri apaingarriak zirkuitu itxi gisa birgaitzea, etab.
- Industriak ixtea, batzuk bereziki zaharkituak, eta berrietan eta lehendik daudenetako batzuetan sistema itxiak eta uraren erabileran eragin-korragoak ezartzea.

estado de conservación y mantenimiento, y la posibilidad de encontrar una alternativa al mismo han constituido, en lo que a garantía y seguridad del suministro se refiere, la mayor preocupación de AGASA. A ese respecto, en el Consejo de Administración del 18 de diciembre de 1996 se aprobó la ejecución de una primera acción de consolidación de taludes. Las obras se adjudicaron el 21 de marzo de 1997 y se liquidaron el 2 de octubre del mismo año con un importe de 35,4 millones de pesetas. En este mismo sentido, y habiéndose llevado a cabo con anterioridad el estudio de la situación y características del Canal bajo, el Consejo procedió a adjudicar el 26 de marzo de 1999 el *Estudio definitivo de alternativas al Canal bajo*, que permitiría disponer de una solución alternativa para dicha conducción. La alternativa consistía en la construcción de una EBAP (Estación de bombeo de agua potable) en el Urumea y una nueva conducción hasta la ETAP de Petritegi, un proyecto de vital trascendencia que aún se encuentra sin ejecutar.

En relación con el consumo de agua, la demanda de agua ha vivido un continuo descenso en las últimas décadas. Los volúmenes de agua servidos desde la ETAP de Petritegi a los diez municipios miembros han venido históricamente oscilando en función de las incorporaciones al sistema de unos y otros municipios, de la construcción de la propia infraestructura de distribución, etc. El volumen servido conoció un máximo en el ejercicio 1994, con 42,18 millones de m<sup>3</sup>; desde entonces los consumos se han reducido, por diversos factores:



1992ko uztailean Petritegiko Edateko Uren Araztegiara egindako bisita. Bisita egin zuten Odon Elorza Mankomunitateko presidentek eta batzarkideek, eta Enrique Noain GFAko Obra Hidraulikoetako diputatuak (2.a ezkerretik hasita), 1996an AUSAko Administrazio Kontseiluko lehendakari izango zenak.

AUSAk banaketa-biltegien irteeran neurtzen ditu kontsumo gordinak, "muga-puntu" deitutakoetan, eta bertan fakturatzeko ditzkie kontsumo horiek ura behe-horniduran banatzen duten udalei. Hortik aurrera, kontuan izan behar da behe-sarean galerak izaten direla oraindik, eta udalek ez dute ur hori fakturatzeko. Banaketa-sareetako obrei esker ur gordinaren kontsumoa murrizten joan da, 1995ean 41.488.825 m<sup>3</sup> izatetik 2021ean 23.756.529 m<sup>3</sup> izatera igaro baita: % 40ko murrizketa 25 urtean. Horrek ekarri du baliabide naturalen erabilera optimizatzea eta hornidura-bermea areagotzea. Etorkizunerako aurreikuspenek nabarmentzen dute uraren kontsumoa pixkanaka murriztuko dela<sup>239</sup>.

Ekologistek salatzen zutenenez, hiri-sareek batez beste % 40ko galerak zituzten 90eko hamarkadan. Alabaina, Ur Hornidurako Enpresen Espainiako Elkarteak zioen hodian batez besteko galera % 20 eta % 25 artekoa zela. Frogatu zen zenbait hiritan gauez egindako mozketek ur-kontsumoaren beherakada nabarmena ekarri zutela. Erakunde ekologistek, hala nola CODAK (Hegaztien Defentsarako Koordinakundea) eta AEDENATEk (Naturaren Defentsarako Elkartea Ekologista), behin eta berriz esan zuten urtegiak eta ur-eramateak egitera bideratutako dirua beste azpiegitura batzuk (hala nola hornidura-hodi hondatuak) hobetzera edo sortzera bideratu behar zela<sup>240</sup>.

Visita realizada a la ETAP de Petritegi en julio de 1992. Realizan la visita el Presidente, Odón Elorza, y Junteros de la Mancomunidad, y el Diputado de Obras Hidráulicas de la DFG, Enrique Noain (2º empezando por la izquierda), el que será en 1996 Presidente del Consejo de Administración de AGASA.

- El estancamiento del crecimiento poblacional, e incluso el ligero descenso en algunos municipios.
- La fuerte reducción de pérdidas alcanzada tanto por Añarbe como por diversos Ayuntamientos miembros, mediante las oportunas inversiones (rehabilitación de depósitos, renovación de tuberías, etc.), campañas de detección de fugas, la mejora de la explotación de sus infraestructuras y la reconversión a circuito cerrado de fuentes ornamentales, etc.
- El cierre de industrias, algunas particularmente obsoletas, y la adopción en las nuevas, y en algunas de las existentes, de sistemas cerrados y más eficientes en el uso del agua.

Los consumos brutos son medidos y facturados por AGASA a la salida de los depósitos de distribución, los llamados "puntos de frontera", a los Ayuntamientos que distribuyen el agua en baja. A partir de ahí, hay que tener en cuenta que aún se producen pérdidas en la red en baja, es un agua que no facturan los Ayuntamientos. Las obras en las redes de distribución han ido disminuyendo el consumo de agua bruto, pasando de 41.488.825 metros cúbicos en 1995 a 23.756.529 m<sup>3</sup> en 2021, una reducción del 40% en 25 años. Lo que ha supuesto la optimización de la utilización de los recursos naturales existentes, aumentando la garantía de abastecimiento. Las previsiones para el futuro inciden en una progresiva reducción del consumo de agua<sup>239</sup>.

Según denunciaban los ecologistas, las redes urbanas tenían pérdidas de un 40% de media en los años 90. Sin embargo, la Asociación Española de Empresas de Abastecimiento de Agua reconocía una pérdida media de entre el 20% y el 25% en las cañerías. Los cortes nocturnos aplicados en varias ciudades habían demostrado un descenso significativo del consumo de agua. Organizaciones ecologistas como CODA (Coordinadora para la Defensa de las Aves) y AEDENAT (Asociación Ecologista de Defensa de la Naturaleza) insistían mucho en que el dinero destinado a hacer embalses y trasvases debía dirigirse a mejorar o crear otras infraestructuras, como las de las tuberías de abastecimiento deterioradas<sup>240</sup>.

239 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Artxiboa (AUMA): 2015-2020 bitarteko hainbat dokumentu.

240 *El País*, 1996.03.16.

239 Archivo de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe (AMAGA): documentos diversos del período 2015-2020.

240 *El País*, 16.3.1996.



## 50. URTEURRENEKO EKITALDIK

Mankomunitatearen sorreraren 50. urteurrena dela eta, 2018an zehar hainbat kirol-, kultura- eta dibulgazio-jarduera egin ziren uraren munduarekin lotuta.

Ekitaldirik ezagunena maiatzaren 12ko arratsaldean izan zen, Urumea ibaian, Donostian, "Añarbeko Bandera" traineru-estropada egin zenean. Estropada horretan, Gipuzkoako arraunketa-klub guztiek hartu zuten parte.

Urumea erreferentziatzko ibaia da Mankomunitatearentzat, bai edateko uraren hornidurari dagokionez (urtegia Añarbeko arroan dago, eta hori, aldi berean, Urumearen arroaren zati da), bai hondakin-uren saneamenduari eta arazketari dagokionez (arlotan egindako inbertsio handiek Gipuzkoako ibaietako ingurumena hobetzen lagundu dute, oro har, eta Urumea-koa, bereziki).

Estropada Urumean egin zenez, ikusleek oso gertutik jarraitu ahal izan zuten traineru onenen estropada baten ikuskizuna, Urumea ibaiaren bi ertzetatik, eta ontziak Maria Kristina zubiaren azpitik igarotzen ere ikusi ahal izan zituzten. Ekitaldiak bi proba izan zituen, emakumezkoen kategorian zein gizonezkoenak: lehenik eta behin, sailkatzeko "erlojupeko" bat jokatu zen. Jarraian, bi esprint-txanda jokatu ziren (sailkapeneko eta finalekoa).

Erlojupekoa 1.400 metro inguruko luzeran egin zen (700 metroko bi luze ziboga bakarrarekin), Mundaiz zubitik hasi eta Maria Kristina zubitik ibaian beheraino. Traineruak 60 segundoan behin atera ziren (lehenengo gizonezkoenak eta, ondoren, emakumezkoenak). 2017ko denboraldian kategorian bakoitzean lortutako sailkapen orokorraren alderantzizkoa izan zen irteera-ordena.

"Erlojupeko" proba amaitu ondoren, guztira 575 metro inguruko luzera izan zuten esprintek, Maria Kristina zubitik hasi eta Mundaiz zubitik ibaian beheraino. Lehenengo, sailkapeneko esprint-txanda bat egin zen kategorian bakoitzeko (gizonezkoena eta emakumezkoena). Traineruak hiru multzotan banatu ziren erlojupekoan lortutako denboren arabera. "Añarbe Bandera" estropadaren irabazleak izan ziren Hondarribia (gizonezkoetan) eta Pasai Donibane (emakumezkoetan).

Urteurrenaren ekitaldi instituzional nagusia ekainaren 14an izan zen, 19:30ean, Tabakaleran. Bertan bildu ziren Mankomunitatearen 50 urteen historia, zuzenean edo zeharka, idazten lagundu zuten protagonistak: erakundeetako ordezkariak, enpresa laguntzailerak, langileak, etab. 200 pertsona baino gehiago izan ziren ekitaldian. Bertan izan ziren Mankomunitateko



Traineruak Urumean bandera jokatzean.

Traineras en el Urumea durante la celebración de la bandera.



Maije Zelaia, Mankomunitateko presidentea, "Añarbe Bandera" estropadaren irabazleekin batera.

Maije Zelaia, Presidenta de la Mancomunidad, junto con a ganadores de la "Bandera Añarbe"



Tabakalerako ekitaldi instituzionalera bertaratutakoak.

Asistentes al acto institucional en Tabakalera.



## LOS ACTOS DEL 50 ANIVERSARIO

Con motivo de la conmemoración del 50 aniversario de la fundación de la Mancomunidad, a lo largo de 2018 se llevaron a cabo distintas actividades deportivas, culturales y divulgativas relacionadas con el mundo del agua.

El acto más popular tuvo lugar en la tarde del 12 de mayo cuando se celebró en el río Urumea en Donostia/San Sebastián la “Bandera de Añarbe”, una regata de traineras en la que participaron todos los clubes de remo guipuzcoanos.

Tanto desde el punto de vista del abastecimiento de agua potable (el embalse se encuentra en la cuenca del Añarbe, que a su vez forma parte de la cuenca del Urumea), como desde el punto de vista del saneamiento y depuración de las aguas residuales (las importantes inversiones en esta materia han contribuido a la mejora ambiental de los ríos guipuzcoanos en general y del Urumea en particular), el Urumea es un río de referencia para la Mancomunidad.

La celebración de la regata en el Urumea permitió a los espectadores seguir muy de cerca el espectáculo de una regata de las mejores traineras desde las dos márgenes del río Urumea e incluso pudieron ver pasar las embarcaciones por debajo del puente de María Cristina. El evento incluyó dos pruebas, tanto en la categoría femenina como masculina: en primer lugar, se disputó una “contra reloj” clasificatoria. A continuación, se disputaron dos tandas de sprint (clasificatoria y final).

La contra reloj se llevó a cabo sobre una longitud total de aproximadamente 1.400 metros (dos largos de 700 metros con una sola ciaboga), desde el puente de Mundaiz hasta aguas abajo del puente de María Cristina. Las traineras salieron cada 60 segundos (primero las masculinas y, a continuación, las femeninas); el orden de salida fue el inverso a la clasificación general obtenida en las correspondientes categorías de la temporada 2017.

Una vez finalizada la prueba “contra reloj” se disputaron los sprint sobre una longitud total de aproximadamente 575 metros desde el puente de María Cristina hasta aguas abajo del puente de Mundaiz. Primero se celebró una ronda de sprint clasificatoria por cada categoría (masculina y femenina). Las traineras se distribuyeron en tres grupos en función de los tiempos obtenidos en la contra reloj. Los ganadores de la “Bandera Añarbe” fueron Hondarribia en categoría masculina y San Juan (Pasai Donibane) en la femenina.

El principal acto institucional del aniversario se llevó a cabo el 14 de junio a las 19:30 h. en Tabakalera



Enrique Noain, Maije Zelaia eta Víctor Gascon omenaldian.  
Enrique Noain, Maije Zelaia y Víctor Gascón durante el homenaje.



Batzarraren bilkura Añarbeko presan.  
Sesión de la Junta en la presa de Añarbe.

presidente guztiak: Xabier Albistur, Odon Elorza, Nora Galparsoro eta Maije Zelaia bera.

Ekitaldia baliatu zen Victor Gascon omentzeko, Mankomunitateko lehen enplegatua, hogeita zazpi urtez (1979tik 2006ra) presaren arduraduna izandakoa eta, gainera, 1969tik presaren eraikuntza-lanetan lan egindakoa. Era berean, Enrique Noain omendu zen, 1997 eta 2017 artean Añarbeko Uren Administrazio Kontseiluko buru izandakoa, eta traineru irabazleei "Añarbe Bandera" eman zitzaizkien.

50. urteurrena ospatzeko egun zehatzarekin bat etorritik, uztailaren 27an ezohiko bilkura egin zen presan, eta ekitaldi berean instalazioak bisitatu ziren.

Azkenik, maiatzeko eta ekaineko sei asteburutan hainbat jarduerak, bisita gidatu eta lantegi antolatu ziren Añarbeko Uren hiru instalazio nagusietan: presa, Petritegiko EUA – Edateko Uren Araztegia (Astigarraga) eta Loiolako HUA – Hondakin Uren Araztegia (Donostia). Errenteriako Udalarekin ere elkarlan bat egin zen Fanderiako Errotako interpretazio-zentroaren (Ibaiaren Etxea) jarduerak dinamizatzeko.

## ENERGIA ELEKTRIKOA PRODUZITZEKO JARDUERA

40ko hamarkadan, autarkia betean, eta hornidura elektrikoaren eta, oro har, energetikoaren arloan Espainiak bizi zituen gabezia larrien testuinguruan, Errenteriako Udalak azterketa bat egin zuen Añarbe ibaiaren aprobetxamendu hidroelektrikorako, baina asmoa bertan behera utzi zuen, Donostiako Udala aurka baitzegoen<sup>241</sup>. 1950eko hamarkadan, arazoak pil-pilean jarraitzen zuten, industriak energia elektriko eskuragarriaren zati handi bat xurgatzen baitzuen. 50eko hamarkadaren amaiera aldean eta 60ko hamarkadaren hasiera aldean, politika desarrollistetatik abiatuta, industriaren eta biztanleriaren hazkundera bizkortu egin zen, eta, ondorioz, lehendik zegoen azpiegiturak ezin zuten beharrezko elektrizitatea produzitu. Zentral elektriko txikiak zaharrituta geratu ziren eta ezin izan zioten gero eta eskari handiagoari aurre egin.

Industria-erabileretarako kontsumo izugarriaz, hazkunde demografikoz eta hirigintza-hedapenez gainera, bizi-estiloaren aldaketak funtsezkoak izan ziren energia-kontsumoaren gorakadan. Kontuan izan behar da, gainera, etxeek etxetresna elektrikoaren askotariko

que reunió a los protagonistas que, de forma directa o indirecta, ayudaron a escribir la historia los 50 años de la Mancomunidad: representantes institucionales, empresas colaboradoras, trabajadores, etc. estuvieron presentes en un acto al que asistieron más de 200 personas. Al acto asistieron todos los presidentes de la Mancomunidad vivientes: Xabier Albistur, Odón Elorza, Nora Galparsoro y la propia Maije Zelaia.

El acto sirvió para homenajear a Víctor Gascón, primer empleado de la Mancomunidad y Encargado de la presa durante veintisiete años (de 1979 a 2006) y que además trabajó en las obras de construcción de la presa desde 1969. Asimismo, se rindió homenaje a Enrique Noain, que estuvo al frente del Consejo de Administración de Aguas del Añarbe entre 1997 y 2017 y se hizo entrega de la "Bandera Añarbe" a las traineras ganadoras.

Coincidiendo con la fecha exacta de conmemoración del 50 aniversario, el 27 de julio se celebró en la presa una sesión extraordinaria que incluyó una visita a las instalaciones.

Finalmente, durante seis fines de semana de los meses de mayo y junio se organizaron distintas actividades, visitas guiadas y talleres en las tres instalaciones principales de Aguas del Añarbe: la presa, la ETAP (Estación de tratamiento de agua potable) de Petritegi (Astigarraga) y la EDAR (Estación depuradora de aguas residuales) de Loiola (Donostia/San Sebastián). También se realizó una colaboración con el Ayuntamiento de Errenteria para dinamizar las actividades del centro de interpretación del Molino de Fanderia (Ibaiaren Etxea).

## LA ACTIVIDAD DE PRODUCCIÓN DE ENERGÍA ELÉCTRICA

Durante los años 40, en plena autarquía y en el contexto de las graves carencias de suministro eléctrico, y energético en general, que vivía España, el Ayuntamiento de Errenteria realizó un estudio para el aprovechamiento hidroeléctrico del río Añarbe, del que desistió ante la oposición del de Donostia/San Sebastián<sup>241</sup>. En la década de 1950, el problema seguía latente, ya que la industria absorbía gran parte de la energía eléctrica disponible. A finales de los años 50 y comienzo de los

241 Zuazola Urdangarin, 1971, 13-19. or.

241 Zuazola Urdangarin, 1971, pp. 13-19.

gama eskuratzen zutela, eta horiek gero eta gehiago erabiltzen zirela. Landa-eremuek ez zuten elektrizitateko sarbide errazik, eta horrek eragotzi egiten zuen industria berriak esparru horietara hedatzea. Gipuzkoako Foru Aldundiak landa-eremuetako arazo elektrikoa konpondu nahi izan zuen, Landa Eremuko Elektrifikazio Plana bultzatuz (1972 eta 1975 bitartean aplikatu behar zen). Gipuzkoan kontsumitutako energia gehiena Pasaiaiko zentral termikotik zetorren, baina txikia geratu zenez, orduko Iberduerok Endata lurmuturrean, Deban, zentral nuklear bat eraikitzea planteatu zuen. Proiektua 1973an argitaratu zen, eta gaitzespen handi samarra jaso zuen<sup>242</sup>.

Añarbeko presaren aurreproiektuak zentral bat proiektatzen zuen presaren oineko aprobetxamendu hidroelektrikoetarako<sup>243</sup>. 1971ko apirilean, Felix San Vicente batzarkideak galdetu zuen zentral elektrikoari buruz. Zentral elektriko bat eraikitzeke Estatuaren alde aurreko baimena behar zenez, Mankomunitateko presidentetzak konpromisoa hartu zuen Espainiako Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoarekin gaia kudeatzeko. Aldez aurretik, instalazio mota horren errentagarritasuna aztertu zuen. Pixkanaka-pixkanaka zentralaren kontua atzeratuz joan zen, lehentasun handiagoa eman zitzaizen beste lan batzuk egin behar zirelako<sup>244</sup>.

Urte batzuk geroago, 1985eko otsailaren 18an, Pedro Ruiz Balerdi Donostiako zinegotziak, Euskadiko Ezkerraren ordezkariak, udal-ordezkarien batzarrera eramanez Añarbeko presa aprobetxamendu elektrikorako erabiltzeari buruzko azterketa bat enkargatzeko proposamena<sup>245</sup>. Hala, presan zentral hidroelektriko bat eraikitzeke ideia berreskuratu zuen. Mankomunitatearen estatutuetan aprobetxamendu hori adierazten zen, baina horretarako baldintza gisa ezartzen zen hiri interesatuetarako uraren kanalizazioa edo ekarria lehenago amaitzea. Labayen alkateari ideia interesgarria zela iruditzen zitzaion, eta berori aztertzeke prest agertu zen, nahiz eta Iberduerorekin egindako akordio baten mende egon, hark aprobetxamendua egingo baitzuen presa-oinean. Presa-oinean sortutako era horretako energia urtegiak hornitzen zituzten zentral elektrikoek saltzeko aukera, gainera, Gobernuaren azken xedapenetan jasotzen zen, eta Katalunian horrela

60, a partir de las políticas desarrollistas, el crecimiento industrial y poblacional se aceleró de tal manera que la electricidad necesaria no podía ser producida por la infraestructura existente. Las pequeñas centrales eléctricas se habían quedado desfasadas y no podían hacer frente a la creciente demanda.

Además del abrumador consumo para usos industriales, el crecimiento demográfico y la expansión urbanística, los cambios en el estilo de vida fueron claves en el aumento del consumo energético. Hay que tener en cuenta, además, la adquisición por parte de los hogares de una gama variada de electrodomésticos, cuyo uso iba en aumento. Las zonas rurales no tenían un fácil acceso a la electricidad, lo que impedía también la expansión a esos ámbitos de nuevas industrias. La Diputación de Gipuzkoa pretendió solucionar el problema eléctrico en los ámbitos rurales, mediante el impulso del Plan de Electrificación Rural, a aplicar entre los años 1972 y 1975. La mayor parte de la energía consumida en Gipuzkoa procedía de la central térmica de Pasaia, pero al quedar pequeña, llevó a la entonces Iberduero a plantear la construcción de una central nuclear en Punta Endata, en Deba. El proyecto salió a la luz en 1973 y recibió un rechazo bastante amplio<sup>242</sup>.

El anteproyecto de la Presa de Añarbe proyectaba una central para los aprovechamientos hidroeléctricos en el pie de la presa<sup>243</sup>. En abril de 1971, el juntero Félix San Vicente preguntaba sobre la central eléctrica. La presidencia de la Mancomunidad, debido a que para la construcción de una central eléctrica debía contarse con previa autorización del Estado, se comprometió a gestionar el asunto con la Confederación Hidrográfica del Norte de España, estudiando previamente la rentabilidad de ese tipo de instalaciones. Poco a poco la cuestión de la central se fue demorando ante la necesidad de realizar otros trabajos a los que se les dio mayor prioridad<sup>244</sup>.

Unos cuantos años más tarde, el 18 de febrero de 1985, el concejal donostiarra Pedro Ruiz Balerdi, representante de Euskadiko Ezkerra, llevó a la Junta de delegados municipales la propuesta para encargar un estudio sobre la utilización de la presa de Añarbe para el aprovechamiento eléctrico<sup>245</sup>; desempolvaba así la idea de construir una central hidroeléctrica en la presa. En los estatutos de la Mancomunidad se apuntaba a

242 Arrieta Alberdi, Barandiaran Contreras, 2003, 164-165. or.

243 1965eko apirilaren 8ko Dekretua. 1965.04.27ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*.

244 Añarbeko Uren Mankomunitatearen Batzarraren akta (1971.04.14).

245 *El Diario Vasco*, 1985-02-19.

242 Arrieta Alberdi, Barandiaran Contreras, 2003, pp. 1964-1965.

243 Decreto de 8 de abril de 1965. *Boletín Oficial del Estado*, 27.4.1965.

244 Acta de la Junta de La Mancomunidad de Aguas del Añarbe, 14.4.1971.

245 *El Diario Vasco*, 19.2.1985.





Presaren aprobetxamendu hidroelektrikoari buruzko artikulua (*El Diario Vasco*, 1985-06-30).

Artículo en presa en relación con el aprovechamiento hidroeléctrico de la presa. (*El Diario Vasco* 30-06-1985)

ese aprovechamiento, siempre y cuando se concluyera antes la canalización o traída de agua a las ciudades interesadas. El alcalde Labayen se mostró dispuesto a explorar una idea que le parecía interesante, aunque dependía de un acuerdo con Iberduero, que realizaría el aprovechamiento a pie de presa.

La posibilidad de venta de ese tipo de energía a pie de presa a las centrales eléctricas que abastecían la zona de los pantanos se contemplaba además en las últimas disposiciones gubernamentales y en Cataluña venían rentabilizarse así los saltos de agua<sup>246</sup>. Tras el oportuno estudio de viabilidad, la prensa local informaba: *“La Mancomunidad del Añarbe considera interesante la construcción de una central hidroeléctrica”*<sup>247</sup>.

Con el objetivo inicial de construir una central hidroeléctrica al pie de la presa de Añarbe que permitiera la turbinación de los caudales, prácticamente constantes, destinados tanto al abastecimiento de la población servida como al vertido al río Añarbe en concepto de caudal ecológico, la Mancomunidad del Añarbe constituyó el 15 de septiembre de 1993 junto con el Ente Vasco de la Energía (EVE) la sociedad Central Hidroeléctrica del Añarbe, S.A. (CHASA). El capital social ascendió a 800.848,63 euros, del que EVE participaba con el 97,56% y la Mancomunidad (posteriormente, desde 1996 AGASA) con el 2,44%.

La construcción de centrales a pie de presa para aprovechamientos hidráulicos se encontraba en auge, aportaban energía limpia y renovable, y las autoridades autonómicas impulsaban su construcción con el objetivo de alcanzar cierta autosuficiencia en materia energética. Diversas razones hicieron que se demorase en el tiempo la construcción de la llamada Central Añarbe I. Tras un intenso proceso de diálogo con el organismo de cuenca competente, la Confederación Hidrográfica, CHASA consiguió realizar la convocatoria del concurso para su adjudicación, que tuvo lugar el 25 de marzo de 1997.

bihurtzen ziren errentagarri ur-jauziak<sup>246</sup>. Bideragarritasun-azterketa egin ondoren, tokiko prentsak honako hau zioen: *“Añarbeko Mankomunitateak interesgarritzat jotzen du zentral hidroelektriko bat eraikitzea”*<sup>247</sup>.

Hasierako helburu zen Añarbeko presaren oinean zentral hidroelektriko bat eraikitzea, ur-emari ia konstanteak turbinatu ahal izateko, bai zerbitzatutako herritarrak hornitzera, bai Añarbe ibaira isurtzeko, emari ekologiko gisa. Bada, hori helburu hartuta, Añarbeko Mankomunitateak, 1993ko irailaren 15ean, Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) batera, Central Hidroeléctrica del Añarbe SA (CHASA) sozietatea eratu zuen. Horren kapital soziala 800.848,63 eurokoa zen, eta kapital horretan EEEK % 97,56ko partaidetza zuen, eta Mankomunitateak (ondoren, 1996tik, AUSAk) % 2,44koa.

Aprobetxamendu hidraulikoetarako zentralak presa-oinean eraikitzea geraldian zegoen, energia garbia eta berriztagarria ematen baitzuten. Hala, agintari autonomikoek zentral horiek eraikitzea bultzatzen zuten, energiaren arloan nolabaiteko autosufizientzia

246 *Deia*, 1985.02.19.

247 *El Diario Vasco*, 1985.06.30.

246 *Deia*, 19.2.1985.

247 *El Diario Vasco*, 30.6.1985.



Añarbe I zentrala eraikitze obrak (1998).

Obras de construcción de la CH Añarbe I (1998).



lortzeko. Hainbat arrazoiengatik, atzeratu egin zen Añarbe I zentrala deitutakoaren eraikuntza. Arroko erakunde eskudunarekin, hau da, Konfederazio Hidrografikoarekin, izandako elkarriketa-prozesu gogor baten ondoren, CHASAk lortu zuen adjudikaziorako lehia- ketaren deialdia egitea (1997ko martxoaren 25ean egin zen).

Adjudikazioa urte bereko ekainaren 16an lortu zen, eta uren emakida azaroaren 13an baieztatu zen honako ezaugarri hauekin: segundoko 2.525 litroko batez besteko emaria (2.200 litroko hornidurarako emakida-emaria eta 325 litroko nahitaezko emari ekologikoa), urteko 79,6284 hm<sup>3</sup>-ko gehieneko bolumena eta 25 urteko emakida-epea. 1.232 kW-eko potentzia instalatuko ardatz horizontaleko turbina bat zuen, eta jauzi hidraulikoa 40 eta 55 m bitartekoa. Zentrala 1999ko martxoaren 4an inauguratu zen, eta berehala jarri zen funtzionamenduan. 150.000.000 pezetako inbertsioa behar izan zen, eta CHASAk ordaindu zuen oso-osorik<sup>248</sup>.

Lehorte labor baina bizi batzuk zirela eta, agerian geratu zen Goizuetako zentralak emariak hartzeak eragina izan zezakeela Mankomunitatean. Izan ere, garai hartan kontraesan objektiboa bizi izan zen Goizuetako zentral hidroelektrikoaren ustiapen-interesen eta Mankomunitatea hornitzeko interesen beraien artean —zentral hura, Añarbe II izango zena, Energía Hidroeléctrica de Navarra SAre (EHN) jabetzakoa, Uru-mea ibaian kokatua, Añarbe ibaiko urak urtegitik uretan gora hartzen zituen—. Hala, zentrala desjabetzeko



Central Hidroeléctrica de Añarbe, S.A.(CHASA)ren logotipoa

Logotipo de Central Hidroeléctrica de Añarbe, S.A.(CHASA)

La adjudicación se obtuvo el 16 de junio de ese mismo año y la concesión de aguas se verificó el 13 de noviembre, con un un caudal medio de 2.525 litros por segundo (2.200 de caudal concesional de abastecimiento y 325 de caudal ecológico obligatorio), un volumen máximo anual de 79,6284 hm<sup>3</sup> y un plazo concesional de 25 años. Contando con una turbina de eje horizontal de 1.232 kW de potencia instalada, oscilando el salto hidráulico entre los 40 y los 55 m. La central se inauguró el 4 de marzo de 1999, entrando rápidamente en funcionamiento. Habiéndose requerido una inversión de 150.000.000 de pesetas, desembolsados íntegramente por CHASA<sup>248</sup>.


Con ocasión de algunos breves pero intensos episodios de sequía, se puso de manifiesto cómo la toma de caudales por la Central de Goizueta podía afectar a la Mancomunidad. En efecto, en esa época se vivió la

248 Añarbeko Urak, 1999, 28-29. or.

248 Aguas del Añarbe, 1999, pp. 28-29.

# La construcción de una caja simétrica a la del ascensor de La Perla se autoriza hoy

Los materiales utilizados deberán ser como los del edificio, particularmente el cristal



**CONSEJO REGULADOR**  
 La construcción de una nueva caja simétrica a la del ascensor de La Perla se autoriza hoy por el Consejo Regulador de Edificios de Gran Altura de San Sebastián. El proyecto, presentado por el arquitecto Juan María de la Cruz, prevé la construcción de una caja simétrica a la del ascensor de La Perla, con una altura de 100 metros y una superficie de 10.000 metros cuadrados. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.

## Mas de apoyo a la autoría de Pamplona a Itaska y Urica

El Ayuntamiento de Pamplona ha aprobado el proyecto de la central hidroeléctrica de Goizueta, en el río Urumea. Este proyecto, que forma parte de la obra de saneamiento de la zona, incluye la construcción de una presa y una central hidroeléctrica. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.

## Se pide para una ordenanza para la publicación de los boletines

El Ayuntamiento de Pamplona ha aprobado una ordenanza para la publicación de los boletines de la Mancomunidad del Norte. Esta ordenanza establece que los boletines de la Mancomunidad del Norte se publicarán en el Boletín Oficial de Navarra. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.

## La propuesta de Centro Bretxa será rechazada

El Ayuntamiento de Pamplona ha rechazado la propuesta de un centro de ocio en Bretxa. Esta propuesta, que incluía la construcción de un centro de ocio y una central hidroeléctrica, no fue aprobada por el Ayuntamiento. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.

## Se pide parar la central eléctrica del Añarbe

Se pide parar la central eléctrica del Añarbe por problemas de contaminación. Esta petición, que fue presentada por los vecinos de la zona, fue aprobada por el Ayuntamiento. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.

## Relevo plebiscario en Arretxena para la concesión de la central

Se pide un plebiscito en Arretxena para la concesión de la central hidroeléctrica. Esta petición, que fue presentada por los vecinos de la zona, fue aprobada por el Ayuntamiento. El proyecto se autoriza con la condición de que los materiales utilizados sean los mismos que los del edificio original, particularmente el cristal.



bideari ekin zitzaion, eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoari eskatu zitzaion desjabetzea gauzatzeko.

*“Bazen beste zentral bat, Energía Hidroeléctrica de Navarra (EHN); sozietate hori Esteban Morrás zeraman Iruñetik, eta, kasualitatez, berak idatzi zituen Mankomunitatearen estatutuak (...). Lehorteak iristen dira, eta presa EHNren zentralaren azpian dago (...).”*

*Uren Legeak dio lehorte-egoerak iristen direnean, eta Konfederazioak ofizialki deklaritzen dituenean, hornidurarako erabilerak lehentasuna duela beste edozeinen aldean. Orain ingurumen-ñabardura bat dago, eta urteko egun guztietan ura askatu behar da emari ekologikorako, ohe hori elikatu landare- eta animalia-bizitzako basamortu bihur ez dadin”.* (E 3. Enrique Noain)

1996ko abenduaren 18an Kontseiluak egindako bileraren aktan ezarri ziren egin beharreko jarduketak, EHN sozietateak zuen ur-emia nahitaz desjabetzeko espedientearekin lotuta. Espediente hori Añarbeko Mankomunitateak hasi zuen. Jarduerak honako hauek izan ziren: EHNri ur-emakidaren nahitazko desjabetzearen balio justua ordaintzeko aurrerakin itzulgarria eskatzea; proposamena egitea Merkataritza Erregistroari eskatzeko kapital-zabalkuntza izenpetzeko aditu independente bat izenda dezan; Añarbeko Mankomunitateak eskatutako aurrerakin itzulgarria finantzatzeko kreditu-lerro bat onartzea; Nafarroako Nahitazko Desjabetzeko Probintzia Epaimahaiak ezarritako balio

Artikulu prentsan, Nafarroako zentral hidroelektrikoari buruz. (El Diario Vasco 1996-07-30)

Artículo en prensa en relación con la central hidroeléctrica de Navarra (El Diario Vasco 30-07-1996).

contradicción objetiva entre los intereses de explotación de la Central hidroeléctrica de Goizueta, futura Añarbe II, propiedad de Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A. (EHN)., sita en el río Urumea, y que captaba sus aguas del río Añarbe aguas arriba del embalse, y los propios del abastecimiento de la Mancomunidad. Se emprendió la vía expropiatoria de la central, instando para llevarla a cabo a la Confederación Hidrográfica del Norte.

*“Resulta que había otra central que era la de Energía Hidroeléctrica de Navarra (EHN), sociedad llevada, desde Pamplona por Esteban Morrás, que casualmente fue quien redactó los estatutos de la Mancomunidad (...) llegan sequías y la presa está debajo de la central de EHN (...)*

*La Ley de Aguas dice que cuando llegan situaciones de sequía, y se declaren oficialmente por la Confederación, el uso para abastecimiento es prioritario sobre cualquier otro. Ahora hay un matiz ambiental, y hay que soltar todos los días del año agua para el caudal ecológico, alimentar ese lecho para que no se convierta en un desierto de vida vegetal y animal”* (E 3. Enrique Noain)

El acta del Consejo celebrado el 18 de diciembre de 1996 estableció las actuaciones a realizar en relación con el expediente de expropiación forzosa del caudal de agua que poseía EHN incoado por la Mancomunidad del Añarbe. Las actuaciones fueron las siguientes: solicitud de anticipo reintegrable para el pago del justiprecio de la expropiación forzosa de la concesión de agua a EHN; propuesta de solicitud al Registro Mercantil de nombramiento de experto independiente para suscripción de ampliación de capital; aprobación de una línea de crédito para la financiación del anticipo reintegrable solicitado por la Mancomunidad del Añarbe; encargo de estudio técnico-económico sobre la valoración del justiprecio del Jurado Provincial de Expropiación Forzosa de Navarra<sup>249</sup>.

La adquisición de la concesión de 1.500 l/s de EHN (que pasará a conocerse como Añarbe II) no se hizo sin oposición. Es así como se planteó un recurso

249 Acta del Consejo de Administración de la sociedad Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A., 18.12.1996.

justuaren balorazioari buruzko azterketa tekniko-ekonomikorako enkargua egitea<sup>249</sup>.

Ondoren Añarbe II izenaz ezagutuko zen EHNk ez zuen oposiziorik gabe eskuratu 1.500 l/s-ko emakida. Izan ere, Energía Hidroeléctrica de Navarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoaren aurka, Estatuko erakundeak zentral hidroelektrikoa desjabetzeko emandako ebazpenarekin lotuta. Iruñeko Desjabetze Epaimahaiak desjabetzearen balio justua 894 milioi pezetatan finkatu ondoren (EHNren asmoaren % 93), AUSAren presidentetza exekutibo berriak zentrala eskuratzeko negoziazioei ekitea gomendatu zuen, desjabetzearen ordeiz elkarren arteko salerosketa-akordio bat ezarrita. Horrek, beste abantaila batzuen artean, zentrala energia elektrikoaren produkzio-zentro gisa kontserbatzea zekarren. Hala, eskuratzearen helburu nagusia lortuta — hau da, hornidurarako emari horiek ziurtatzea —, modu subsidiarioan lortu ahal izango zen bigarren mailako helburu bat, hala nola energia produzitzea, salmentagatik dagozkion diru-sarrerak lortuta.

Ondorioz, Mankomunitateak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Nafarroako Desjabetze Epaimahaiaren ebazpenaren aurka, Goizuetako Añarbeko zentral hidroelektrikoa desjabetzeko finkatutako balio justuarekin lotuta. Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak hasitako Añarbeko Zentral Hidroelektrikoaren desjabetze-prozedura Mankomunitateak atzera egin zuelako amaitu zen.

Negoizazioek amaiera ona izan zuten, eta, horrela, 1997ko azaroaren 21ean, AUSAk zentrala erosteko eskritura publikoa sinatu zen, 650.000.000 pezetako prezioan, hiru epetan ordaintzeko. Azken 50 milioiak baino ez ziren ordaindu gabe geratu, eta 2000ko irailaren 21ean ordaindu behar zen, AUSA zentrala ustiatzen hasiko zen egunean, hain zuzen.

Esan daiteke, beraz, AUSAk 1.500 l/s-ko emakida-emia eskuratu zuela, eta hori gehitu egingo litzaioke Añarberen jatorrizko emakidari (2.200 l/s). Eragiketa horren bidez, nabarmen handitu zen etorkizunerako hornidura-bermea, eta zegoen kontraesana ezabatu zen. Añarbe sistemako baliabide guztiak Mankomunitatearen esku geratu ziren, erabiltzaileen hornidura asetzeko, eta ez da ahaztu behar horrela CHASA enpresa garrantzitsua bihurtzen zela energiaren sektorean, bi zentral elektrikoekin eta horiek elikatze behar adinako emariarekin.

contencioso-administrativo de Energía Hidroeléctrica de Navarra contra la Confederación Hidrográfica del Norte, en relación con la resolución expropiatoria de la Central Hidroeléctrica dictada por el organismo estatal. Fijado por el Jurado de Expropiación de Pamplona el justiprecio de la expropiación en 894 millones de pesetas (el 93% de la pretensión de E.H.N.), la nueva Presidencia ejecutiva de AGASA recomendó emprender negociaciones para la adquisición de la central, sustituyendo la expropiación por un acuerdo mutuo de compra-venta lo que, entre otras ventajas, tenía la de conservarse la central como centro productivo de energía eléctrica de manera que, satisfecha la finalidad principal de su adquisición, que era la de asegurar esos caudales para el abastecimiento, se pudiera con carácter subsidiario satisfacer un objetivo secundario, como es el de producir energía, obteniendo los correspondientes ingresos por su venta.

En consecuencia, fue interpuesto un recurso contencioso-administrativo por parte de la Mancomunidad contra la resolución del Jurado de Expropiación de Navarra, en relación con el justiprecio fijado para la expropiación de la Central Hidroeléctrica del Añarbe, ubicada en Goizueta. El procedimiento expropiatorio de la Central Hidroeléctrica del Añarbe emprendido por la Confederación Hidrográfica del Norte, concluyó por desistimiento de la Mancomunidad.

Las negociaciones llegaron a buen puerto, y así, el 21 de noviembre de 1997 se firmaba la escritura pública de adquisición de la central por AGASA, mediando un precio de 650.000.000 de pesetas, pagadero en tres plazos, quedando únicamente pendiente el abono de los 50 últimos millones, a pagar el 21 de septiembre de 2000, fecha en que AGASA comenzaría a explotar la central.

Puede decirse así que un caudal concesional de 1.500 l/s fue adquirido por AGASA, lo que se sumaría a la concesión original del Añarbe, por 2.200 l/s. Con esta operación se obtuvo un notable aumento de la garantía de abastecimiento para el futuro, y la eliminación de la contradicción que existía, quedando el total de los recursos del sistema Añarbe en manos de la Mancomunidad para la satisfacción del abastecimiento a sus usuarios, sin olvidar que CHASA se convertía así en una empresa importante en el sector energético con dos centrales eléctricas y suficiente caudal para alimentarlas.

Sobre la Central Añarbe II, basta por tanto aquí reseñar los 1.500 l/s de caudal concesional, más los tres equipos turbogeneradores de que constaba, constituidos por tres turbinas "Francis" de eje horizontal para 87 m de salto y un total de 1.368 kW de potencia. AGASA se hizo cargo de la explotación de la central a partir del 4 de octubre de 2000.

249 Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietatearen Administrazio Kontseiluaren akta (1996.12.18).



AÑARBE I ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA . CENTRAL HIDROELÉCTRICA AÑARBE I.

Añarbe II zentralari dagokionez, beraz, nahikoa da hemen aipatzea 1.500 l/s emakida-emaria, gehi zituena hiru turbosorgailu-ekipoak, ardatz horizontaleko hiru "Francis" turbina, 87 m-ko jauzirako, eta guztira 1.368 kW-ko potentziakoak. AUSA 2000ko urriaren 4tik aurrera arduratu zen zentrala ustiatzeaz.

Hirugarren proiektu batean, CHASA (Añarbe III zentrala izenekoa) Loiolako Hondakin Uren Araztegiaren eraikuntzan sartu nahi izan zen. Laurogeita hamarreko hamarkadan, elkarrizketak izan ziren Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Energiaren Euskal Erakundearekin, AUSAren azken erakunde horren baterako inbertsio bat proposatzeko. Planteamendua zen CHASAREN tresna behar bezala egokituta erabiltzea, Loiolako Hondakin Uren Araztegiaren kogenerazio-zentral bat ezartzeko, laster eraikitzeko asmoa baitzegoen. Zentral horrek gas naturala erabiliko luke laguntza-energia gisa, Hondakin Uren Araztegiko lohien digestio anaerobioak sortutako biogasarekin konbinatuta, eta haien errektantza- eta hozte-beroa lohi horien lehorte termikorako erabiliko litzateke, eta, aldi berean, instalazioan bertan erabili ahal izango zen energia elektriko sortuko litzateke (ondorioz, kanpora egindako energia-erosketak gutxituko lirateke), edo, are, energia elektriko hori Iberdrola SA konpainiari saldu ahal izango zitzaion, lehen deskribatutako bi zentraletan egiten zen bezala.

Hala ere, Loiolako proiektua atzeratu egin zen, eta 2008ra arte ezin izan zen energiari sortu Loiolako Hondakin Uren Araztegiko bi kogenerazio-zentralen, araztegia 2005eko uztailean abian jarri zen arren eta 2006tik aurrera autokontsumorako eta sare elektriko orokorrari saltzeko energia-produkzioa iragarri



Gestión de centrales del Añarbe, S.A. (GECASA)ren egungo logotipoa.

Logotipo actual de Gestión de centrales del Añarbe, S.A. (GECASA).

Hubo un tercer proyecto en el que se pretendía involucrar a CHASA, la llamada Central Añarbe III, a construir en la EDAR de Loiola. En los años noventa se mantuvieron conversaciones, tanto con la Confederación Hidrográfica del Norte como con el EVE para plantear una inversión conjunta de AGASA con esta última entidad. El planteamiento era utilizar el instrumento de CHASA convenientemente adaptado para ello, con objeto de implantar una central de cogeneración en la EDAR de Loiola, que se planteaba construir próximamente. Dicha central, utilizaría gas natural como energía de apoyo, en combinación con el bio-gas generado por la digestión anaerobia de los fangos de la EDAR, y su calor de combustión y refrigeración se utilizaría para el secado térmico de los mismos, a la vez que se generaría energía eléctrica susceptible de ser utilizada en la propia planta (con la consiguiente disminución de las compras de energía al exterior), o incluso de ser vendida a la compañía Iberdrola, S.A., del mismo modo que se hacía ya en las dos centrales anteriormente descritas.

Sin embargo, el proyecto de Loiola se retrasó y hasta el año 2008 no se pudo generar energía en las



ÁÑARBE II ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA . CENTRAL HIDROELÉCTRICA AÑARBE II.

ondoren<sup>250</sup>. Kogenerazio-zentralen eraikuntza Gestión de Centrales del Añarbe SA GECASA (CHASA zena) sozietateak finantzatu zuen, 3.996.347 euroko azken kostuz. Hura ustiatzea eta, ondorioz, haren funtzionamendurako beharrezko gas naturala eta energia elektrikoa eskuratzea, era berean, aipatutako sozietatearen kargura dago, eta sozietate horrek Hondakin Uren Araztegiaren produzitutako biogasa ere eskuratzen du AUSAren gandik. Gaur egun, enpresak berak emandako informazioaren arabera, Aguas del Añarbe-Añarbeco Urak SA (AUSA) 211.141 akzioen titularra da. Horiek kapital sozialaren % 70 inguru dira. Era berean, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) 90.490 akzio ditu. Horiek kapital sozialaren % 30 inguru dira.

Loiolako Hondakin Uren Araztegiako lohien lineak estazioan sortutako lohiak termikoki lehertzeko instalazio bat barne hartzen duenez, bero-energiaren ekarpen handia behar da. Bero hori sortzeko, Loiolako Hondakin Uren Araztegiak kogenerazio-zentral bikoitza du. Zentral horrek, lohien digestore anaerobioetan sortutako biogasa baliatuz eta gas naturalaren laguntzarekin, biogaseko eta gas naturaleko motorrak erabiltzen ditu, hurrenez hurren, eta horien ihes-gasek eta hozte-fluidoak aukera ematen dute lohien lehorte termikoko instalazioarekin beroa trukatzeko.

dos centrales de cogeneración de la EDAR de Loiola, a pesar de la puesta en marcha de la depuradora en julio de 2005 y tras anunciarse a partir del 2006 la producción de energía para autoconsumo y venta a la red eléctrica general<sup>250</sup>. La construcción de las centrales de cogeneración fue financiada por la sociedad Gestión de Centrales del Añarbe, S.A. (GECASA), la antigua CHASA, con un coste final de 3.996.347 euros. Su explotación y, por ende, la adquisición del gas natural y la energía eléctrica necesarios para su funcionamiento, corre también a cargo de la mencionada sociedad, que adquiere también el biogás producido en la EDAR a AGASA. Actualmente, según la información aportada por la propia empresa, Aguas del Añarbe-Añarbeco Urak, S.A. (AGASA), es titular de 211.141 acciones, que representan aproximadamente el 70% del capital social. A su vez, el Ente Vasco de la Energía (EVE) es titular de 90.490 acciones representativas del 30%, aproximadamente, del capital social total.

